

# YAKIN

(PRO MANUSCRIPTO)

---

6 zenb. A R A N T Z A Z U'N-Pazkoaldikoa- 1.958

## ĀTARĪĀ

Guzion pozgarri da euskera uri aundietan ezartzen ari dala jakites. Agintariak esnatu dira noizpait eta euskeraren aldeko biurtu. Urietan dago euskeraren etorkizuna. Auetan erabat il ezkeru, egin du beinbetiko.

Esna gaitezen euskaltzaleok ere. Ez dakiela euskaldunberriei lotsagarri gerta gure izkuntza. Ez lotsa eta ez enbazo. Moldatu dezagun lenbailen gizabide berri ontara, gure euskerak dagozkion eskubide-mailak iritxi ditzan. Lan du dezagun eta kulturbideratu tresna zartxo au.

Asmo onekin diardu YAKIN aldiz-  
kari onek. Euskaldun eta euskaltzale  
guzion betebearrik nagusiena auxen du-  
gu gaurkoz: euskera berpiztu. Euskera  
berpiztean, euskal-gogoa ere berpiztu  
egingo baita. Askatu-eziñak dira bi  
auek. Zenbat eta euskeragotu, ainbat  
euskaldunagotu. Eta alderantziz.

Gauden leial eta tinko urrutil-  
xean somatzen dan euskal-argixintak  
ausi dezanerako!

Y A K I N



TEOLOJI -

FILOSOFI -

SAILLA

# AITA SANTUAREN ITZA

## AMABIGARREN PIO, ERROMAKO GOTZAI

Aita Santuak Erroma Barrutiko apaiz jaun eta Garizuma-garaiko izlariei, aspaldi ontan urteoro zuzentzen dizkien itzaldi eder eta mamitsuak arretaz irakurtzen baditugu, argi ikusiko dugu, Aita Santua, naiz Eleiz osoaren Artzai On izan, Kristo beraren ordezeko dugunez, Erromako Barrutia duala batez ere, bere lan, amets eta nekeen artean lenen; itz batean, bere begien erdienean Erroma duala. "Eleiz guztien ardura"(2 Cor., II, 28) badut ere, ez du onek esan nai Erromako Eleiza ez dudala Jainkoak bereziki emari didana: ai baidet nere gogo guztien lenen, maitasun eta estuasunetan aurren ere..."; esango die berak 1958'ko Epaillaren 5'eko itzaldian.

Orregatik, Aita Santuaren ametsik aundiena Erroma, mundu guztitik aruntz jotzen duten kristau eta baita ere siñesgabe guztientzat ixpilla garbi izatea litzake. Erroma, onaren ixpilla, bizi onaren ixpilla, egiaren ixpilla, zuzentasunaren ixpilla, pakearen ixpilla... nai luke; bai baldaki ondo "Erroman piztuko litzaken argiak mundu osoa argituko lukela, eta uri ontako ikasbide ona mundu guztiko uri eta barrutietara zabalduko litzakela" (Egun berean).

Bañan bere gogo bikain ori egi izateko urruti, oso urruti dagola ikusten du samiñez. Mundu guztiko kristauen eredu izan bear luteken erromatarrak, ez dira Aita Santuak nai lituzkenak. Eta onetxek ematen dio Aita Santuari miñik biziena: bere barrutiar biotzekoak, bere seme kutun oiek bide okerretik ibiltzeak; ikusten bai du erromatar asko eta askok izena besterik ez dutela beren kristautasunaren agiritzat. "Bataiatuak dira, Kristo'gan siñesmen badute; bañan Berak izendatutako artzaien esana, ezta ere Aren aginduak ez dituzte nai bete" (Tok. ber.). Gogora ekarri besterik ez dugu, orain dala gutxi Prato erriko Gotzai Jaun txit agurgarri Fiordelli'ri gertatua. Erriaz ezkondu arren, Elizaz ezkondu nai izan etzutelako, kristau erakutsiak bataiatuei agintzen dienez, Bellandi "senar-emazteei" ezkondu gabe, eta orregatik pekatu agirian bizi zirala argi adieraztera eman zielako, Florentzi'ko Auzitegi Nagusira deitua izan da; eta Auzitegi onek, berriz, naiz eskubiderik ez izan gauz aueri buruz, gezurti bezela guztien aurrean agertuz, esanagatik sari aundi bat ordaintzera beartu zun... Gertakizun onek Aita Santuaren biotza ezin esanerañoko naigabez beterik dula esan bearrik ez: Aita Santu egin zuten egun aundiaren emeretzigarren urte betetzerako jaiak debekatu ditu.

Alegin guztiak egin ditu, len esan bezela, Erromako Barrutia, erromatarrak beste guztien eredu ditezen on bidean. Bñan, egun ori urruti, oso urruti dagola aitortzen du. Eta urteoro, bere aurrera biltzen dira apaiz jaun eta Garizuma garaiko izlariet, erri eta gizonen barne-lantze orri gogor eta gartsuki ekin bearrean dirala agertzen die. Orainarteko urteetan, lan oitan ari danak zer nolakoa izan bear dun agertu oi zien. Itzaldi auetan arkituko ditu zuzenbiderik ederrenak biotzak iranaztea bere gain dun orok.

ERROMAKO APAIZ JAUN ETA GARIZUMA ALDIKO  
IZLARIEI ITZALDIA. (1958-II-19).-

Itzaldi onek, beste urteetakoen aurrean nabarmenkeri bat ba-du: beste urteetako itzaldiak

ez bezela, oraingo au, Erroman gaurko egunean gertatzen diran iru gaitzetaz mintzo zaigu. Ara emen iru gaitz nagusi auek: a) Igande ta jai egunetako lan egin bearra; b) buru erailtzeaz; d) bideetako ustegabeko gaitzetaz.

Egia da, bai, aurreko urtean ere bi gaitzetaz mintzo zitzaigula, bañan igaroz bezela. Igaz aipatzen zitun gaitzak, "irudi zatarrak, aldizkari, izparringi, kalen...edonun agirian jarri bearra", zan bat; "Erromako apaiz-eza", bestea. Nork siñestu, Erroman, ainbeste eta ainbeste errietako apaiz biltzen diran urian, apaiz-premia izatea? Bañan alaxe da. Erromako Barrutiak apaiz oietatik, Erroma Eleizaren buru danez antxe dauden apaiz ikastetxe, auzitetxe... ugarietatik oso laguntza eskaxa artu dezake; egin-bear bereziak bai baidituzte, aruntz juanak geienetan ikastera-edo juanak bai dira. "Apaiz-bear aundian arkitzen da Erroma", esaten du, eta "bitartean azitzen eta azitzen dijoa Erroma bertan jaio edo bertara datoztenengatik; biotzak laguntza eske aundiagoan dira len ere baño, eta gutxiegi eta bear ainbat ez dituzute apaiz etxetan apaizten diranak"... Onek Aita Santuari emango dion naigabe, atsekabe aundiaz obe ez mintzo.

Aurtengo itzaldi ontan, beren egitekoari buruz gelegi estutu gabe ibiltzeko agintzen die, "illuna aunditu eta argiak gutxietsi gabe; egia dan bezela artuz, etorriko zaizkizuten gorabera aundi naiz txikiak garaitzeko zaillena egiñik baidezute..." Gero, Erroma Eleizako Erri buru danez zer izan bear luken aitatu; zoritxarrez, gaurko egunean Erroma berak ere ba-ditula "illunak jotako bazterrak, Berri Ona zabaldu bearreko zokoak..." esan; eta, auek guztiak gogoan izanik, lanik ederrena, arnari gori eta elduak ekarriko dizkiena nola burutu adieraztera eman ondoren, len aipatutako iru gaitz nagusi aietaz itzegiten die.

### ERROMAKO IRU GAITZ NAGUSI

Erromako iru gaitz nagusi esan badugu ere, ez dugu au aipatzearekin, Erroman bakarrik eta beste iñun ez dirala gertatzen esan nai izan.

Guztiok dakigu ongi iru gaitz oiek mundu osoan oso zabalduak ditugula, zoritkarrez.

a) Igande, jai egunetako lan egin bearra.-

Euskaljerri ontan ere urrutira joan gabe, gaitz au oso zabaldua dugula guztiok ba-dakigu. Igande eta jai-egunetako lanari buruz, zenbat eta zenbat euskaldun eta euskaldun ez diran jator asko ikusten ditugun "bear aundirik gabe" lanean. Egia da, eta aundia gañera, ainstestean, estuasun uandirik gabe bizi diranak, estuasunik gabe lasai bizitzera iritxi nai lutekela; gizon guztien ametsa. Gañera asko eta askok naiz aste egunean zortzi (zorionekoa!) ordu edo geiago (zoritxarez) lanean ibilli, eguneroko bearrak estu eta larri betetzera irixten diralarik, irixten badira... irabazten dutena ez baidute ezertarako, jakiña, aurrera atera nai duanak zerbaiti eldu bear. Errukarri da benetan, bere indar-izerdiak aste-egunean bota dituzten langilleai igandea etorrita ber-bearrezko duten atsedena ukatzea... Errukarri da benetan, bañan egi aundia! Langilleari "berrea" ukatzen dionak zer ari dan baleki. Eleizara egunero joatea ez da naiko, arek erakusten diguna (emen, langilleari eman edo zor zaionari buruz) betetzen edo egi biurtzen ez baditugu, eskuan izanda, gañera. Ni ziur-ziur naiz, igande ta jai egunetan lanean ari izango lirakenak askoz ere gutxiago izango lirakela, langilleak, berari dagokionez bizitzeko eta sendia azitzeko bear ainstat sortuko balu.

Ba-dira, bai, katolikoan artean beste asko, bear gorrian bizi ezezik estuasunik ere gabe bizi diranak, zorioneko diru-gose orrek eraginda, jai-goizean beintzat, eta egun guztian ere lanera joaten diranak, geiago-asko ez, bañan alaz ere zerbait bai-izateko asmoz. Eleizak aginduak aztuz, edo... aintzakotzat ez artuz, ajolakaberiz... Gorputz-bizitzari bera gañezka ematen diotenak; Cesar'i berrea bai, bañan Jaunari ori bera eman nai ez diotenak. Auek, gogo-gogoan artu bear dituzte Aita Santuak erromatarrei buruz apaiz jaun eta izlariei esaten diena: "Eleizak kristau-bizitzaz erakutsi diguna oso aldamenera utzia du -jaiak jai egiteko ortan- gaurko gizadiak,

uri aundietan batez ere. Orren ordeaz, atsegin zatar, lurkoi oiek (bearrezko eta legezkoak ez noski) norberenganatzeko ero-gosea sartua dugu, aberats naiz landerretan, neurririk gabe eta astean irabazitakoak ondaturaz askotan. Meza entzutearekin aginduaren-agindua betetzen badute ere, oso gutxi izango dira, adimena landu, semeak azi, eta beartsu naiz gaxoei errukia nolabait erakusteko ordu alditxo bat artuko dutenak. Eta zer esango dut, batzutan agiri-agirian egiñik askorentzat gaitzbide au Erroman jai-egunetako bearrik gabe lan egite ortaz?". "Erakutsi, beraz, -eskatzen die aurrean ditun apaiz jaun eta izlariei- zuen kristau-semeei jai-eguna nola jai-egin, jaietako lan oriek dituzten neurriak, eta zeintzuk diran Jainkoak "gure" baño "Bere"ago dan egun ortan, eskatzen dizkigun lanak..."

b) Nork bere burua il bearra.-

Gero, Erroman eta beste inguru guztietan ain zabaldua dugun gaitz ontaz itzegiteko eskatzen die. "Geure bizia ere, Jainkoari bakarrik dagokio; iñork ez dezaioke, beraz, biziari uko-egiñ, pekatu aundi bat egiteke". Beren burua iltzen dutenak ez dira beti adiñean sartutako gizon-emakumeak, aul edo gaixo dabilzanak, besteeri kaltegarri izan nai ez luketenak; txirotasun edo bear gorrian bizi diranak...; askotan, gazte-gazteak beren burua iltzen dute, lur ontako atsegiñetan, ustez, batbatean eta bete-betean asetzeko garairik ederrenean; batek, naigabe bat edo beste izan eta garaitzeko kemenik izan etzulako; gertakizun negargarri baten aurrean, beste biderik ikusi etzutelako; bizitzaren illuna besterik ikusi ez-ta, gerokoaren sinismen edo itxaropenik etzutelako, etab. Zer dala-ta bada, eriotz auek guztiak? Erantzunik ziurrena, Aita Santuarena: sinismen eta itxaropenik eza.

"Erriko gertakizunen berri ematen diguten orrialdeak begizatzen edo aztertzen ditugunean -askotan gertatu oi da- gertakizun txit errukarri auetakoren bat ikusten badugu, apaiz geran guztiok biotza kezka ikaragrrri onek larritu bear luke: animen artzai geranok, gure eskuan gendun guztia egin ote dugu biotz oietan kristau-



siñismen eta itxaropenak sartzeko? Atsekabeetan biozdun, gaixoaldian eramaneko, Jainkoagan uste aundiko, ainbeste azpikeri aurrean zintzo jokatzen erakusteko? Eta... ain asmo txar oiek erarik onenean ixutzearren? Nork bere burua iltze orrek, Jaunaren errukia indarge uzten digularik alde batetik, bestetik kristau-siñismen edo itxaropen eza agirian jartzen digu... Agertu zaiezute, beraz, zuen eliztarrei pekatu onen aundia; erakutsi zoritxarrak gogo onez nola artu, eta bide okerretik ateratzearren, bearrezko bada, bildurrez ere ikaratu, eleiz-erakutsiak ekartzen dizkiguten zuzenbideak agerraraziz. Al duzutena egizute gaitotasun au gizonen artean zabaldu ez dedin".

d) Bideetako ustekabeko gaitzak.-

Lenengo gaitza inguru guztietara zabaldua badugu, eta Euskalerrian zer-esanik ez, irugarren au zabalduagoa dugula esan genezake. Egunik ez da, zorioneko bide oietan, odol-ustu edo ezur-ausiak izaten ditutenen berri izaten ez dugunik. Batean, au dala; bestean ura. Batek bizkar-ezurra ausi dula, besteak ankezurrak; zuaitzen bat bat erdi-erditik ebaki dula batek, beste zulo batetik bera joan zaigula; au, motoan; ura, berebillan; batzuek il, besteak eri bizi guzira; elbarri, ankamotz, besomotz, buru-ezurra autsita... gelditutakoen berri egunero jasotzen dugu. Egunetik egunera geiago gaiñera... teknikak ekarri dizkigun aurrerapeneri esker eta baita ere gizonaren alperkeri apurño batengatik; gizonak, oñak beste gauzetarako utzita, berebillari eldu baidio. Eta berebil onen gaiñean ikustean... oñekoeri ajolik ez; illik, eri edo elbarri gelditutako aurtxo, agure, emakume... berak dakite ori. Azkar badijoa, azkarrago oraindik nai; aurrekoa aurreratatu nai, muturrak zuaitz edo beste zerbait edo norbaiten aurka autsi arte. Auetako asko, bere tresna bear bezela ezagutzen ez dutenak; bideetako arauen berri ez dakitenak, beste asko; batzuek txoro xamarak; besteak...; asko ere bitotz gabe edo ajolakabeak. Ajolakabekeria... bai zabaldua dugula munduan! Entzun bitzate auek, eta ain arrixku aundiko tresnakin dabilten guztiak, Aita Santuaren zuzenbide auek.

Boskarren Agindua, "ez iltzea", dugula esaten digu, gaizki ibiltzearekin edo ustekabeen tresna oiek dakarzkiten ondorioak gogoan dituarik. "Geienetan ez-ezagun batek norbait, besterik gabe, bazter batean illik uzteak berezkoa dun bildurra, gutxitu egin du zoritxarrez, ain sarri eriovide diran gertakizun oiek ikusteak. "Itali" n bertan, urte bateko bideetako eroriak, gudate aundi bat edo besten ildakoak baño geiago izango l'irakela Aita Santuak esatean, izuak artu bear litzukela deritzait berebil oietan dabiltzanak". Ez baidira erio-gaitz oriek teknikak ekarriak; iakiteke edo ondo ezik, edo berezko neurri eta arauak aztuaz, erruz arintxo ibiltzeak baño. Beren eta besteren biziaren ajolik gabe, urien biotz-biotzean askotan, zein baiño zein ariñago ibilli bear txoro orrek eraginda dabiltzan gizon oien ergelkeriaz berriz, zer esan? Askotan egoki baño lasterrago joan nai izateagatik, barruak "gizon eraille" bat dala, -nair berak nai ez izan-esan dezaiokeela gogoratze utsak ez al luke kristau, gizon jator nornai dardar jarri bear?... "Oien biotzak argitzearren alegiñak egiten saiatzeko eskatzen die gero apaiz jaun eta izlariei"; "...ildakoari eriotzak ekarriko dizkion ondorioak agirian jarririk, eta beste gizon eta Jainko berarekin zer iksuteko dun gogora ekarri araziz".

Azken itz bezela, aolku samur batzuk damaizkie bere lanari buruz, bere amets, eta gogo goxoenak agertzen dizkielarik. "Errroma, Jainkoak nai duana, lenokoari, gaurkoari eta gerokoari dagokiona izatera iritxi dedin zai-zai gaude; orregati arren eta arren eskatzen dizutet alegin guztiak egin ditzazutela zuen itzaldien arnariak egun bateko eta igarkorrek ez ditezen; erriari on aundiak luzaro ekarriko dizkionak baizik", itz batean iraunkorrek".

Lan ontarako, ordea, gizon on guztien batasuna bear litzakela agertzen die. Apaiz, lekaide eta lekaime santu bearrean arkitzen dala mundua guztien aurrean azaltzeko esan ondoren, "...erri-gizon santu talde ugarien bearra dago batez ere, gaurko egunez," aitortzen du. Lan ori beraz, guztien egitekoa dugula; ez apaiz, praille eta lekaime bakarrena. Lan orri gogozago ekiteko, "ikus de-zatela guztiak Kristorekin bat Jainkoagan ixil (2) or. darraikio)

# LOURDES'KO

# EUNURTEKO

# — IDAZKIA

Seme txit maite ta Anai agurgarrioi osasun eta Apostolu-Onespena.

XII gn. Pio Aita Santuak.

Lourdes'ko erromeriak oroipen goxo ta sakonak utzi dizkigu biotzean, ta gure Aurreko XI gn. Pioren ordeez pozik ere burutu dugu, Eros-pen jubileo-urtearen bukaerako Eukaristi ta Mariaren aldeko jaietan. Gaiñera Lourdes'ko ta Tarbes'ko Gotzaiak eraginda Sortzez Garbiaren Massabie-lle artzuloan ospatzeko Lourdes Erria gertutzen ari dala jakitea pozgarri zaigu ta ortarako erri-arteke Batzorde jarri dutela Kardinal-Batzarraren buru dan Tisserant'tar Eujenio Kardinalaren mendean. Zuekin batera, Seme maite ta Anai agurgari ok, Gu ere Jainkoari eskerrak ematera beartuak gera, zuen aberriari egindako mesede bikain eta eunurte ontan erromestaldiei ainbat ta ainbat banatutako graziengatik. Era berean, Jubileo-Urte ontan, Xgn. Pio zionez: "Bere biotz-zabaltasunaren alkia" jarri zunarenganako kristau-zaletasuna in-darberritzera Seme guztiai dei egin nai diet. (1)

MARIA FRANTZI-ERRIAREN AMA TA ZAINDARI  
BEREZIA.-

Orain kristau-lur osoa Mariarena da, ez baida Kristoren odolez erositako lurrik, Maria Amatzat eta Zaindaritzat artu nai ez dunik. Ori argi agertzen da Frantzi'ko edestia gogora ekartzearekin. Jainkoaren Ama ospatzea Berri-Ona zabaldu zan garaietarañotzen da. Mariari jasotako antziñeko Eleizen artean Chartres oraindik erromes talde eta millaka gazte erakartzen ditu. Erdi-Mendeak Bernardo Donearekin Mariaren aunditasunaren abestu ta bere bizitzako gertakizunak ospatu zitunak, Mariari eskeiñitako zuen Eleiz-Nagusien edertasun ikusgarriak ezagutu zitun. Oietan Puy, Reims, Amiens, Paris ta beste asko. Aiek beren dore-orratzen bidez Sortzez Garbiaren dirdira ori urrutira barreiatzen digute; ta Erri baten siñismenari aitor dagiote, arnas batez bere gain altxa baida Frantzi'ko zerupean zintzilik betirako usteko Andra Mariari dioten zaletasunaren oroigarria.

Uri eta erriatan, mendi-gallur eta itxas ertzetan, Mariari jasotako Elizak naiz koxkor naiz aundi doi-doi Erri guztia bere zaipearen itzalez estali zuten. Errege ta Eliz-Artzaiak, Kristau saillak oiñetara joan itzaizkio Ama Birjiñari ainbat gizalditan; ta besren usta ta esker-ona azaltzen duten izenez ere agur-egin zioten. Emen Errukietako Andra Mari, Laguntza guztiko edo Babes Oneko Andra Mariari dei-egiten diote; au Andra Mari Zaindari, Pozgille edo Errukiatsuaren ondoan babesten dira erromesak; beste nunbait Pozaren edo Itxaropenaren Amari otoitz egiten diote; baita ere Birtutetako, Miraritako edo Ama Garraileari eskatzen. Etenik ez dun izen-sail bikain orrek ondo asko ematen digu, Jainkoaren Amak, erritik errira, urteen buruan, Frantzi'ko lurraldetan zabaldu ditun mesedeen beña.

Matxinada ondorengo XIX garren urtea arrazoi askoz Mariaren maitasun mende izan bear zun. Gertakizun bat aitatzegatik, nork ez du ezagun gaur "Medalla miragarria"? Frantzi'ko Uri Nagusiaren erdi-erdian, Bixente Paulen Alaba apal

batek (guk santutegian sartzeko poza izan genuna) goi-argiz topatu zun; eta ordutik Andra Mari Sortzez Garbiaren irudia daraman Medalla onek gorputz-animeko mirariak bazter guztietan egin ditu. Urte gutxi geroago 1858<sup>ko</sup> Otsaillaren 11<sup>tik</sup> Uztaren 16<sup>ño</sup> kristau-sendi bateko neska gazte bati on egiñaz Frantzi<sup>ko</sup> lurraldetan azaltzea atsegin izan zitzaion Andra Birjiñari. "Bernardatxogana etorrita -esaten genun beste batean- bere lagun, lankide, bere amazko xamurtasunaren eta bere Semearen erruki alguztidunaren bitarteko egin du. Erospeneko grazi-ixurtze berri ta ugariz mundu au Kristogan berritzearren"(2).

Ongi ezagutzen dituzute ondoren Lourdes<sup>en</sup> gertatuak, ta gaur obeto ikusten dugu animarentzat ze garrantzi zuten. Ba-dakizute, seme maite ta Anai agurgarriok, Sortzez Garbiaren agindu-ekarle zan neska aren esana ze modu arrigarrietan ainbeste iseka, zalantz eta ezezko artean, munduan entzuna izan dan. Ba-dakizute ere aitor orren indar ta egia, Gotzaiak jakintsuki egitzat ezagututzea 1862<sup>tik</sup> aintzat artua. Arrezkero jende-taldeak ba-zijoazen, ta geroztik ere ba-dijoaz, Agertokira, Mirarizko Iturrira, Andre Mariak eskatuta jasotako Elizara. Beartsu, gaixo ta naigabetuen talde ukigarria dala; Eliz-Barruti edo erri osoko millaka zintzoen erromeri luzea dala; egiaren billa kezkatu dabillenaren joan-etorri ixilla dala... "Beiñere -esaten genun- ez da ikusi beste inñngo lurraldean orrelako mindunen talderik, ez orrelako pake, lasaitasun eta poz dirdirarik(3)". Beiñere ez da jakingo, esango nuke oraindik, zenbat eta zenbat mesede zor dizkion munduak Ama Birjin laguntzalleari! Oi zorioneko Aitzulo, Mari bikaiñaren begiratzuz edertua! Arkaiz agurgarri, ur bizigarria iturri betean Zugandik dario!"(4).

#### LOURDES TA ERROMAKO AITA SANTUAK.-

Mariaren gorespenezko eunurte auek, nolabait Pedroren Aulkia Auñamendiko Elizarekin estu-estu lotu dute. Ori ezagutzeak pozten nau. Andra Mari Berak ez al du ba elkartu ori nai izan? Aita Santuak Erroman bere Erakuste Utseziñaz era-

baki zuna, Jainkoaren Ama Sortzez Garbiak emazte guzien artean doatsua, dirudinez bere aoz baieztean izan zun geroxeago, Masabielle<sup>ko</sup> arpean agerpen aipagarri batez ezagutzera ematean"(5). Egitan Aita Santuaren Utseziñak goi-egiaren adierazle jatorra izanik, zerutar-baieztearen bearrrik etzun kristauai siñestearazteko. Bañan Kristau-erriak eta bere Artzaiak nolako biotz-ikara eta eskerro-naz jaso zuten Bernardatxoren ezpaiñetatik, Zerutik etorritako erantzun ura: "Ni Sortzez Garbia naiz".

Ez da ere arritzeko gure aurrekoak Eliz onen gain grazi ugariak pozik zabaltzea. 1869<sup>an</sup> IX Pio aipagarria pozetan zegon gizonen maltzurkeriak Lourdes<sup>en</sup> altxatutako eragozpenak gertakari arrigarriak argigo eta indar aundikoz agertzen lagundu zutela-ta.(6). XIII Leonek, 1892<sup>garrenean</sup> Andra Mari Sortzez Garbiaren Meza ta Otoizketa ematen ditu ta urrengo Aita Santuak Eliz Osoari zabaldu; aurrerakoan Idazti Santuko dei arek argitasun berria artzen du: "Jaiki nere adiskide, nere ederra, zatoz; nere uxoa aitxulotakoa, orma-zuloetakoa"(7). Aita Santu aundi oñek azkeneko urteetan Vatikan<sup>ko</sup> lorategian Masabielle<sup>ko</sup>aren antzera eratutako arpean iriki ta bedein-katu zun; ta garai berean uste osoz otoitz bero au Lourdes<sup>ko</sup> Andra Mariari egin zion: "Bere indarrez, len maitasunez Elizarako kristau berriak egiten lagundu zun Andra Mariak, dedilla orain ere gure zeruratzearen bitarteko ta Zaitzalle;... eman dezaiela pake ta lasaitasun biotz-larrikoei; bakarreko bizitzan agerikoan bezela Jesukristogana itzultzea bizkortu dezala"(8).

Andra Mariaren Sortzez Garbia siñistegitzat erabaki zaneko 50 garren urteak bide eman zion X Piori, Lourdes<sup>ko</sup> agerpenen eta Eliz-Irakas-kuntzaren erabaki orren arteko lokarria aitortzeko: IX Pio<sup>k</sup> Maria Sortzetik Errugabe zala fedezko egitatzat erabaki ordukoxe, asi zan Andre Maria Lourdes<sup>en</sup> mirariak egiten"(9). Geroxeago, Lourdes gotzailerri maillara autatzen du, Tarbes<sup>ko</sup>ari erantsita, ta Bernardatxoren doatsu-auziari asiera ematen. Eukaristiaren Aita Santu aundi oni batez ere gorderik zegokion Lourdes<sup>en</sup> Eukaristiaren eta Maria-renganako zaletasun arteko batetasuna lagundu ta indartzeko: "Jainkoaren Amaganako eraspentak, dio,

Kristo gure Jaunaganako gogo jator ta sutsua pizten du". (10). Ta izan al ziteken bestela? Mariarengan edozerk bere Seme bakarrarengana garamaz, onek irabazitakoari begira, Bera Errugabe ta Eskertsu sortu baizan; Mariaren edozerk Irutasun Agurgarria goratzera eragiten digu. Ta bai doatsu izan zala Benardartxo artzulo aurrean bere erro-sarioa aletuz, Ama Birjiñaren ezpaila eta begietan Aitari ta Semeari ta Gogo Deunari aintza-ematen ikasi bai zun! Gu ere pozik asko elkartzen gera eunurte ontan Pio X Santuaren biotz-agur oni: Lourdes'ko Elizaren aunditasuna ontan bakarrik datza: Andra Mariak Jesukristo Sakramentu Santuan agurtzera edonundik ekarrarazten ditula erriak; orregatik Elizan, beste Mariarenganako gorespentoki ta Aldareko Sakramentu Santuaren aulki, dirudinez, aunditasunean kristau munduko beste eliz guztien gañetik dago"(11).

Eliz au len ere goi-ondasunez betea, XV Benediktok barkamen berri ta baliotsuz aberastu zun eta bere Aita Santutzaroan zoritxarrezko gertakizunak gelagotan bere zaletasuna agirian agertzen ez bazioten utzi ere, beintzat Mariaren Uria goratu nai izan zun bere gotzaiari Agertokian "Pallium" jantzia eramateko esker egiñez. XI Pio, Lourdes'a erromes joana, Aurrekoak asitako lanari ekin zion eta atsegin guztiz aldare malletara jaso zun Andra Mariaren neskats kutun ura, lekaimenez Maria Bernarda Aizpa, Karidadeko ta Kristau-eskoletako Alabaen Lagundikoa. Orrela egi gertarazi zun ere, Sortzez Garbiak Bernardatxo gazteari emandako itza: "Mundu ontan ez baña bestean izango zera zorioneko". Geroztik gorpuzkondo baliotsuak arrotasun santuz gordetzen ditun Nevers erriak erromes ugari bereganatzen ditu; denak Andre Mariaren deia bear bezela artzen Santuaren ondoan ikasi nairik doaz. Laister berriz, Aita Santu ospetsu arek bere Aurrekoen antzera agerpenen urtebetetze-jaiak ordezeko baten bitartez goratu ta gañera erospeneko jubileo-urteari amaia ematea erabaki zun. Berak zionez, Soubirous'tar Bernardatxo doatsuari Andra Maria Sortzez Garbia askotan agertu zitzaien toki artantxe bertan, gizon denai ain gozoki damutzera eragien zien bertan, arrigarriri agertuz goiesker eta mirariz bete zun txoko berean. (12). "Egitan -zion amaitzeko

XI Piok- eliz au orain ludiko eliz ospetsuenetakoa izango da". (13).

Goraitz guzti oietara nola ez genun bada Gure mintzoa elkartuko? Gure "Fulgen Corona" Idazkian egin genun ori, gure Aurrekoen ondoren esaten gendula "Amadoatsuak lurrean bere Semearen ordezkodanak -Eliza osoak txalotzen ziola- erabaki zuna, arrigarri baten bidez baieztu nai izan zula"(14).

Eta orduan gogoratzen genun:"Erromako Aita Santuak, erromeri auen garrantzia jakiñik osasun-grazi ta beren biotz-zabaleko ondasunez aberasten etzirala aspertu"(15). Eunurte onen goraberak, lerro aunditan gogoratu duguna, ez al da Aita Santuan begikotasunen azalpen ederra?; orain dala gutxi ere Sortzez Garbi siñeste-egiaren eunurtea Lourdes'en burutzeak ez al du ori bera agertzen? Bañan zuei, Seme maite ta Anai agurgarrioi, oraindik berri dan agiri bat gogoratu nai dizuet, zuen aberriko siñismena zabaltzeari laguntzearren idatzia. Pozik bururatzen nizuen:Frantzi'ko erriak mendez-mende Kristau-siñismena zabaltzen bereziki merezi izan duna", ta ori dala ta:"Gure gogo-biotzak Lourdes'eruntz itzuli ditugu; Sortzez Garbia siñestegi erabakita lau urte geroago Andra Mari Errugabe Berak, agerpen izketaldi ta arrigarrien bidez, Eliz-Irakaslearen esana baieztu zun"(16).

#### JUBILEO-URTE ONTAN.-

Gaur ere oraindik Ama Eunurte ontako erromestaldeak Gave ertzean artzeko gertutzen ari dan eliz ortara biurtzen gera. Eun urte auetan bakarrean eta taldean egingadako eskariak, Mariaren bidez Jainkoagandik osasun eta onbideratzeko graziak iritxi baditute, oraindik ere Lourdes'ko Andre Mariak bere semeen eskariei esku zabalez erantzun naiko dula sendo uste dugu; bañan batez ere etsita gaude agerkundeen erakuspen onak jasotzera ta Berak argi-argi azaldu digun bidean jartzera eragiten digula.



## BARKAPEN TA ITXAROPEN DEIA.-

Erakuspen auek, Berri-Oneko deiaren oiartzun zintzoa Jainkoaren iritzi bidean eta ludi ontako jakinduri alpeñaren arteko aldea era arrigarriz ikusaratzen dute. Barnetik itxu-itxuan gaitzak jota egonarren, itxura on, lasai ta ederrez bere gaiztakeri ta bidegabekeri izkututzen ditun gizarte batean, obenak zikindugabeko Sortzez Garbia, aurtxo errugabe bati agertzen zaio. Amazko errukiz, bere Semearen odolaz erositako munduari begiratzen dio ta egunero-ko pekatuz zartatua ikustean, dei larri au dagio: "damua, damua, damua!". Gorputz-makurtasun biziak ere eskatzen ditu: "Pekatarien onez zoaz damu-nekez lurrari muñ ematera". Eta makurtasunari otoitza batu bear zaio: "Obenlarien alde Jainkoari otoitz egingo diozu". Orrela, Jon Batailariaren jaietan bezela, Jesusen agiriko bizitzaren asieran bezela, agindu gogor eta zorrotz ber-berak Jainkogana itzultzeko bidea erakusten die gizonei: "Damu zaitzte!". (17). Eta nor ausartuko da esatera, biotz aldatzeko dei onek egun (gure egunetan) bere bertasuna galdu dula?.

Bañan Jainkoaren Ama baletorke bere Seme-Alabengana barkapen eta itxaropen ekarle ez balitza? Bere oiñetan ura dario: "Atozte uretara egarri zeratenok eta aterako duzute Jainkoagandik osasuna" (18). Benardatxo esanekoa, danetan lenbizi edatera eta garbitzera joan dan iturri ortan bilduko dira gorputz-animeko zoritxardun guztiak. "Ara joan, garbitu ta ba-dakust" (19) erantzun al izango du esker oneko erromesak, Berrioneko itxurarekin batera. Bañan Jesusen inguruan estututzen zan gizon ostearentzat bezela, emen ere soinzauriak sendatzea erruki-agerpide gañeraz gizasemeak obenak kentzeko dun eskubidearen ezaugarri gertatzen da. (20). Arpe ondoan Andre Mariak, bere Semearen izenean, gure biotza aldatu ta barkapen-itxaropena eukitzera deitzen gaitu. Entzungo al diogu?

## BAKOITZAREN ONBIDERATZEA.-

Errudun ezagutzen dan gizonaren erantzun apalean dago Jubileo-urte onen benetako aunditasuna. Zenbat mesede ez

ote lituzke itxaron bear Eliz Ama Santuak, Lourdesko erromes bakoitza -eta berdin eunurteko jaialdietara biotzez elkartuko dan kristau bakoitzak-santutasun lanari ekingo balio, ez itzez eta mingañez, egitez eta egiz baizik!"(21). Gañera edozerk eragiten dio ortara, bear bada ez baida inñun Lourdes'en aña otoitzerako norberaz aztera ta elkar maitatzeko biozgarrik sentitzen. Gaxo-eramaleen etsipena ta erien pake-barea ikustean, jatorri-mota guztiko kristauak otoitz berdiñean batzen ditun anaitasunaz konturatzean, arpearen aurrean belaunikatuta dauden erromesen elkar arteko laguntza gogotsua ta itxura gabeko otoitz-zaletasuna oartzean, zintzoenak Jainkoaren eta urkolagunaren alde gero ta emanagoak bizitzeaz zaletzen dira, epelagoak beren epeltasunaz oartzuz, otoitzerako bidea artzen dute berriz, pekatari gogorrenak eta sinisgabeak graziaren ikutua sentitzen dute edo beintzat, jatorrak badira biotz ta gogo bakarra dun kristau-sailla orren aitorraren aurrean ez dira biotz gogor gelditzen".(22).

Ala ere erromeri-egun gutxi oietan ikusi ta ikasia besterik gabe ez da naikoa, geiñean, gogo-biziera benetan aldatzera Mariak egindako deia biotz barruetan itsatsiko bada. Orregatik Eliz Barrutiko Artzai ta Apaizei eragiten diegu zeñek baiño zeñek biotz-gar geiago jartzen saiatu ditezela, eunurte ontako erromeriak ondo gertuak eta ondo eramanak ditezzen, eta batez ere biaramon ongariak ditzaten graziaren lan sakon eta iraunkorra errexteko. Sakramentuetara maizago urbiltzen asiz biziera guztietaz kristau-legeari begirune azalduz, eta azkenik Katoliko Egintzaren sailletan eta Elizak ontzat artutako beste egite askotan izen emanez: orrela bakarrik, egitan, 1958'garren urterako Lourdes'a etortzeko diran erromestalde aundiak iritxiko dituzte, eta ola itxaron du Andre Mari Errugabeak, gaurko gizarteari bear-bearrezko zaizkion animeko osasun emaitzak.

#### KRISTAU-ERRI OSOAREN ZUZENTZEA.-

Ala ere, erromes bakoitzaren onbideratzea ain bearrezko izanda ere, ez da naikoa. Jubileo-Urte ontan eskatzen

dizuet, Seme maite ta Anai agurgarriok, zuen ardurari emandako zintzoengan piztu dezazutela gizartearen kristau aldakuntzearen alde, elkar arteko ekinaldi bat, Mariari erantzunaz: "gogoz itxuriranak, egiaren eta zuzenbidearen dirdalaz argituak ditezela, gezur bidean galduak datozela bide zuzenera, eman bezaio edonun Elizari bidezko dan askatasuna ta sortu dedilla errialde guztietan elkartasuna eta benetako zorion aldi bat, eskatzen zun XI Piek erospen-jubileoko Mariaren jaietan" (23).

#### MATERIALISMOAREN INDARRA.-

Bañan, ainbat itxaropen eta arrotasun bide ematen ditun gaurko munduak ba-du ere, Gure Aurrekoak eta Gurok salatu dugun materialismoaren zirikaldi bildurgarria. Materialismo ori, bada, ez da bakarrik sartu gizadiaren zati baten politika ta ekonomiaren arau egin dan gaiztetsitako jakintzan; arrigarrero dager ere diru-zalekerian eta gaitz orren ondamenak aunditzen dijoaz gaurko lan gaien arauz; gorputz gurketan, biziera lasaiaren gelegizko billaketan, ta bizi latzetik iges egitean ezagutzen da; giza bizitza gutxiarazten du, argitara begiak oraindik iriki ez dituna galduz; atsegiñerako egarri zoroan dago, lotsagabeki agertuz ta irakurgai ta ikaskizunez oraindik biotz garbi diranak lillurazten saiatur; anaiarenganako ajolagabekerian dager, norberekeri zanpatzallean, eskubiderik gabe uzten dum bidegabekerian, itz batean esateko, bizitzan dena lurreko atsegin eta aurrerapen muga bakarre-ra zuzendu bear dala irizte ortan. Nere gogo, zion aberatsak, urte askoatarako osasun ugariz bilduta daukak; atsedan artu, jan, edan, oparo bizi. Bañan Jainkoak esan zion: "zoro ori, gaur arratsean bertan ire bizi eske zetorkek".(24).

---

(12 garren or. dator) bizitze ori zein gozo dan, munduak, ezagun, maite eta morroi dezan. "Guztiak bat-batean lan eginda iritxiko dutela, dio"... Errroma, erri santu izatea...Jainkoak nai duan bezelakoa" Itz batean, "...Jainkoa billatzen, Jainkoa ezagutzen, Jainkoa maitatzen eta Jainkoa morroitzen duan erria...egunen batean, denetan oro Bera dedin".

BALERDI'TAR YOM, LAZKAO.-osb-

### MARIAREN DEADARRA.-

Ama Birjiñak bizitz agerian Jainkoaren goieneko eskubidetaz maiz ezbaika dabilen eta lurbira irabazi ordañez anima galdu naiko luken gizarteeri deadar aundi bat egin dio.

### APAIZEI.-

Dei ori ernai, apaizak bildurrik gabe guztiei osasunerako egi aundiak erakustera ausartu bitez. Izan ere ez baita aldakuntza iraukorrik sinismeneko oiñarrik sendoenetan ezarrita ez danik ta apezai dagokie kristauerriaren burubiotzak bide zuzenean jartzea. Era berean Sortzez Errugabea gure zoritxarrez errukiturik eta gañera gure benetako bearrak ikusirik badator gizonengana bearrezko aldaketa gogorra gogoratzerara; ta Jainko-erakuspenaren (itzaren) banatzalleak zerura daraman bide zuzena azaldu bear dutela guztiai ziurtasun zerutarrez"(26). Jakiña, biotz eztikor eta eramankorrez egingo dute ori bañan Berri-Ona eskatzen duna izkutuan jartzeke(27). Munduari Kristo ematearren bakarrik bizitzen ikasiko dute Mariaren ikastolan, bañan, bearrezko bada, siñismenez Kristoren orduaren zai eta gurutzearen oñondoan zutik egoten ere bai.

**KRISTAU-ERRIARI.-** Apaizen inguroan Kristau zintzoak lagundu egin bear dute zar-berritze lan ontan. Jainkoak edozein lekutan jarri dula ere, nork ez dezake lan geiago egin Jaungoikoaren alde? Elizako ainbeste egite onetan arazoturik dabilzan anima-eskeiñietara doa lenik Gure gogame-na. Bere eskeiñitzak, besteak baño geiago beartzen dituzte, Mariaren babespean, aberastasun eta griña zirikatzaileak zapaltzera; baita ere Ama Birjiñak eskatu bezela otoitz eta damu izkilloz eta goimaitasunaren garaipenez.

**KRISTAU SENDIEI.-** Era berean gure begia kristau sendietara biurtzen da, gizartean daukaten egitekoea ordeztu eziñari eutsi dezaiotela, agintzarren; Jubileo urte ontan Errugabearen biotzari eskeiñi ditezela! Egite on au, senar-emazteentzat garbitasun eta elkar-zintzotasuna ongi gordetze-laguntz bikaiña izango zaie; beren aurrak azitzen

diran etxe barneko giroa garbi-garbi gordeko du; gelago oraindik kristau sendia, Mariaganako zaletasunaz bizkorturik, gizartea berritu eta kristautasuna zabalduko dan azi bizigarria biurtuko da.

ERRIARTEKO PAKEA.- Eta egitan, sendi bizitzaz, gañera, erri eta langille arteko artu-emanak, gizartea obeagotzeko gogor lan egin nai duten kristauei arlo zabala ematen dio. Ama Birjiñaren oiñetan elkarturik, ta Aren aoluetara esanekoi izanik, begiak zorrotzuko dituzte biotz-barrura, ta sustraitik ateratzen ariko dira bere aburu oker eta norberekerirako joerak anaien aldeko egizko maitasun biurtzen ez dan Jainko maitasuna gorrotatuz (28). Erri aroetako ta mota guztiko kristauak egi ta goi-maitasunean bat egiten salatuko dira, baita ere susmo ta ez ulertzeak bazterreratzen. Jakiña, ez da nolanaikoa giza-semeen gogo onaren gain dagon gizarteko korapillo ta ekonomi-arazozen zama. Bañan Gure Aurreko ta Geurok askotan adierazi dugunez, gizarteko ta erriarteko auzi ori gizonarentzat lenik kristau-bizibideko auzi-egi bada, biotza aldatu ta garbitu gabe ez da aldaketarik balio dunik, ez erabaki iraunkorrik. Ori gogoratzen digu guztioi Jubileo-Urte ontan Lourdes-ko Andre Mariak.

#### ATOZTE NIGANA...

Eta Maria, bere leiatasunean semeetako batzuegana maitasun bereziz makurtzen bada, ez ote da, Seme maite ta Anai agurgarriok, Jesusek ain maite zitun txiki, beartsu ta gaixoenegana?"Atozte nigana neke ta atsekabeetan zaude ten guztiak; ta nik bizkortuko zaituet", esaten dula dirudi Jainko-Semarekin(29). Zoazte Arengana gorputzeko bearrak larrituta, gizonen ajolagabekerik ta bizitzaren zigor aurrean babesik gabe arkitzen zeratenok; zoazte Arengana, eriotzaldi edo barne-burrukan zigorkatuok; zoazte Arengana gure Jaunaren nekeko atal bezela Lourdes'an benetan artuak eta goratuak zeraten eri ta gaxo; zoazte Arengana ta artu biotzeko pakea, egunero beteabearretako indar eta eskeinutako opariaren poza. Biotzetan goi-eskerrak darabiltzan bide-izkutuak eta ludi barna legami zerutar onek dagian lan ixilla Ama Birjiñak zer balio duten ba-daki,

Jainkoaren ezagutzen ditun begietan zuen oñazeak Salbatzallearenarekin bat egiñik. Aiek, ez dugu salantzan jartzen, gu Jainkoari bere Amaren bitartez eskatzen diogun gizarteko kristautasunaren berritze ontan asko lagundu dezakete. Gaixoen, txikien, eta Lourdes'ko erromesen otoitzen bidez, oraindik Elizaren artegi bakarretik ate diranengana ere Mariak bere Amazko begiak zuzendu ditzala batasunean elkartzeko! Jetxi bitza begiak egiaren billa egarri dabiltzengana, ur biziaren iturrira eramán ditzan! Azkenik begiratu luze batez ikusi bitza Kristo ain gutxi ezagutua ta maitatua dan lurralde zabal eta gizonen bizi-zoko aundi aiek; iritxi bezakio Elizari, beti gazte, Santa ta Apostolutar iraunez edonun gizonen itxaropideei erantzuteko askatasun eta poza!

#### AZKEN DEI XAMURRA.-

"Onera etortzeko mesede egingo bazenida...", zion Andra Birjiñak Bernardatxori. Iñor beartu gabe, biotzetara zuzendurik baizik erantzun gogozko ta zabal bat bigunki eskatzen dun dei au, berriz ere Jainkoaren Amak Frantzi ta ludi osoko seme guztiei zuzentzen die. Agindu gabe, Berak lenik zintzotzera ta gero munduaren osasunaren alde indar guziz lan egitera eragiten die. Kristauak ez diote belarririk itxiko dei oni: Mariaganatuko dira. Ta oietako bakoitzari Idazki onen bidez, Benardo donearekin esan nai genioke: "Arriskueta, larrialdietan, zalantzalditan Maria gogora ekarri, Mariari otoitz egin... Aren atzetik etzoaz oker; Ari otoitz egiñik ez duzu uste galtzerik; Ura bururatuz etzabiltz oker; Aren eskutan ez duzu erortzerik; Arek zaiturik ez duzu bildurrik; Ura bide-erakusle ez duzu nekerik; Ura lagun iritxiko zera..." (30).

Seme maite ta Anai agurgarriok, uste osoa dugu zuen ta Gure otoitza entzungo dula. Orixo eskatzen diogu, Andre Mariaren agertu-jai ontan egun aukerakoa orain eun-urte Frantzi ko lurrari ere agertu egin ziona goratzeko. Zuen eskerronaren "Magnificat" Sortzez Garbiarekin batera Jainkoari abestera deituaz, zeuron eta zuen kristau-artaldeen, Lourdes'ko Eliz eta erromesen gain eunurte-mugako jaien ardura dutenen

gaiñ grazi-euri ugari Gure erruki xamur eta iraunkor-  
korak eragiñez, biotz-biotzetik Apostolutar Ones-  
pena damaizuet.

Erroman emana, Pedro Donearenean, Birji-  
ña Guztiz Donearen Agertu jai egunean, 1957'ko  
Uztaren 2'an, Gure Agintealdiko 19'garren urtean.

XII Pio Aita Santuak.

Muxika'tar Urupinek  
Lazkaoko beneditarrak euskeratua

---

O A R R A K

- 1) 1914'ko Uztaillaren 12'ko Eskutitza...A.S.V.  
(1914) 376 or.
- 2) 1935'ko Jorraillaren 28'an Lourdes'en egindako  
itzaldia:Eug.Card.Pacelli, Discorsi e Pnegirici;  
2a ed.,Vaticano,1956,435 or.
- 3) Ibid. 437 or.
- 4) Agerkunde-jaieko otoizketa:II Arrats-Otoitzeta-  
ko Goratzarre.
- 5) Benardatxo Aldare-malletara igotzeko "De tuto"  
agiria, 1933'ko uztaillaren 2'an;A.A.S.,1933,  
377 or.
- 6) Henri Laserre'ri 1869'ko Agorraren 4'ko Esku-  
titza:Archivio segreto vaticano, Ep.Lat.,An.  
1869,N. CCCLXXVIII,F;659.
- 7) Kant. 2,13-14; Agerkunde Mezako zurubileloa.
- 8) 1901'ko Agorraren 8'ko Eskutitza:Acta Leonis  
XIII; Vol.XXI,159-160 or.
- 9) 1904'ko Otsaillaren 2'ko "Ad diem illum" Idaz-  
kia:Acta Pii X,Vol.I,149 or.
- 10) 1914'ko Uztaillaren 12'ko Eskutitza:A.A.S.VI,  
1914,377 or.
- 11) 1911'ko Jorraillaren 25'ko Eskutitza:Arch.Brev.  
A;Pius X,An. 1911,Div. Lib.IX,Pars I,F.337.

- 12) 1933'ko Ilbeltzaren 11'ko Eskutitza:Arch.Brev. Ap. Pius XI,Ind.Perpet. f.128
- 13) Ibid.
- 14) 1953'ko Agorraren 8'ko "Fulgens Corona" Idazkia:A.A.S.,XLV,1953,578 or.
- 15) Ibid.
- 16) 1954'ko Dagonillaren 15'ko "Ominium Ecclesiarum" Constit. Apost.:A.A.S.XLVI,1954,567 or.
- 17) Mat.,3,2;4,17.
- 18) Agerkunde jaieko gau-otoitzean.
- 19) Jon,9,11.
- 20) Mark.2,10.
- 21) I Jon. 3,18.
- 22) Bid.Egiñak 4,32.
- 23) 1935'ko Ilbeltzaren 10'ko Eskutitza:A.A.S., XXVII,7 or.
- 24) Luk. 12,19-20.
- 25) Mark.8,36.
- 26) Mat.7,14.
- 27) Luk.9,55.
- 28) I Jon.4,20
- 29) Mat.11,28.
- 30) "Missus est" itzetaz itzaldia:P.L.CLXXXIII. 70-71 or.





# ELIZA, JAINKO-INDAR GURE AULTASUNEAN (AMAYA)

## II

"EZ AL DIRA KRISTAUAK TEATRO TA ZIRKOAK  
BETETZEN DITUZTENAK ?"

Dr. Hugo Rahner, S.I.

"Elizaren Astenia", gogorra da esate auxe. Nork entzun dezake ori? Eta oraindik gogor-rrago egin bearrean gaude berori. Argaltasunezko Eliza au ez da siniskizun bakarrik, baita federearen prueba ere ba-da. Bai; bee ontan ere Andre da Eliza. Eta gure begia lausotu ez bada, beintzat aundiatsun-orduetan, ikusten dugu bere izatearen argitasuna disdiratzen bere erbesteturiko erromes-soñekoen artetik. Bear bada, ordea, egun auetan bizitzen ari geran bezelako ordu ederren zorion onexegatik, errexegia eta merkeegia egiten da gure Elizagango fedea. Pozik entzuten ditugu Vaticano'ko itz illezkorrak: (D. 1797). Au egia da. Au egi betikorra da. Baiña baldin kanpotik iñor baletor eta esango baligu: Erakutsidazu "Una Sancta" ori, gaur eta emen, Erroman, Egoamerikan, mundu guztian zear, zure familian, Alemanian, zure errian? Gaitezen leial erantzuten. Jarri dezagun Konzilioaren itz larrituaren ondoan beste

esan ura. San Agustiniñek, Eliza Santuaren lilluratu aundi arek, Elizaren aotan jarri zuan ura:" Nere etxeokak, eta ia-ian sinisteko zeudenak, urrutiratu egin ziran kristau gaizto ta ustelen bizitzagatik. Anaiok, amaika ta amaikatxo egingo lirake, eta pozik egingo ere, kristau, baiña kristauen oitura gaiztoak galerazi eta okerreratu egiten dituzte.(PL 36-243)".

Bai, goratu egiten da Jainkoaren Eliza, goratu gizon aundiak, goratu kristau auek, benetan aundia Eliza Katolikua, nola maitatzen duten elkar, nola ukatzen dituzten buruak elkarrengatik! Entzuten du au Elizaren barruan ere ba-dirala kristau gaiztoak, ez dakian batek, eta gerturatu egiten da, eta orduan besteak etortzen dira esaka:" Nortzu dira gero kristauok? Auek al dira kristauak? Dirugose ta salerosle auek? Ez al dira kristauak teatroak, eta zirkoak betetzen dituztenak, eta jai-egunetan Elizak leporaño jartzen dituztenak?" (PL 37, 1278).

Ezpata bat bezela izan bear luke esakun onek gure konzientziko odolezko biotzaren barruan. Gu gerok ere ez al gera ba, bein baiño geiagotan arri-arrituta gelditzen Elizari begiraturik, beronen lurreko itxura ain negargarri dalako? Benetanago esan: ez al gera gu beartsuak, gu igandetako katolikuok, gu Bataioko agiriarekin seguratuok, komenitakoan jainkozale geranok, gu lasakerizko artzaiok, ez al gera gu Eliza Katolikoa-  
ren irudia itxusitzen eta illuntzen dugunak? Bai, gu onelakoxeak geralako, kanpoan dauden askorentzat, fedearen prueba da Eliza, eta bear bada sinismenerako eragozpide sarritan; barruan dauden askorentzako berriz, (gu gerontzat ere ez gutxitan), aitzaki merke galanta da, askotan Elizari arpegiratzen diogun orixe berori izkutuan gerok egin al izateko.

Gauza onetxek bakarrik poztu gindezazke, onetxek, gauza guztiak bereganatzen dituan jasotako aren, goratutako aren grazizko misterio gozoak: ain zuzen argaltasun auxe biurtzen da sinisgarririk sakonenean, goi argi santu baten bidez, Eliz erromesagan, Erregin izkutua ezagutu duan arentzat. Baña au gozagarri da ta ez aitzaki.

Ez; ausartu egin bear dugu ordu ontan gure fedearen benetasuna neurtzera, munduaren Kon dairako basamortuan egur lotsagarritik zintzilikatzen dan Elizagan gure begia jarriaz. Ikasi egin bear dugu Elizari eramaten, ikasten ari eta beren gurasoen aultasunak oartzten dituzten umeak bezela. Ortarako ez daukagu "San Pedroren Giltzak" en bearrik, oiekin Elizako gela autsez beteak irikitzeke, Peyrefitte itzontzi prantsezak oraindik orain iriki nai izan dizkigun bezela. Ez daukagu, erlijio-aurtzaroa sekula gaindu ez duten gizonen kritikaren bearrik. Ongi ezagutzen dugu guk gerok, eta min ere ematen digu bein baiño geiagotan. Baña gure aur-fedexume au eldu dedinean, jakingo dugu orduan neke au eramaten. Eliz au, zertzen eta dan bezelaxe, eta bere soinki askoetan usteltzen ari dan bezelaxe, auxe da izan, eta onexek irauten du guretzako ere sinismenprueba, esamina, larrialdi, kezka samingarri.

Arrixku egin diteke fedearentzako; egon ere tentaldi batean baigau, eta fede ori espirituzkoagoa nai genduke, arrigarriago, otsaundikoago, erakarkorrigo, ta onela, gu espiritu utsezko Elizaren komedi fantasmagoritarra itxuratzen asten gera; Montano gandik Jansenio bitarteko gizaldi guztietan eta gure biotzen barneraño jokatu izan dan komedi orixe.

Jainkoaren erreinua bee ontan burutzera bultzatzen gaituan deabruzko zirikalidia da, ospe utsezko Mesias batekin zaletzera bultzatzen gaituana; era ontan, espirituzaleen Elizaren alde edo munduaren erdian beti garaille ateratzen dan Eliza baten alde lan egiteko. Eta garaipen oiek estadistikaz neurtzen dira, beste erlijio-baltzuekiko norlenka-saioen bidez. Ez, kanpoko eta barrungo gizonok, zuek ez billatu ortan gaur eguneon ere egur lotsagarritik zintzilika dagon aren Eliza; olaxe, bai, olaxe bakarrik erakarri nai baiditu gauza guztiak beregana! Espiritu utsaren espirituzale guztiei, eta zenbaki utsetan oiñarritzen diran realzale guztiei mutur-muturrera ekartzen diegu arako ura, Elizaren leengaraletan, emakumeagandik jaio eta egur batetik zintzilikatutako Jainko baten giza-itxurak okerbideratzen zituana Gnosizaleei Tertulianok erantzuten zien uraxe:

"Zer dala-ta desegiten duzute gure sinismenaren bearrezko lotsabide au? Ain zuzen, Jainkoarentzat egoki ez dan orrek, orretzek egiten dit neri on. Nere Jaunagan gaizbiderik ez artzean arkitzen dut nik nere osasuna. Gurutziltzatua izan zan Jainkoaren Semea; orrek ez nau lotsatzen eta ain zuzen orrexegatik erabateko lotsagarria dalako".

Esan dezagun elizkizun ontan gure biotza ren barren barrindik: Ez, Katoliko Eliz gajo ori, ez gaitu lotsatzen zure argaltasun orrek. Pio XII Aita Santuak mintzaturik itzekin berekin aitortzen dugu: "Guk, baita zure aragi ilkorrezko agerpenean ere ematen dizkizugu gure gorputz pozgilleok, baita zure giza-izate argalean ere; zure soinkiek, Zure Gorputz Mistiko Deunean betetzen duten tokian bear bezela erantzuten ez badute ere bai". ("Mistici Corporis", A.A.S. 35, (1953), 238).

### III

#### ELIZ ARGAL AU GURE FEDEAREN ALAITASUNA DA.-

Goza egin diteke berriz ere orain gure ezpaiñontzat "Elizaren Astenia" itz garratza. Argaltasun onen bidez baida izan ere Jainko-graziaren indar-adierazle, eta Jesukristo gure Jaunaren Aitaren maitasun beti garaillearen sakramentuzko señaile, Gurutziltzatuaren Eliza. Gure sinismenaren alaitasun da Eliz argal au. Aul izanda ere bakarrik ez baña argal dalakoxeagatik ain zuzen. Emen ez dago iñungo Teoloji-dialektikarik. Onek ez gaitu beartzen eta ez bultzatzen bere agerrera altsua, bere santutasuna, ta bere ospea berbera ere bee ontan burutu eta zertzera. Kontra aldian gorrian, baldin Jainkoaren indarra eta jauntasuna lurreko eziñean eta isekatan agertzen dala pentsatu ta bururatu al badezakegu, baldin Elizaren erdian Jaunaren eriotza berriz Mesias bezela etorri dedin arte jakiñaren gaiñean ospatu al badezakegu, Jaunaren garaipena segurua izango dalata, zindo dago gure fedea Elizagan. Oraindik ere giza-arresiz kanpotik iltzen da Kristo, eta orrexegatik Elizak leporatu bear duaren lotsa (Ebr.13,13).

Baña iseka onek atsegiñik aundiena sortu dezaigukela, ori, graziarekin bakarrik nabari dezakegu ori. Ori ulertu, gizaldien amaieran erri guztiek goraka asi ditezenean bakarrik ulertuko dugu: "Dizdira egin dezala goitian Gurutzearen señalearaiak". Orduan, itz avekin Kristok munduko gizon guztiak epaituko dituan artan. "Eta gizaldi anker eta pekatari onen aurrean nik eta nere itzok iñori lotsa ematen badiogu, baita gizonaren Semeari ere lotsa emango dio olako orrek, Aitaren aintzatan, aingeru santuekin etorri dedinean" (Mk.8,38;Lk.9,26).

Bai, zaila da auxe ulertzen bee ontan. Illun daude gure begiak eta astuna oraindik gure biotza Emaus erako badariena bezela. Olaxe gertatzen zaigu guri ere. "Praestet fides supplementum sensuum defectui". Fedeak osatzen ditu sentimena-  
ren utsak. Berdin-berdin gertatzen da Elizaren izkutukiarekin ere. Jaunari bezelaxe gertatzen zaio oni:opaltzean garaitu egin du, ogia puskatzekoan alaitasuna pizten du, iltzekoan iges eragin dio mundu ontako jauntxoari. Orregatik bai bera eta bai Eliza ogiaren puskatzekoan bakarrik ezagutzen dira, gure biotz sinistunaren puskatzekoan. Eta bere Eliz puskatuan probatu, zaildu eta etsitako fedearen zoragarri finarekin topo egiten du: ementxe dago Jauna. Ementxe dago bere Eliza, Santua, Katolikoa. Orduan pizten da gure biotza ere. Baña ba-dakigubasamorturako bidean dagola oraindik, baña lurralde promestura eramaten duala orrek. Eriotz-Kalbariorako Gurutz-Bidean dago, baña olaxe bakarrik etortzen da Pazkoa, au da, betikotasunera igarotzea. "Orregatik, anaio, abestu dezaiozun gorapen-abestia Elizaren eriotzari", ots egiten du Zirilo Alejandritarrak, "bere eriotzari, bai, bizitzako iturrietara eramaten baigaitu, eta ori santua da eta Kristoren baitakoa." "Eliza" itza entzuten duzenean, jakin sinistunen baltzu deunaz itzegiten dizutela. Iltzen ari da Eliz au; baña bere eriotzak beste bizitzara eramaten gaitu, aultasunetik indarretara, isekatatik aintzatarara, ondamentitik galdueziñezkoetara, aroaren mugatetik jainkokiro aldatueziñezko bizitzatarara"(PG.69,329 C).

Onexegatik maite dugu argaltasunezko Eliza. Jakin baidakigu beragan, eta ondorioki guggan, asita dala iadanik etorkizuneko mundua, eta

goizeko izarrak argi egiten digu dagoneko gure biotz illunotan. Ez digu lotsarik ematen beragan ainbeste gauza lotsagarri ikusteak. Aitzitik, bere batasun-santutasunen agiririk sendoenetako bezela onartzen dugu bera, ta ondorioki gu, giza-isekaz ospatuak izatea, olaxe aztertu oi dira katolikogauzak ere. Berekin batera pozik eramaten dugu bere lotsabidea uriaren arresi aurrera. Eta iñun lotsabiderik bada munduan edo katoliko izateak iñun parre ragiten badu, antxe ezagutzen dugu sinismenezko alaitasun aundi baten erdian: gertu dagola Jaunaren erreinua.

Maite-maite dugu aultasunezko Eliz au, beronen argaltasunean bakar bakarrik egiztatu dezakegu Kristo renganako gure maitasunaren barneko indarra-ta. Ba-ditu oraindik zikiñak eta zimurrak. Baña "otu eta jantzi" egiten du Kristok, Apostoluak dion bezela. (Ef. 5,29). Orrexegatik ez da kaskar eta azaluts gure Elizarenganako maitasuna, ez du billatzen ezpalik begian, ez eta kontatzen amaren musuko zimurrik. Balio du gure Elizarenganako maitasun alaiarentzat ere, karidadearen gorzarrean esaten dan arek: "Danentzako du aitzaki, guztia sinisten du, guztia itxaroten, guztia eramaten" (Kor. 13,7). Ba-dugu gure Aita Santu Pio XII garrenaren esakun bat ere, katoliko-billera onen oiñarri azpi-azpitan jarri nai genduken bat: "Asko du Elizak gure giza-auleria agirian jartzekotik. Baña zuen jainkozko oiñarriak eutsi egiten dio aultasun oni. Eutsi egiten dio baita Aren Mistiko Gorputzeko Soinki garaienetan ere, eta zeregatik, onela lurreko eta artzaien birtute-indarra probatua izango dalako eta sinismenaren irabaziak guztietara aziko diralako. Kristok etzuan jakin nai izan, ezta pektariak ere, bere elkartasunetik kanpora uzten. Eta zenbait soinkiek animako eritasunak eramaten badituzte ere, orrek ez du oiñarririk ematen gure Elizarenganako maitasuna gutxiagotzeko; aitzitik, bere soinki oiei kupida sakonagoa eukitzeko bide, baizik" (Mystici Corporis", A.A.S., 35 (1943), 225 or.). "Felix culpa" rekin bezelaxe gertatzen da Elizaren argaltasunarekin ere, ura gabe ez gendukean olako Salbatzailearen grazi mardul ugaririk izango; Gurutziltzatuaeren eriotz lotsagarriarekin bezelaxe gertatzen da, eta au gaberik ez genuke bizitzarik izango.

Auxe da Eliz argalaren misterioa. Bestela ez baña olaxe dugu fedezko gertaera, fedezko prueba eta sinismenezko alaitasun. Anaiok, begira dezagun munduaren inguruan; basamortuak alde guztietan, azkenik gabeko ibiltzeak, ase eziñezko egarría, aberririk gabeko erromesa. Baña begira, basamortu ortan sasi bat dago sutan, eta Jainkoaren otsa entzuten da: "Or zauden toki ori, lur santua da" (Ex. 3, 5.) Elizaren irudi bat da. Basamortuko sasitxo bat da, baña su zerutarrez egiten du su. Or gaude gu ere, sasi aul eta su indartsuzko Eliz ortantxe sinisten dugu guk: orixe da gure fedearen prueba eta gure maitasunaren atsegín. San Ambrosiok dionez, Eliz au "gu zindo tinkatzen geran lur santua" da. "Eliza dagon tokian, antxe dago zure biotzaren leku irmoa; bertantxe zure animaren oiñarria. Olaxe itzegiten baidu Jaunak: Eliz ontantxe agertzen natzaizu beiñola sasiaren gaiñean bezela. Sasia zu zera, eta sua ni. Sasiagango sua naiz zure aragiaren gain. Zuri argi emateko naiz su, zure pekatuak desegiteko, Elizan nere babesa ta nere grazia emateko" (Epis. 63, PL. 16, 1200).

Auxe da, nere anaiok, gure aultasunaren eta indarraren Eliza. Sugarra gure bizitzako basamortuan, aberri gure erromeria, promestutako lur azkenera iritxi bitartean. Aintzaz betetako etxe bat, dorre sendodun babes-tokia, baña guzti ori gure zoritxarren gorria arako egun artan begiak jartzen baditugu bakarrik, au da, Jauna zeruetan ospetsu agertuko dan egun artan, eta azkengabeko alaitasunez abestuko dugun artan: "Jauntasunez dizdira egin dezala goitian Gurutzaren señalear".

Mendizabal'dar Fernando

Arantzazu'ko teologuak

(Dr. Hugo Rahner, S.J. 'ren "Die Kirche, Gottes Kraft in unserer Schwachheit" etik euskaratua. Köln, "Das Zeichen Gottes", 1956-9-11).

# LOURDES, FATIMA, HEEDE

Eunki au Andra Mariaren eunki deitu dezakegu. Arrigarria da Ama Birjiñarenganako zaleztasunak eunki ontan artu dun indarra: kristauak orain arte ez bezela maite dute bere Ama. Zaleztasun orren birbiztea gertakizun askoen emari da: Sortze Garbia siñestegi erabakitzea, an-emengo goi-agerkunde arrigarriak, zeruratzearen siñestegia, Andra Mariaren Urte Donea, etab... Esan genezake lur-zeruak zein baiño zein saiatu dirala Andra Maria goresten.

Zerua beintzat etzaigu ixillik egon. Jesukristok bere Amaren dirdaia guri agertzen poz artzen dula dirudi; azkenaldi ontako goiagerkunde ugariak gogora besterik ez; La Salette (1846); Lourdes (1858), Fatima (1917), Beauraing, Banneux (1933), Heede (1937), Sirakusa (1953) etab...

Orietatik ots aundikoenak arturik -Lourdes, Fatima, ta Heede- ikus dezagun Lourdes ez dala ale bakarra, kate luzeko aleetako bat baizik, ederrenetakoa noski, baña ez bakarra.

Ta agerkunde guzti oriek bai elkartuak daudela, bai antzekoak dirala arrigarriz, erakuspenez, eskariz...



Batean erakutsia besteetan ere berdintsu adierazten zaigu. Adibidez bat edo beste erakuspen jalki ditzagun ta ez agirienak, agerraldietatik urruti xamar bizi geranontzat izkutuenetakoak baizik.

Ama bat arduratsuago izan oi da bere semeetaz, auek galtzorian arkitzen diranean. Zorigaitzen bat gerta dala-ta, bere kutunengana dijoazkio bururakizun guztiak. Nun ote dira nereak?, Ondo ote dira?... Ta larri dago danak bere inguruan ikus arte.

Seme bat gerratean dun Amak ez du pakerik biotzean: semearen ilzoriak kezka betेरik dauka.

Zeruetako Amak ere berdin jokatu oi du bere semeekin. Azken urte auetan, animaren galbideak orain arte ez bezela ugaritu ta indartu dira; bañan baita ere Andra Mariren guganako ardura; beti Ama izan degu, bañan urte auetan bereziki: iru aldiz jetxi zaigu bere biotza ixurtzera: orain eun urte Lourdes'ko Artzulora, berrogei ta emeretzi urte berandugo Fatima'ko arte gaiñera, ta azkenik, Heede'ko baratzara, diotenez (Ikus "El Iris de Paz" n. 2225, 16 Julio, 1.948).

Andra Marik grazien banatoki biurtu ditu iru erritxo oriek. Danok dakusagu zein eskuzabal degun Andra Mari Lourdes'ko Aitzulo ta Fatima-ko artean. Asmo berak eragin zion Heede'ra jeixtera.

Orain eun bat urte etzuten pake aundirik Frantzi'ko kristauak. Amar urte len 1.848'ko otsaillean izan zan matxinada. Paris'ko Gotzai Jaunak kale erdian eman zun bere bizia pakearen alde. Luis Napoleon'ek artu zun artu zun lendakaritza ta urte batzuen buruan, Frantzi'ko Kaiser egiñarazi zanean, Eleizaren ongille bezela agertu zan gotzaien bilgura ta erabakiak begirunez artuz. Bañan katolikoek laguntzarik etsuala bear iruditu zitzaionean, Eleizaren aurka itzuli zan. Aita Santuaren alizatea apurtu nai zun eta etzien eragozpenik jarri Cavour' en erabaki gaiztoeri. Frantzi'ko kristauak larri ta bilduer ziran gizon orren asmoak ikusita, bañan zeruetako Erregiñak etzeuzkan aztuta; Lourdes'ko Artzulora jetxi zitzaien etsaiari gogor egiteko kementa ekarriz.

Andra Mari Fatima'ko aurtxoeri agertu zitzaienean, bazuten Portugal'go katolikoak laguntzaren bearra. Azkeneko urte aietan, Portugal'go Eleizak asko jasan zun; errinagusiak sineskuntzaren aztarna guztiak aientzeko asmoa artu zuten: Aita Santuaren artu-emanak zapuztu ondoren, gotzai asko beren elizbarrutietatik aizatu zituzten, ta lekaidetxeak itxi. Jauntxo aiek ziotenez bi urte buruan etzan Portugal'en sineskuntzaren nabarmenik ikusi bear. Bañan etsaiaren erasoak etzitun bildurtu kristau zintzoak. Errixeak Fatima'ko Andra Mari'rengan bere itxaropen osoa jarririk, tinko jarrai zun bere arbasoen sinesmenean. 1.918 garren urtean, gerrate aundiaren bukaeran lendakari berriak Aita Santuarekin artu-emanak berritu zitun; legez Eleiza len galdutako eskubideen jabe egin zan.

Azkeneko gerrate aundia baiño urte batzuk len mundu guztia kezkatan zegoan: errialdeak etziran bateratzen beren eztabaidetan, ta Aita Santuaren pake-deiari entzuteke, gerrarake bidea zuzentzen ari ziran. Alemani'n katolikoak babes bearrean zeuden, nazistarren egikera errukaitzen aurrean. Babes ori ematera, jetxi zan Andre Mari Heede errira.

~ ~ ~

Bada ere iru agerketa auetan beste zertxo arrigarri bat: iruetan aur ez-jakiñak izan ziran Andra Maria ikusi zutenak. Lourdes'en: Benardatxo, bertako neskatiñ gaxe ta beartsu; Fatima'ko iru aurrak artzaien seme-alabak ziran. Izango ziran noski Fatima-n aur eder eta argiangoak; bañan iru aietxek autatu zitun Andra Mari bere mesedeen banatzalle egiteko. Heede'ko lau neskatiñak etziran jakintsuak: erri txiki bateko aurrak baizik, bañan Jainkoari atsegiñak!

Jesusek bein bidalien aurrean esana gertatu da agerketa auetan: "Goresten zaitut, ene Aita, Zeru-lurren Jauna, jakintsu ta zugurrei oriek izkutatu ta aurtxoei erakutsi dizkiezulako". (Mt. 11, 25)

Goteunak eraginda Jesusek bere Aita gosten du; ez du goresten zerukogauzak ezjakiñei

ta txikiari bakarrrik azaldu dizkielako, baita ere munduko jakintsu ta zugurrei izkutatu dizkielako. Zeruetako Aitak buru-argi ta aundizkieri ordez, mundu ontan inor ez diraneri zabaldu dizkie erdia erdi Zeruko ateak: andre ta gizon asko emengo jakintzetan inor ez diranak, egizko argiaren jabe, eta bere burua jakintsutzat dauzkatena berriz, Jainko-gauzetan ezjakin. Ba-dakigu ere Jesusen txikienganako zaletasuna, Palestina zear ibilli zanean: "Utzi aurtxoei nereganatzen"; "Egitan diagetzuet aur bezela biurtzen eta egiten ez bazerate, etzerate sartuko Zeruko Jaurerrian".

Eta Andra Marik ere orixe egin du XI garren Pioak zionez: "Jainkoak jakintsu ta indartsuak lotsarazteko lur ontako zoro ta aulak aukeratu ditun bezelaxe, Ama guztiz santuak ere ori egin du".


Ama Birjiñak eskari bikain eta berdiñak egin dizkigu bai Lourdes'ko Aitzulotik, bai Fatima'ko arte gainetik, eta bai Heede'ko baratzik; baña batez ere bi Zeruko Amari bereziki atsegiñak: Otoitz eta Damua, Jaungoikoaren errukia irixteko tresna egokienak. Benardatxori bein esan zion: "Damua, Damua, Damua", ta beste batean: "Egin otoiz Jainkoari pekatarien alde". Neskatil berari egingako beste eskari asko azkenik bi eginbear oietera dijoaz: "Zoaz iturrira eta bertan garbi zaite; esan apaizei emen Eliz bat egiteko; saillean etori ditezela, etab... Eskari auek zer adierazten dute otoitz eta damuaren bearra baizik? Fatima'n eskari berdiñak egin zizkien Luzia, Jazinta ta Patxi mutikoari, ta kemen geiagoz: "Otoitz eta damu asko egin pekatarien alde; anima asko dijoaz Su-leizera, inork ez baitu otoitz edo damurik aien alde egiten". Heede'ko neskatillak itz berak entzun zituzten Amaren ezpainetatik: "Egin otoitz asko batez ere pekatariak bide zuzenera itzuli ditezten". Andra Marik berak agertu digu gainera ze otoitz mota egitea nai dun: "Agurtza Santua." Lourdes'en, itzez ez-baña egitez adierazi zion Benardatxori ze otoitz egin: eskuan errosarioa zula agertzen baizitzaion, eta biak batera Agurtza Santua esan oi zuten. Fatima'n argi asko eskatu digu otoitz ori: Sei agertuetan otoitz bera esateko agindu zion iru aurrei.

Ona azken agerkundeko itzak: "Agurtzako Andra Maria naiz; jarrai egunero Agurtza esaten". Azkenik, Heede, Jesus berak len bere Amak Fatiman egindako eskaria berritu zien lau neskatillei. Azkeneko Gerrate Aundia bukatzean Jesus agertu omen zitzaien eta eskari askoen artean bat auzan: "Esan maiz Agurtza Santua Jainkoaren aurrean ainbeste dezaken otoitz ori".

Zergatik eskatu ote digu Andra Marik otoitz ori? Bere bikaintasunagatik noski: aozko ta gogo utseko otoitza da, bi orien onaldeak ditularik. Siñestegi ta otoitz sorta da; XII garren Pio Aita Santuak dionez, Agurtza Doneak itz gutxitan Berri-ON osoa begien aurrean zabaltzen digu, ta batez ere Andra Mariaz jakin bear guttia edozein kristau burutan errex sartzeko eran dakar. Agurtza dugu Aita Santu beraren iritziz kristau bizibidea. Ez da ba arritzeko Andra Marik otoitz ori eskatzea, ta Bereganako eraspentetan, otoitz onek beti len-tokia artzea.

Mujika tar Bitor

Lazkao ko beneditarra



# OSTEGUN GURENA LASTEARTEZ?

Itun Zarreko egutegia eguzkiarekin zebillela dirudi, ta ez illatgiarekin, Kumran'en arkituriko idaztien argira. Idazti oieri jarraituz, gaur ba-dakigu eberrak jaiak zer ill, aste ta egunetan ospatzen zituzten. Ontatik agerida Pazko eguna beti asteartez zutela. Eguna auxe dirudi Kumran'go lekaideen Pazko eguna. Izan ere, egutegiarekiko auziak (beste zergaitik geiago ere ba-zituzten) eragin bai zitun Kumrandarrak apaiz nagusien erlijio-keratik bereiztera: oiek illargiarekin neurtu nai nai egutegia Siri tarre-ri jarraiki ta aiek, berriz, eguzkiarekin lenari eutsiz.

Berez datorren galdera: Jesukristok ere bere Pazkoa Apostoluekin ospatzeko egun au aukeratu ote zun ala ez? Edozeinetara ere, judu-agintariak baiño lenago jan zuten Azken Pazkoa. Begira. Joan ebanjelariak (Jon. 18,28) dionez, judutarrak etzuten Pilatus'enean sartu nai izan. Zer zalata? Legeak debekatzen zielako. Izan ere, kutsutu bezela egiten omen zitun sinisgabeen, jentillen etxeetara sartzeak; mota batzutatako abereak eta gorputz illak ikututzeak bezelaxe kutsutu ere. Kutsu onen zigor eta ordain, berriz, zegozkien eskubide batzuk debekatzen zizkien Legeak. Aldiz, egun-barruan ala aste-barruan bakarrik eta, aldiz, berrogeialdi osoan debekatu ere. Jan nai zuten Pazko-Aparia judu-agintariek eta ziur baiño zurrago arrats artan bertan gainera. Izan ere, bezpera-arrratsaldetik asten balizan bigaramuna.

Garbi dago, beraz, Jesusek ospatu zula azken-Pazko, Azken-Aparia ta, bestalde, eliz ta erri-agintariak artan ospatzeko zutela.

Ta zer egun ote zan? Ebanjelioari ez darie ontan argirik. Aitzitik. Zail ere zail dirudi Azken-Aparia Ostegun arratsaldez ospatu izatea. Jakiña, Ebanjelio oek dioten guzia geiegi

baita eguerdirarte bakarrerako. Ikus dezagun, bestela "Sanedrin" batzar nagusiak bi billera egin zitun; beste bi eserialdi egin zitun Pilatusek auzi-maiean Jesus epaitzeko. Erodesenganako joan-etorria, gaiñera. Au guzia sartu al zitekean eguerdiarte batean? Ez dirudi. Seiretan asi ziralarik ere, amabietako Gurutzean josia bear zuten. Amabietatik iruretara izan baizan illunaldia Lukas Deunaren aitorrez (Lk.23,44). Ill ere irurak inguruan ill zan. Eguerdi artan sartu bear dira zigorraldi ta Gurutze-Bidea ere. Gaez egingo zituztela billeraren batzuk? Ez zezaken "Sanedrin" batzarrak erio-auziak egun-argiz egitea agintzen bai zun legeak. Ebanjelioen aitorra ez dago, beraz, Azken-Aparia Ostegunez egin zutelazkoaren alde? lenago bear zunaren alde, baizik.

Ebanjelioaren barne-argibidez bidezko dirudin iritzi onek berekin du Abitza ere. Bigarren gizaldiko aitorra da, Jesusek Pazko Aparia aste-arteaz jan zula ta arrats berean atzilotu zutela. Asteazkena Kaipa renean eta Osteguna Pilatus enean egin zitula auzitegi ta illunpe. Azkenik, ostiralez gurutziltzatu. "Didaskalia" deritzaionean dager eta beste idazleren batek ere au bera dio. Bidezko dirudi iritzi onek. Alare sakonago aztertu bear, Nekaldi osoko gertaera bakoitzari bere garaia erabakitzeke.

**AZKENA:** Bijoia zirriborroloturik berenik, Antonio G. Lamadríd'ek "Descubrimientos de Qumrán" liburuan labur-zurrean (174'tik 176'ra) adierazten dun iritziaren berri.

Oargarri da, oraindik ziurtzi guzizkorik ez dezaiokegula eman iritzi oni. Paris'eko "Ikasketak Nagusien Ikastolan" irakasleme dan A. Jaubert ek sortu zun.

Ba-zitun berealaxe jarraitzalleak. "Pontificium Institutum Biblicum" en zuzendari dan Ernest Vogt josulagunak bi aldizkaritan idazti zun iritzi berauxe, naiz-ta, aldiz, akats batzuk arkitu. Bi jakitun oien iritziak aztertu ondoren au erabakitzen du Joan Leal jesulagunak "Estudios Eclesiásticos" en (188'garren or.; IV-1957). Juan Ebanjelariak eta beste irurak egutegi bat eta berarekin ez dirala ari. Au ziurrik. Baña asteartekoarena ez dagola erabakitzerik.

Gaztañaga'tar Jexux  
Donosti'ko apaizgaiak

# LOURDES'KO BAIETZA SORTZEZ GARBI SINIESTEGIARI



1.- "Teologi-indarrez ezin genezake Kristau fedeko egitzat erabaki Mariaren Sortze Garbia, ta ez da ere inor ori sinistera beartu, betiko ondamen nekepean."

2.- "Ontan, Elizaren eta Aita Santuaren nola naiko erabakia ez litzake egokia, ez bai luke gelagotuko Neskatz Sortzez Garbiaren aintza ta gañera Eliz-pake ta animen kalterako bailitzake gure gotzaigoan batez ere"

Onela zion Aita Santuari zuzendutako idazki baten, Sortze Garbia erabakitzearen aurka altza ziranetako batek, Paris'ko, Gongotzai M. Siboure'k.

Bañan onek etzun bildurtu garai artako Aita Santua IX Pio. Siñeste au oso sustraitua zegon elizan, atzera jotzeko. Oraindik urte asko etzira-la, Amerikar gotzaiak batzar batean ao batez eta biotz beroz, "Ama Nexkatxa Sortzez Garbia" Amerika'ko Erri Elkartuen (U.S.A.) zaindaritzat izendatu zuten. Beste gotzai asko aspaldi zebiltzan Maria'ren Sortzez Garbitasua erabakitzeko eskatuz. Aita Santuak, orrelako berri pozgarritz bizkorturik, bereala gotzi eta teologilari batzar bat bil-

du zun auzia garbitzeko. Auen iritzia siñestegit-  
tzat erabakitzearen aldezko izan zan. Gotzaien  
baietza iristea besterik etzan palta. Ortsarako  
IX Pio Aita Santuak idazki bat bidali zien esanaz:  
" Gure gogo bizia da al dan lasterren jakiñarazi  
dezaiguzutela zer derizkioten zuen elizbarrutiko  
apaiz eta erriak Andra Mari Errugabeaz, eta zer-  
taraño nai duten Aita Santuak arazo ori erabaki-  
tzea. Ta batez ere, zerok, zuen jakinduri aundiz  
irizten eta asmo duzutena jakin nai genduke."  
Idazkizko batzar deritzai galdebide oni. Zer ate-  
ra zan ortik? Erantzun zuten 603 gotzaietatik, 56  
edo 57 etziran siñestegi erabakitzaren alde. One-  
kin ez dut esan nai erabakiaren aurka zijoazela.  
Adibidez, 24<sup>o</sup> ek etzala erabaki-giro zerasaten. Lau  
edo bostek etzuten erabaki ori artu nai izan; oie-  
tatik bat gure lanaren asierako bi azalkizunen ja-  
bea, Paris<sup>ko</sup> gongotzai M. Sibour.

Beste aldetik 546 gotzai sail aundia jarri  
zan siñestegitatzat erabakitzearen alde. Erantzun  
onek, asitako bidean jarraitzeko asmoa indarragotu  
zio IX Pio Aita Santuari. Batzar berezi bat gertu  
zun erabaki-agiria (Bula) gertutzearren.

Azkenik, 1854<sup>ko</sup> abenduaren 8<sup>an</sup> Sortze Gar-  
bia siñestegi artean sartu zun, erabaki-agiria de-  
nen aurrean onela irakurriz: " Jesukrito ren, zo-  
rioneko Petri ta Paul Bidalien eta Gure izenean  
aitortzen, irizten, eta erabakitzen dugu Andra Ma-  
ri doatsua, Jainko altsuaren esker berezibategatik  
eta Jesukristo gizonen Salbatzallearen irabazien-  
gatik, Sortze-Sortzetik jatorrizko obenik gabea  
eta guztiz errugabea, izan zala dion erakuspena,  
poierakuspena dala eta orregatik kristau guztiok  
sendo siñesbearra " (Ineffabilis Deus 1854<sup>ko</sup> aben-  
duaren 8<sup>an</sup>).

Erabaki zu Elizaren egizko semeentzat pozga-  
rri izan zan. Erroma<sup>n</sup> egindako jaiak dira agerbi-  
de ta ontaz gotzaiak zuzendutako idazkiak. Paris<sup>ko</sup>  
gotzai M. Sibour<sup>ek</sup> ere bere barrutikoei idazki  
bat zuzendu zien, Aita Santuaren erabakitara makur-  
tuz.

Katolikoan artean ere etzuten danak Aita San-  
tuaren itza ain errex jaso. Laborde ta Guettée bi  
apaiz prantzesak erabakiaren aurka atera ziran.  
Jansenis<sup>tarren</sup> artean, Holanda<sup>ko</sup> iru gotzai, ta



abar. Ala ere, kristau aurkalariak etziran asko.

Ezkatolikoan artean geiago sortu ziran, ia danak. Siñestegi berri bat galbidetzat zeukaten. Rusi-Elendar elizak, Ingelendar ta Luterotarrak ots aundiz marmar egin zuten. Alaz ere Sortzez Garbiaren jaia azkar sartu da edonun. Sortzez Garbiaganako zaletasuna gero ta aundiagoa da gure kristau-errian; ta ori gutxi balitz bezela, gertakari berri batek siñesleak sendotuko zitun, bildurriak berotuko ta siñesgabean gogorkeri setatsua ausiko.

Siñestegi berria erabaki zanetik laugarren urtera, Ama Birjiña neska apal eta tolesgabe bati agertu zitzaion Lourdes'en diridiñez, Aita Santu-en erabakia onartu, eskertu ta indartu naiez. Neskak Soubirous'tar Benardatxo zun izena. 1858'ko otsaillaren amaikatik uztaren amaseiraño gertatu ziran 18 agertaldiak. Elkarrizketa luzeak izaten zitun Andra Mariak Benardatxorekin, bañan atsegin-garri eta samurrena amargarren agertaldikoa. Agertzaleari izena galdetzeko agindua artu zun Benardatxo'k Peyremale apaizagandik. Epaillaren 15'an Benardatxo'k galdera au egin zion: " Zein zeran esango bazenida? Orduan agertzalleak, ixillean zeukan egi aundi bat argitaratzen du: " Qué soy er'Immaculado Councepciou" - Ni Sortzez Garbia naiz.

Izen santu au beiñere etzun aditu Benardatxo'k; eta gaiñera zer esan nai dun ere ez daki. Bañan ziur dago Agertzaleak bere izena esan duala; Orregatik, bereala, erretorearen etxera abiatzen da, itz oiek bein eta berriz etengabe mingañean erabilliz. Trochou Jaunak jalkitzen digu, Peyramale ta Benardatxo'ren arteko izketaldia; Peyramale'k Benardatxo bere gelan sartzen ikustean, esan zion:

- Zer berri dakarren gaur? Bañan Benardatxo'k egun on edo arratsaldeon esate " Qué soy er'Immaculado Councepciou" zion bein eta berriz.

- Zer dion arroxka? ots egin zion apaiz jaunak.

- "Qué soy er'Immaculado Coucepciou". Orduan, Benardatxo'k zutiturik dasaio: "Artzuloko neskak esan dizkit itz auek".

- Ondo dago erantzun zion apaizak biotz ikaraz, Ala ere jarraitu zun esanaz: Bai al dakin zer esan nai dun orrek?

- Ez apaiz jauna.

- Okerrean agola argi ikusten diñat; nola esan dezaken ulertzen ez dena.

- Artzulotik onera etengabe ari naiz esaten: "Qué soy ér" Immaculado Councepciou".

- Ondo dago... (Trouchou. Bernadette Soubirous. 232 oría).

Zergatik etzuan, Ama Birjiñak bere egizko izena eman? Errezatzean ez al dio kristau erriak dei egiten: Agur Maria? Luka Deunak ez al digu esaten: "Et nomen Virginis, Maria", eta Birjiñaren izena, Maria zan? (Lk. 1,27).

Zergatik esan du bada Ama Birjiñak: "Ni Sortzez Garbia naiz"? Egia da Aita Santuaren agirian etzirala itz oiek erabilli. Andra Mariak ordea erabaki ori gogora nai zibun eta laburturik itz bitan eman, aurrerakoan izen santu goretsi dezagun.

Birjiñaren aitor au lurreko abotsari Zerukoak egiten zion oiartzuna zan; Goi-erantzuna, Kristoren ordezkioak erabakitako siñestegiari. Ez Aita Santuaren itza sendotzearen; ark esana utseziña baizan, Aita Santuak Andra Mariari ortan agertu zion eraspina baiezko arrigarri baten bidez eskertzearen baizik.

Era ortan itz egin zun XI Pioik Benardatxo aldare-malletara jasotzean: "Gogoan artu bear dugu toki ta eliz ortantxe gure Aurreko IX Pioik Sortze Garbiaren siñestegia aitortzearen, danak txalo zegotelarik, emandako erabakia Andra Mariak arrigarriro azaldu nai izan zuanean etzala gizon jakintsuengana zuzendu, errotari batzuen alaba tolesgabe batengana baizik." (Homilia Pii XI in solemni canonizationa 8-12-33).

Amabigarren Pioik ere "Fulgens Corona" idazkian itz berdintsuz egiztatzen eta sendotzen du bere Aurrekoak esana. Onela dio: "...Andra Mari doatsuak, lurrean Jainko-Semearen ordezkari zanak, Eliz osoak txalo zegiola, emandako erabakia, arri-

garrero egiztatu nai izan zuala dirudi. Etziran, izan ere, lau urte joan; eta ara! Añamendi oiñetan datzan Frantzi'ko erri baten inguruan, Andra Mari erabat txuri, soingaiñeko txuri bat jazten zularik eta gerriko urdin bat, neskatx on eta txintxo bati Massabielle'ko artzuloan agertu zitzaion. Agertu zitzaionari nor zan galdegin zion neskatxak, eta Ark irripar gozo bat ezpaitan eta zerurontz begiak jasorik erantzun zion: "Ni Sortzez Garbia naiz". (A.A.S. XLV 1953, 577 or.).

XII'gn Pio'k berak urte bat gerogo, ori bera, bañan indar aundiagorekin esaten digu: "Gure gogo ta biotza Lourdes'runtz itzuli ditugu; or, Sortzez Garbi siñestegia erabakita lau urte gerogo Andra Mari Errugabe berak agerpen, izketaldi eta arrigarrrien bidez Eliz-irakaslearen esana baietsi zun". (Omnium Ecclesiarum A.A.S. XLVI, 1954).

Ta Benardatxok, gai orretaz ez al du ezer esan? Bere bizitza guztian eskutitz bat bakarrik baiñan bai xamurra, idatzi zion IX Piori. Antxen arkitu ditugu itz auek: "Ama Birjiñak maiz ditu zure gain bere begiak, Zuk, Sortzez Garbia aitortu duzulako. Ama on orrek bereziki maite zaitulako pozten naiz; izan ere lau urte geroago, Bera lurrera etorri zan, "Ni Sortzez Garbia naiz", esatera. Nik ez nekin zer esan nai zun orrek. Itz ori ez nun beinere entzun. Geroztik askotan diot nere buruari: " Bai ona dala, Ama Birjiña! Gure Aita Santuaren itza baieztera etorri dala esango nuke. (Michel de Saint Pierre, Bernadette et Lourdes. Paris 1953, 242 or.)

Lau iritzi oiek batera datoz: Andra Maria Lourdes'a 1858'ko epaillaren 25'an Aita Santuak lau urte lenago Sortze Garbiaz erabakia eskertu, onartu ta arrigarriz ospatzera jetxi zala adieraztera. Lenengoak, "ala dirudi, esango nuke ka"; XII Piona berriz argi ta garbi. Aurrerakoan Ama Birjiña eta Erromako Aita Santuak beinbetirako elkaturik gelditzen dira.

Ama Birjiñak egin du berea. Orain Aita Santuak, Lourdes'en gertatutako arrigarrietaz itz egitera beartuak dira. Zeruak txaloka artu zun Erromak emandako erabakia. Aita Santuek berriz, arduratsu aztertu dituzte Lourdes'en gertatuak.

Ta ez aztertu bakarrik, baita gertatua egiztatu ta aupatu ere, batez ere Lourdeskoaren antzeko artzulo txiki bat Vaticano bertako lorategian altxatuz.

1876 garrenean IX Pio bidalitako ordezkioak, Lourdesko Ama Birjina korçitu zuten. Arrosarioaren Aita Santu XIII Leon ek dionez "Lourdesko Andrea ez da bakarrik Frantziaren itxaropen, baita ere Eliz osoarena". Ta gañera Vaticanoko arpe txikia aunditzen du, berak "Frantziako baztartxo" deitzen zion ura ikustatu zezan.

1907'an Lourdesko Ama Birjinaren Meza ta Otoizketa Eliza Osorako zabaltzen du. Geroago Mariaren Eliz audienenen artean sartzen dute Lourdes. Orrelako aipamen asko egin dizkiote Lourdesko Elizari Aita Santuek. Orrela itz egin dute Erroma ko eliz-artzaiak. Orrela saiatu dira Lourdes, kristau guztiak Ama Birjinaren Sortze Garbia aitortu ta goratu dezateneko munduko txoko egiten.

Agerkundeen eunurtea ospatzen dugu aurten; eta Lourdes entzat orainarteko urterik aipagarriena izango dala zalantzarik eztago. Aurten Andra Mariak milloi ta milloi erromesen biotz-agurra artuko du. Denak "Errugabe sortu ziran Erregina" esango diote. Orregatik, epaillaren 25 garrena Ni Sortzez Garbia naiz esan zuneko eguna eta abenduaren zortzigarrena Sortze Garbi-eguna, aurten go jai audienetakotzat aukeratu dituzte.

Artola'tar Sekundino

Lazkao'ko beneditarra.

KULTURA,

JAKINTZA,

ANTZE.

# GIZONARI DAGOKION ESKUBIDEA

Gizarte-gailetaz diardudan bakoitzean, burura datorkidan lenen gauza auxe da: korapillo ikaragarria dagola askatu bearrekoa, bai langilleeri buruz, ta aundiagoa dager, bear gorritan ta itxura negargarrian bizi diran ainbeste pamilieri begirutzen badiegu.

Egiz, biotza erdibituta gelditzen zait onelako zoritxarrak ta esberdintasunak ikusi ta jakiten ditudan bakoitzea. Problema aundia benetan mundu guziko langilleena. Urrutira joan gabe ere, Españi'n gauza beltz ta oker dakusgu. Jesulagun Jose Maria Díez Alegria'k argiro azaldu zigun bere konferentzi batean Españi'n jasaten ari geran egoera latz-negargarria. Ta azkenaldi ontan, "Colligite" aldizkariak zer esan dizkigun, ez al zera gogoratzen irakurle? Luza ninteko gizarte-baratzan dauden bearrak aztertzen; langilleak beren bizkar gañean daramazkiten nekeoñaze edo zoritxarrak azaltzen. Baña oraingoz nere elburu au ez da beste bat baño.

Gizonak bizi nai badu, lan egin bearrean dago. Zama aundi au Adan'ek pekatu egin zuanetik datorkio. "Ire bekokiko izerdiaz jango duk". Jaungoikoaren itz latz eta gogorren oiartzuna gizon guztietara zabaldu zan. Lege onetatik landa etzan iñor ere gelditu.

Egia da gizonak lanera beartuak daudela, baña baita ere egia da egin lanari sari egokia eman bear zaiola, langilleeri dagozkien eskubideak aintzat artu bear dirala. Aspaldian zer ikusten ari gera orde, gizonaren nortasuna makina baten ariora beartua baño? Bizi nai izan eta ezin. Bizitza, bizkar gainean daraman karga astun baten antzera gertatzen zaio. Ta era ontan ikusirik ezin al zezaketen ezertxo ere egin? Langillea bera bakarrik etzan aski, bizitza obeagotu eta nagusien-gandik lanerako kondizio obeagoak lortutzeko. Orre-gatik, bere kideko batzuekin elkartuaz indar geiago euki ta egin zezaketen. Ta sorionez batu ziran. Onengatik bada, gaur ludian orrenbeste elkartasun ikusten dira. Nere lantxo ontan, elkartasunak edo beste itzetan sindikatoak zer diran azaldu nai nuke, ta gizonak bere kidekoekin elkartzeko duan eskubidea.

#### ESKUBIDE AU GIZONARI NATURAZ DATORKIO.

Bere kidekoekin elkartzeko joera gizon guztiak daramate. Ba, bera bakarrik naikoa ez dala ikusten du eta besteen laguntza bearrezkoa zaiola. Idazteunak ere berdin dio: " Anaiak anaiarengandik laguntza baldin badu sendotasuna bezela da". Orre-gatik gizonak elkartzea nai izango balute iñork ezin dezaieke galerazi, eskubide ori naturaz baidatorkie. "Rerum novarum" deritzan enziklikan Leon XIII'gnak argiro darakus: " Gizonari elkartzeko eskubidea naturaz datorkionez, laterriak edo gobernuak ezin ukatu edo kendu dezaken ezkeroz, langilleek elkartasunak eratu ditzakete xede edo jomuga on eta onurakorra daukaten bakoitzean, eta gobernuak eskubide au ukatuko balie, naturaren buruzki ibilliko litzake". Malinas'ko Gizarte Araudiak onela dio: " Nai dutenak elkartasunak osatu ditzakete. Auek beste itzetan sindikatoak deritzate".(1)

Alabaña sindikatoak eratzeko eskubidea mugagea ez da. Gerta liteke batzuetan, gobernuaren

legeak elkartasun auetako mota batzuk ukatzea, zuzenbide edo gobernuaren buruzki daudenean adibidez. Emen zerbait agertu bearra dago gobernuari buruz:

Lenen, gobernuak geienean, gorago esan dugunez, gizoner elkartasunak eraikitzeke naturaz daukan eskubidea ezin dezake lotu; geiago, gobernuua naturazko eskubidea ezerezteke ez dago, zaitutzeke baño.

Ta bigarren, naturaz dagozkien eskubidearen bidez eraikitako elkartasun auek, gobernuak ondo-artu ta zaitu ez ezen beren burujabetasuna edo askatasuna inoiz ez dezake zanpatu. Baña zillegi ez diran elkartasunak eragozten baditu, berari dagokion eskubide bategaz baliatzen da ta ongi dagi.

#### EDESTIARI BEGIRATUZ.

Edestia jarraiz, elkartasun auek egunetik egunera aldatuz joan dira, ta bi sailletan zertu genitzake: anaidiak edo gremioak ta sindikatoak. Anaidiak elkar laguntzeko Elizaren babesean sortu, loretu ta berak eragiñaz XII-XIII<sup>gn</sup> gizaldietan beren goi-maillara iritxi ziran; XVI<sup>gn</sup> gizaldirako orde, gainbera zijoazen. Ta XVII<sup>gn</sup> gizaldian, Prantzi an sortu matxinadan, beste gauz negargareietaz gainera, auek ere kendu zituzten. Langilleak inoren laguntzik gabe ta bakarrik gelditu ziran, ta nagusi ankerrak beren eskubideak alperrikakoak bailiran artu zituzten.(2)

Langilleak ere ontan gelditu ziranean elkartu ziran eta sindikatoak sortu zituzten. Lenengoz, Belgica n eratu ziran 1928<sup>gn</sup> urtean (3). Arrezkero eralketa aundi oargarria nabaitzen da. Orregatik, goien aipa anaidiak alde batera utzirik, luze egingo baizilaiguke, sindikatoak zeatz-meatz aztertuko ditugu.

#### ZER ETA ZENBAT ERATAKO DIRAN.

Sindikatoa onela zeindu genezake: gizarte mailla berdiñeko diran gizonak beren maillako eskubideak zaitu ta lasaitasuna lortzearren osatzen diran elkartasunak. Sindikatoak orde, artzen dituzten gizonen maillari begiratuki iru eratako izan



ditezke, langilleenak, nagusienak ta nastuak. Ba-koitzaren berri oraintxe emango dut.

Langille-sindikatoa deritza, langillez osatzen dan elkartasunak. Beren eskubideak lortu ta obeagotu al izateko, au da, lanari, sari kon-tueri, lanean sartu bear orduei ta abarrei dagoz-kiena begiratzen dute. Orain erabaki dugun sindi-katoa zearkakoa da edo orizontala deritzaio. Sin-dikato anek mailla berdiñeko langilleak artzen ditulako darama izen au. Ta zearkakoa ere deritza-io, sindikatoan gauz berdiñak sortzen dituztenak elkartzen ditulako; adibidez, berunezko meatokiak bakarrik.

Nagusi-sindikatoa berriz, nagusiegaz osatu ta beren obari ta eskubideak zaitu al iza-teko elkartzen diranak. Au, bestea bezelaxe, ze-arkakoa ere da. Sindikato nastua deritza langille ta nagusiak baltzuan elkartzen diranean, beren artean izan ditezken eztabaidak erabakitzearren. Au da, Eleizak ere sindikatotan deien aolkatzen duna, ta bide oso egokia nagusi ta langilleen ar-teko alkartasunak eragin ta ezin ikusiak ta ez-berdintasunak kentzeko. Ta sindikato-baltzu auek gañera kopuru berdiña izan bear dute langille ta nagusien artetik, au da, zenbat langille ainbat nagusi, sindikato-zuzendaritzan alegia.

Lenago, sindikatoa zearkako bat ba-dala esan dugun dugun bezela, ba-da beste sindikato bat goitik-beerakoa edo "vertical" deritzaiona. Bere altzoan enpresa bateko langille ta nagusiak oro batutzen edo zailtzen ditulako darama izen au. (4). Goitik beerako sindikatoa beste era batera ere ulertu diteke. Ta ondoen adibide baten bitar-tez ikusiko dugu. Burnizko goitik-beerako sindi-katoak burni-lanean aritzen diran enpresa guztiak artzen ditu.(5).

Bakarra deritzan beste sindikato bat ere ba-da. Ba onelako sindikatoak aberri bateko lan-gille ta nagusi guztiak sindikato batean elkartzen ditu. Sindikato bakar au zuzen ta legez dagoke langille berak autatu ta onartua balitzake. Baña, ez ain zuzen, geiago, sortzezko legearen buruzki, gobernuak artez edo zearka langilleeri arreraziko balieke. Gerta liteke orde, gobernuaren jokaera au zillegi izatea, adibidez, aberriaren lasatasunak bearrezten baldin badio, baña lasaitasun au lorturik dagonean ez da zillegi.(6).

## SINDIKATO BEARRA.-

Sindikatoari buruz zerbait zerbait esanik dugunez, gizarte soroan dagoan bere bearra azalduko dugu. Sindikatoari dagokion eginbearra gaur egunean dakusgu batez ere. Langilleak zerbait lortu nai badute sindikatoaren bidez egin dezakete. Adibidez, langilleak nagusi-arekin egin nai duan lanerako elkarte edo kontratua. Elkarte au langilleak berak bakarrik egin nai balukete, askotan, zalantzarik gabe baldintza edo kondizio kaltezoak ere artu bearko lituzkete. Orregatik, sindikatoa beren kerizpea dala esan genezake.(7).

"Beartsuen egoera negargarria alienatzea bearrezkoa deritzait. Eta ontarako biderik egokiena sandikatoa da," Saliege Goi-gotzaiak esan. (8). Berebat Valencia'ko Olaetxea Goi-gotzaiak enpresaio katolikoei egin itzaldian: "Enpresaren berrikuntza sendo ta egizkoa ezarri nai badugu, bearrezko ta egokia litzake sindikatoaren bidezko langille-nagusi arteko elkar izketa."(9). Pio X'garrenak Brasil'go Eleiz-agintariei zuzenduz zesaien: "Toki guztietan zerbait bederik sortzen diran elkartasun auetako motak, kristauen artean, gizarteko soroan dauzkaten ogasunak zaitzearren, eraturteza gogozko litzaidake. Elkartasun auek oso egokiak baidirudite gure garai ontarako; auek bide dirala, langilleak beren ogasunak zaitu ta gañera sinismena iraun-arazi ditzakete".

## SINDIKATOETAZKO ELEIZ-IRAKASKINTZA.-

Gai ontan, eleliz-agintari guztiak irakatsi dutena aztertzen jarri ezkeroz, asko luza gindezke. Leon XIII, Pio XI, ta urte auetan Pio XII'gnak idatzi-enziklikakin korapillo asko askatu dira gizarte baratzan. Sindikatoeri buruz zer irakatsi duten jakitea bearrezkoa zaigu. Eleizak beti bezela, gizadiaren onura edo irabaziari begiratuaz, sindikatoak eratzea aolakatu ez ezen bere indartzea edo aurrerapena ere lege batzuen bitartez artez zuzendu du. Sindikatoak zein eratan eratu bear diran Leon XIII'gnak. argiro aitortzen du: "Sindikato auek osatzen dituzten gizon guztieri, bide egoki ta lasaiak emanaz,

beren elburu edo gogo dutena lortu al izateko eran eraiki ta antolatu bear dirala. Ta elburu au langille bakoitzak bai animarentzako, bai gorputzarentzako ta bai bizitzarako bear dituan onura guztiak lortu ditzan izango da."(10)

Eleizak, langilleek duten elkartzeko eskubidea ondo ikusi du beti ta baita ontan lagundu ere; baña, sindikato auk Kristoren legeari, bere oñarri auskaltza balitz bezela elduaz, ta langilleen artean kristau bizitza eragitearren eratu ditezela aolkatzen du."Ta inoiz, sindikatoak berez politika edo ekonomi-kontua bide dala toki askotan gertatzen denez, langilleari bai gorputzean, bai ogasunetan dagozkion eskubideak kenduko balizkioke, sindikatoa bera aldatua eta desegiña geldituko litzake", Pio XII'garrenak italitar langilleeri daisaien bezela.

Ba-dakigu, sindikatoak Kristo'ren buruzki ezin ditezkeela burutu. Baña. Eleizak askatasunik ez daukan tokian, auda, gobernua Eleizaren nortasuna, eskubidea ezagutzen ez baditu, ta sindikatoak ere eleiz-legearen areuz eratzen ez badira, langille katolikoak onelako sindikatotan elkartu al litezke? Au litekena da, ta gertatzen dana. Kasu onetan zer egin, Malinas'ko Gizarte Araudiak argiro darakugu: "Langille katoliko batek, onelako sindikatoetan, zalantzarik gabe bere izena eman dezake, bere sinismenaren kaltean ez badijoakio bederen ta Eleiz Katolikoaren babesean jarrai balezake"

Sindikato bakarrari buruz zer esan? Gorian ikusi dugu langilleeri naturaz dagokion elkartzeko eskubidea. Baña, sindikato bakarrak, beste guztiak baztertzen ba ditu, num da langillearen askatasuna beren eskubideaz baliatzeko? Ta au da sindikato bakarraren jomuga. Orregatik Eleizak ezin dezake ondo artu. Oraindik, gizarte-soroan lan asko gelditzen zaigu egiteko, ta batez ere Espaini'n, Eleizak irakatsi duana egin nai baldin ba dugu. Onela ezin genezake jarrai beintzat. Langilleari bizitzeko aña bear duan saria ezin eman diteke, sindikatoak bear diran bezela eratuta ez badaude. Pildain Gotzaiak ere argiro itz egin zuan gai onetaz berak egin artzai-eskutitz batean. Agian gogoratuko zera irakurle, ta ez nijoakizu berriz azaltzera. Bukatu baño len auxe dasaizut: Eleiz-irakatsiak onartzen eta jarraitzen baditugu, bide zuzenetik goazela, bitartean... ikusten ari gerana bizi bearko dugu, ba-

# KRISTAU DEMOKRAZIAK

Egungo politika-munduari begiratu bat eman ondoren, kristau-demokraziak indar edo esnatu naiezko alegin zintzoak nabari dotugula ezin ukatu, batez ere Sartaldeko erri ta Ameriketakoetan. Azkenengo urte auetan amildu diran jauntxokerizko gobernuak, batez ere Ameriketa aldean, kristau demokraziaren eztena jasan dute beintzat, gobernu-mota oien eriogarri. Oraindik orain Venezuelan gertatutakoak ditugu lekuko zintzo.

Badirudi Ozanam, Franz Hilzer, eta ingurukoak erein zituzten kristau-demokrazi ideak, gaur egun, lertu eta aizeetara barreiatu nai dituztela beren egali eta eragiñak.

Hirler eta Mussolini 'k nolabait lurperatu nai izan zuten politika-joera au; baña alperrik. Adenauer "zaarrak" naurrigabeko ezbearrak jasan izan bear zitun bere politika-motari eutsi naia bein baño geiagotan Hitler jauntxoari muturretara erakutsi izan ziolako. Bigarren gerrate ondoren, politika-joera onen begirale eta zaintzalle sutsuenak mallarik gorengoanak berenganatu zituzten. Era ortan, Alemani ta Italia, kristau demokraziaren bultzadak suspertuta, eraiki zaizkigula baietsi genezake. Alemani aldetik Adenauer "zarra" dugu aintzindari, eta Itali aldetik De Gasperi zana. Bi oiek biderik ziurrenetik eraman nai izan dituzte beren erriak.

Auek aipatu ondoren ezin gindezke aazbera jokatu Schuman eta Bidaul onera ekartzeko. Bi oek eskeiñi dituzte alegin eta izerdi piñenak Frantzi ezin egona nolabait birreraiki zedin bere egoera okere tik. Era berean Belgica nleengo kristau sozialdar Partidoa berrituz, eta Holanda n, Katoliko erritar Partido bitartez, politika kutsu berezi ori zabal tzen joan zan. Ageri danez, kristau-demokraziaren eraginak somatu dituzten nazioak, egun, Europa ko Batasun atzetik dabiltzanak ditugu zorionez.

## KATOLIKOAN JOKAERA KRISTAU-DEMOKRAZIAREN

### JAIOTZ-GARAIAN

XIX garren gizaldian eta XX garrenean sartuta ere, badakigu Europa ko zenbait katoliko nola jokatu diran: ikusiak ikusi eta zetozenak etorrit aurrera begiratu bearrean, gizarte aurrerapenai besorik eskeiñi gabe, kapitalista-mallari lotu lotu eginda gelditu ziran, atzera begira, antsiñakoen ames-lilluratan, "Erdi Aro berri" bat berpiztu naiean ogeigarren gizaldi ateetan. Esan-edo genezake Maritain ek dion ura lortu nai izan zutela katoliko mota ontako oek: "Erriaren batasuna erlijioaren bidez lortzea, Erdi Aroko gertaera bat besterik ez dugu. Eleizaren sinismenak batasuna eman oi zion Estadoari..." Ori nai ote zuten katoliko oiek?

Ala, Leon XIII garrenak "Rerum Novarum" Elizagiri baikaiña eman zuaneko sasoi artan, marxismo eta sozialismo zaleak, ekiñean zebiltzan; katolikoak, ordea, Aita Santuaren agiria "Ixiltasun-esi lotsagarri" batez inguratu zuten, Leon XIII garrenak onartzen zituan erakutsi argiak, esate baterako sindikato askatuak etab..., gutxitan artuz.

Katolikoan artean sortu zan naas-maas artan irabazi zuan kristau-demokraziak maillarik galle nena; eta emn dago bere irabazirik aundien eta baliotsuena: lendabizi, gizarte-arazoetan katolikoak zeramaten jokabide txepela zearo aldatu zuten, Leon XIII garrenaren irakaspenak onartu eta jarraituz. Eta irakaspen auek zertuz, nai-ta-naiez politika sorora eldu bearra zeukaten, len gizarte arazoetan erabilli jokaera politika-arloetan ere nabarmen zedin.

Kristau-demokrazi-zale auek Leon XIII<sup>o</sup> garrenaren erakutsiak lendabizi gizarte-alorretan erein zituzten; eta, ikaste-billerak, sindikato askeak, lankide etxeak eraikiz, pentsakera berri bat lantzen ari ziran, eta pentsakera au beren aldizkarietan azaldu zuten, neke eta ezbearren eskutik. Pentsakera berezi au ustekabeen, baiña nai-ta-nai-ez, politika soroan murgildu zan:era ortan beren gizarte-elburu eta xedei lorbidetaz urratuz. Joera eta jokabide berriak ziran, orduarteko katoliko tradizio-zaleen ezbestelakoak.

Demokrazi-zale auek egunera bizi ziran, gertatzen-ari kopet emanaz, bide berriak antolatu eta urratuz, xede berriak lortuz. "Lengoen ameslari zaar" katoliko aiek askatasuna arrisku bezela ikusi oi zuten; besteak ordea, kristauak bizitu dezaken bide berri egoki bat bezela. Kristau demokrazi-zaleentzat langille zalapartak edo ezin-egonak, eta sindikato askatuen eraiketak, kristautasunak, giza-askatasunerako, bere arnasez bizitu bear lituzken tresna egokiak ziran. Beste tradiziozale oiek, berriz, aize auek eragille maltzurren alegin satsu bezela jotzen zituzten itsu-itsuan.

~ ~ ~

Ezin dezakegu aaztu bi joerako demokraziak ditugula eskuartean: orainarte erabili dugun kristau-demokrazia, eta demokrazi liberalak. Badiirudi demokrazi liberalak erio-atzaparretan daudela; norbaitek onela ikusten du beintzat. Demokrazi liberalak etzuan bere soilnean gaitzik nabaritu, arek eta Hitler<sup>en</sup> eta faxisten jauntxoeriak azaldu arte. Bi oengandiko burruka demokrazi-zaleen lepo erori zan; ala ere, oek eraman zuten garaipena, baiña... faxistak-eta sortu zituzten arazoetzieta demokrazi-zale oek, liberalak erantzun eta erabaki egokirik eman: itxurazko erabakiz jantzi dute beren egitura, muña usteldu edo egin, eta azala bakarrik ikusten da zenbait bidegabekerien estalgarri. Orregatik egungo demokraziak beste matxinada maltzur eta eraginkor baten atzaparretan erortzeko arrisku gorrian arkitu diztezke: ondo baidakite komunistak demokrazi-zale literal oien lur-jotzea, daramakien bidetik, aldiak ekarriko duala ustekabeen, eta zai-zai daude.

Baiña ez da au, komunismoa, etsairik gaiztoena demokraziarentzat. Demokrazi liberalak berak galdu du edo dezake bere burua. Gerratean gorde nai uste izan zituzten giltzegi edo printzipiotan, utsuseak aski ikusten dira, ipar-ameriketarrak berak oartu dute, beren egungo demokraziak zerikusi gutxi daukala lengo demokrazi-zaleak amestu zutenarekin. Gaitza bere soñean dute ustelgarri.

Walter Lippman<sup>ek</sup> bere liburu batean gaitz orren arrastoak onela azaltzen ditu, berak oartu eta ikusiak laburki emanaz: "Erritarrak, erabiltzeko gai ez diran aiña eskubidez edo almenaz jabetu dira; eta oek aukeratzen dituzten gobernuak, galdu dituzten eskubideak berriro eskuratu bear dituzte, egiaz agindu bear baldin badute". "Gobernatzalle-mallaren bizi-eza da laterri edo nazio-demokrazi-zaleen gaitza".

Beste idazle batek, Ipar-Ameriketako gizarte-arazoetan oso ialetuta dagon C. Wrigt Mills<sup>ek</sup> ipar-ameriketarren demokraziaren errailetaraño sartu du eztena, eta ondorioak liskar eta eztabaida rako gai izan arren, "zerbaiten" adirazgarri zintzo ditugu. Zerbaitek eragin du idazle trebe au ipar-ameriketarren demokrazia "militar kutsuzko kapitalismo" sasi-izenez ikutzeko. Berak dionez. "demokrazi-sinismena militar oiek gordetzen dute kutxa batean arduratsuki; eta kutxa orren itzale-ra makurtzen dira Ekonomi-Bazkun aundien ordeko, bestelako politika indardun, eta gañontzeko "jauntxo-elite" osoak... Baliteke "elite" ori asmo onez eraikia izatea, baiña... azkenean jauntxokorietan erori-edo dirala aitortu bear".

Gaitza, beraz, soñean dute liberal demokrazi-zale oiek: dana dala, eria nuntzea ez da aski, sendabiderik eskeintzen eta ezartzen ez bazaio.

Darabilkigun gaitik asma genezake nundik dabillen sendabidea. Baiña zer dugu kristau demokrazia?

"Kristau"-demokraziak ez ditugu naasi bear erlijio-joera aizeetara aitortzen duten beste partido oiekin: berezi ordea beti. Norbaitek dion bezela "partido baten erlijio-mota aitortzea, Elizaz nolabait beartzea litzake. Elizak bere ordekoa-

edo suki nai izango luke partido orren soñean, beren eginkizun, joera, erabaki, eta asmoak erlijio kutsu orrezaz igurtzi nairik... Oiek politika katolikoa egingo luteke, eta katoliko ez diranak ere luteke eskubiderik izango partido orretan sartzeko."

Kristau-demokrazi-partidoak ez ditugu azkera ontakoak: ez dute inolaz ere edozein erabazirik beartu nai. Ez dute beren erlijiorik aitortzen (ez dugu baiesten erlijio gabeko gizonak diranik): "Kristau arnasetan" oinarriturik daude; kristau filosofiak eman dezazken egi baliotsuetan edan dute beren izatea; apaiztar edo elizusaiezko politikariek ez dute egin nai, ezta erlijio-era berezi bat aitortu eta ezarri ere politika-soñeko bezela. Partidu "katoliko" oiek kristau egi aberatsenak begien aurrean ipiñi bai, baña...bete, askotan ez! Kristau egi oiek demokrazi gorputzari bizia ematea oso egokia da, baño, arro-arro puztuta agertzea ez dator askotan ongi kristau-izate berarekin.

Baña zer dugu egiazki kristau-demokrazia? Zer ez dan errez litzake esatea. Lourdes Casal 'ek dionez "arritzekoa baiño oraindik ez da mami biurtutako egi bat; asmo bat litzake". Alemani-erria egiten ari diarduna aztertu bear litzake sakonetik argi pixkat egin nai badegu arlo ontan.

Kristau-demokrazi au aupatzerakoan ezin dezakegu baietsi Elizak eskeintzen duan politika-era danik. Ez, Elizak ez du politika bat beretzat eta bereenzat aukeratzen. Edozein politika-mota egoki eta bidezko zaizkio, kristau-filosofiak ematen dituan giltzegiak eta betebearrak onartzen eta aztertzen baldin baditu. Edozein politika-joe ran "agintea erriaren onerako erabilli bear da". Beraz, agintariak Jainkoaren lege aurkako zerbait egin edo agintzen baldin badu edo jatorrizko-legearen kontra, edo guzien onerako ez datorren zerbait burutu, edo onelako zerbait egin baleza, Elizak erriaren matxinadarako eskubidea on-etsi egiten du, agintariak, erriak beregan utzi duan agintea legetik kanpora eta lage aurka erabilli dualako.

Zeintzuk dira, beraz, kristau-demokrazien erren ezaugarri agirienak? Luigi Sturzo 'k dakarenez



auek ditugu kristau-demokrazia beste politika-bideaz bereizten duten ezaugarriak: 1- Egungo demokraziak eta kristau-demokraziak bat datoz egizko demokrazia "erriaren gobernatzea, erriarentzako gobernatzea, eta erriagatik gobernatzea" dala adieraziz. 2- Elitzake demokrazi izango esan bearrak esateko, eta idazteko, eta biltzeko eta laguntzeko askatasunik ezpalego. Baña askatasun auek beti beren arauak eduki bear dituzte, onak diralakoan, erriarentzat kaltegarri gerta ez ditezen neurritik kanpora irtenaz. 3- Demokraziak ezin dezake bizirik izan eta bear bezela jardun parlamenturik gabe; onezaz gañera estado-almenak bear bezela bereiztu bear dira demokrazi batean: auek dira, legeak emateko almena, eman legeak betearaztekoa, eta epaitzerakoa. 4- Demokrazi bat ezin diteke amestu ere, erriartekoetan ekonomi-mallak sortzen dituan burrukak eta gorrotoak nolabaita ezerezteko bideak ezarri gabe: bidea, gizarte-zuzentasuna.

Demokraziaren ezaugarri auek ekarri ondoren galdera bat egin genezake: ba ote da demokrazirik askatasunik gabe?

Demokraziaren ezaugarrietan "erria" itza erabilli degu sarritan, eta egitar itza alik egokien artu bear da. Mons. Franceschi 'k Pio XII garrenaren demokraziari buruzko itzaldi bateri egiten dion iruzkiñean "erria" era ontan aditu bear dala esaten digu: "Ez da matematika-arauzko gizon-emakume guzien pillatze uts bat Erria, ez; nor-izan edo persona guzien billera bat, sendi-biltze bat, langintzakoan baltzu bat, ikastetxe eta beste edozelako bilkuntzen elkartze bat baizik... Orregatik gobernu-egituratan, erri osoaren bizitz-taupadak euki bear dute beren txokoa. Bestela erriaren parte-artzea eta bere ordezkioak beren tokia gobernuan edukitzea, itxura utsa eta bidegabekeria besterik ez litzake izango". Demokrazirik ba ote dago, ba, askatasunik gabeko erri batean?

Ciceron 'ek zionez "askatasuna, agintean parte artzea da", eta arrazoi zuan alde ontatik begiratuta, alegia, erriarren eskubidea eta politika aldetiko askatasun alde bikote ontatik begiratuz gero. Erriak agintean parte artzeko daukan eskubide ori aldakaitza ta inork kendu cziñezkoa

da. Askatasun au dagon bitartean egizko demokrazian bizi gerala esan bai genezake; alderantziz, ametsezko demokrazia litzake noski. Ekarri ditza-gun berriro onera Maritain'en itz batzuk askatasunaz; Erdi Aroko Eliza eta Estadoa bat eginda bizi ziralaz diardula onela dio: "...Elizak ba-du bere soroa, eta Estadoak ere bai berea... Orregatik orain tokia demokraziarentzat dala esan genezake, joan gizaldiko zalaparta ta utsune-akatsak beindik ikusita. Era ontan kristau-arnasean tinkotuta dagon politika-joera batek, eta politika-joera orren eragiña jasoko duan erri batek, egi batzuen berri ondo jakin bear du; egi oiek zimentutzat artutzeke ezin baiditeke ondo eratu gizon askeen erri bat". "Au da lenengo egia:askatasun egia". "Askatasun egi ori sinistu bear dala esaterakoan, ez dugu inor erlijiozko egi bat sinisterra beartu nai, Erdi Aro artan bezela. Egi auk ez dira erlijio-egiak, dogma-egiak, erriarteko ta gizartekoak baizik. Izan ere, demokrazi batek ezin dezake inor erlijiozko egi bat sinisterra beartu, ez bait da au bere lepo dagon kontua".

Arlo onetaz diardula beste egi batzuk ere esaten ditu: Estadoak mota ontako sinismen au pizteko baditu bere eskubide eta betebearrak; gizarteko pake ta alkartasuna lortu aal izateko, askatasun sinismen au azikera edo edukazio egokiaren bidez lortu diteke. Demokrazi-sentipen ori bizi gordetzeko biderik ziurrena askatasun-sinismen orreri nolabait itxituta bizitzea da. Nolabait esan det, bide ezberdiñak eraman gaitzatekenez jokaera ori onartzea: katoliko, sozialista, erregezale, liberal eta abar...jokaera berdiña euki dezateke erri baten ontasuna darabilkitenean xedetzat...naiz-ta erlijio aldetik norbera bere bidetik joan, beste guzien ideaganko begirunez ornituta. Itz batean, demokrazi-zale estado batek bere gain artu bear du bere menpekoetan askatasun-sinismen baliotsu au lantzea, gizartearen onerako, "askatasun au gabe ez bait dago demokrazirik".

Asieran esan degunez, kristau demokrazia-  
ren lenengo eragiñak gizarte-arazoetan nabaritu  
ziran, baña, bide batez, politika-soroan ere murgildu  
ziran, gizarte-arazoak zerikusi aundia bai daukate  
politikarekin.

## POLITIKA-EGITURA.

Erabat demokrazi-zalea dugu. Ezin dezake inñolaz ere "jauntxokeri" edo diktadurak onartu. Naiz-ta diktadura auek, itxuraz, kristau edo katoliko balioak gorde, egitan ezin dezakete politika-joera au legetu inñundik.

Orregatik, jauntxokerien aurkako dugu beti demokrazi-zalea, baina kontrakoa izan-arren "bidezko etzaizkion biderik ezin dezazke erabilli bere elburua ardiesteko; gizakia begirunez eta egokitasunez eriztea bait da urrezko araua kristau bat araberakatzeko".

Politika-alorreko beste lan bat demokratizte-saioa da. Demokratizte-lan onek giza-baitan du bere asiera: barneak eta jatorrizko-legeak ageri-agerian erakusten baidiote gizarteak baduala inork kendu ezin dezaioken eskubide bat, au da, erri-agintean edo gobernuan parte artzeko eskubidea; eta eskubideak norbaitek txietsi balitza, eta erabat jauntxotu erritarrak bidegabekez eta giza-legetik kanpo menperatuz, gizarteak zillegi zaizkion edotariko bideak autatu eta erabiliko ditu, arek eta eskubide orrezaz berriro nausitu arte.

## EKONOMI-EGITURA.

Ekonomi-saillean kristau-demokrazi-zaleak batasuna, anaitasuna eta elkartasunezko bizitzaren begirale sutsuak ditugu. Norberekerietan errotuta ikusten dan ekonomia lurperatu nai dute, beste zimenduetan, alkartasunezkoetan eraikitze beren ekonomi ori: norberekeriak eraginda sortzen edo gordetzen dan ekonomiak liberalen kapitalismo-usai okagarria darama. Beraz, ekonomi-soroan kristau-demokraziaren xedea langilleen alkartasuna eta lan-elkartasunak sortzean dauzkagu". Kapitalismoari norberekoikeria dario, lurrun koipetsu ta lurkoia. Era ortan Estadoak, nagusien eta aundikien ordezeko bezela beraien naikeriak estaltzeko aitzaki balitz, ez luke bizitzeko eskubiderik izango. Kristau-demokraziarentzat Estadoa ez da aundikien norberekerien estalgarri, guzien on eta aurrerapenen suspergarri baizik.

Gizakiak politika-arazotan bere eskubideak dituaneez, eskubide onen indarra eta eragiña ekonomi-sailletara ere eraman nai izan ditu.

Noizbait pentsatu zan demokraziak ezin zitzazke-ala langille-mallaren eskabideak asetu. Ba-du bai bere arrazoa pentsakera oker onek: izan ere XIX garren gizaldian demokrazia kapitalista eta jauntxoan eskutan zegoan, eta oek langilleen bearrak bete ordez, suntsitu naika jokatu ziran. Kristau-demokrazia etorri arteño... Gobernua edo Estadao sartu diteke ekonomi-arazoetan, baña ekonomi-askatasuna inholaz ere ez zauritzeko baldintzarekin.

Kristau-demokraziak politikan eta ekonomian artu dezaketen tartea ikutu besterik ez dugu egin, mota askotako aukeratu baiditezke xede ori burutzeko, batez ere ekonomi-arazo auetan, eta, ekonomi-arazo auekin lotuta, gizarte ta langille arazoetan. Bide berriak urratzen ari dirala, ainbeste naasketa ta buruausteen erabaki-iturri, ezin dugu ukatu. Aldiak emango digu erantzuna...

Baña ez dezagun pentsatu demokrazian dena askatasuna danik. Demokraziak ere ba-ditu bere mugak: aginte beraren izateari darizkionak, eta demokrazi-kerari dagozkionak. Luigi Sturzo<sup>k</sup> iru muga ezartzen dizkio demokraziari: a- erria ez du aukeratzalle-sallak gobernatzan, nortzuk goberna bear duten aukeratu baizik. Sail au ez dabil uneoro gobernu-gizon oien atzetik, azterketa zeatz bat egin nai balu bezela; moral-arauzko kontrol bat darama, aukeratzalle-sail ori berrituz eta erriatarren iritzi ageriak bilduz. Gobernu-arlo guzien zeatz-meatzak ez dituzte askatzen, jarraibide bakanenak, egitarauak irasi baizik. Erria ta agintariak elkarren muga dira, legeko muga. b- Erritarrai esi berezi bat ezartzen die lege-moralak. Erriak berak aukeratu duan lege bat lege moraletik at baldin badago, lege ori moral aurkakoa dala dakian gizakiak ez du betebear; baña legezkoarekin ondo etortzeko eman duten oietxek kendu bear dute lege oker ori. Beraz, erri-tarraí erriaren iritziak jaso bear dituzten oiek eragozpen aundienak ipiñi bear dizkiete, baldin mota ontako lege aizun bat ezarri nai baldin ba-dute. Etika-muga au oso berezkoa zaio aginteari, giza-legetan tinkotua baldago aginte ori. d-

Irugarren muga demokraziaren izate berak ematen digu. Ezin ditezke aaztu beste politika demokrazi aurkako joerak; beraz, erriari beste muga ezartzen zaio berak autatako Legedia ez austeko itzemana-raziz. Legedia bera eraiki duan erriak atalen bat aldatu dezakeala egia da; baña, ezin diteke joan legediari darion espiritu eño gogoaren aurka. Muga auek betetzeke ezin genezake demokrazia zer-tzera iritxi.

Egun, mundu zabalean nabari dan politika-joera bikain ontan Erria dugu, alde guzietatik begiratuta, muiña. Erriak ditu eskubiderik baliotsue-nak, eta erriak betebearrik nagusienak. Baña erri-tan gizakiak ditugu eskubide eta betebear oien jabe, eta erritarrai eman bear zaie azikera egokia demokrazi-lanak ondorio egokiak eta iraunkorrak emango ba ditu. Politika aldetik, ekonomi aldetik, kultura aldetik begiratuta ere, beti gizakia dugu guzi oien eusgarri. Askatasuna eta demokrazia ez dira aberastasun politikoak, gogozkoak edo giza-barneari darizkion aberastasunak baizik. Eta eza-gutu, maitatu, eta zabaldu egin bear dira, oñarriztat Egia eta Maitasuna ditualarik: oek gutxitan ditu-gularik gizartea leize illunean murgiltzen bait da, Kondaira lekuko. Orregatik jakin egin bear di-tu askatasun eta demokrazia zer diran, eta zeintzuk diran bere betebear eta erantzun-bearrak. Era or-tan, gizartean Leon XIII garrenek L. Harmel'eri es-kutitz batean zion ura zertuko da:

- " Demokrazia egiz kristaua baldin ba da, erriari zoriona, aurrerapena eta pakea emango dio etorkizunak".

Iñaki Bereziartua.

Arantzazu.

---

# APAIZA

## GIZARTE-ARAZOAN

Jaungoikoak gizona atsegin-baratzan jartzean, askatasuna eman zion, ongia edo txara egiteko eskubidea, alegia. Eman bazion ere, eta etsaiak etsai beti, eriotz, neke, itzez betetako sagarra eskelñiaz pekatuan erortzera bultzatu zuan. Eta Jaungoikoak berak irazandako gizonaren esker txarra ikusi zuanean, "ire bekokiko izerdiaz jango duk" (Gen. 3,19), esan zion esker-gaiztoko gizonari. Orduzkerotik ba-daki nekezko lanaren berri. Goizean-goiz esnatuta, erlojuari begi erdi-itxiekin begiratuaz, ixil-ixillik, itz egitera ausartu ere gabe, bestaldera jiratxo bat egin, segundu batera berriz, len egoera artzeko... Eguneke lan eta nekeak gogoratuaz oetik irtetzeko adorerik ez du. Baña joaten ez banaiz, biar ogia nork ekarriko? Jas... bat egin eta jeiki egin bear! Oe ertzean exerita ari da bere jantzetan... Galtzak eta alkandora koipez zinkinduta... esku-biko galtzerdia sartzean beatz aundia iñoren baimenikan gabe zulotik aurrera... oropoa ere naiko agerian...

Gosari legea egin eta etxetik irtetzerakoan aruntz-onuntz dabillen jendearekin topatzen da. -Ala ere ez nauk bakarra! Nola izango bada bakarra orrenbesteko jendetza beren lanetara joaten ikusita?

Or dijoazkigu langilleak, bai pabrike-tara, bai arrobiko arkaitzetara, bai mina zulora; bañan ori bai, danak lanera; langille guztiak sa-riaren atzetik, ogiaren billa. Egunean zortzi or-duk gora lanean igarota ematen ematen zaien sa-ri koxkorraz bear-bearrezko gauzak ere ezin erosi. Egun guztian lanean izerdi-patxetan eta patrikan bots txakur-aundirik ere ez.

Ondo bizi diran langilleak ere ba-dira, esango da; ondo bizi badira bizi guztian jarrai dezatela bere ortan; baña, ondo bizi diranak ere ba-dirala-ta orregatik, ez dago guztia egiña.

Pixkana-oixkanaka, bakar eta laguntza-rikan gabe, lotuen antzo, jauntxo batzuen atza-parretan arkitu dirala, digu Leo XIII garrenak "Rerum Novarum" ean. Langilleen biziera onek, guda, ilketa, eta anaien artean amorru bizia ere piztu du.

Amar edo ordu lanean pabriketetan egin-da, neka-neka egiñik, etxeratze orduko pameliko go-zotasunak miazteko gai nola izango? Jaungoikoare-kiko egin-bearrak betetzeko ardura nola izango? Langilleak, lan-sailletan nekatuta, beartuta, pame-li ta Elizara baño tabernetara, galtokietara gei-ago joko du.

"Gizonak, geienean, zalapartak, giza-gaitzak minberatzen ditu; baña zer da au guztia sinismen-begietan animaen galtzea ikusita?" (Quadragesimi-mo anno) Pio XI garrenak bai ederki erakusten di-gula! Zer dira mundu ontako diru-paltak, izerdi-ta malko, gaitz eta zoritxar, geroko atsegin bi-ziaz konparatuta?

"Homo technicus" deitu dio norbaitek XX garren gizaldiko gizon oni. Izan ere, ba ote, gizonakazken urte auetan asmatu gabekorik...? Naiz industri kontuan, naiz fisika, naiz kimika kontuan, gizonaren urte auetako aurrerapena aun-dia izan da. Aurrerapena, aurrerapena, aurrera-pena! Deadar egiñaz buru-biotz osoz munduko gau-za guzien jabe biurtzeko alegiñetan. Eta jakiña, gizonaren kristau-bizitza materialismoak aisa zapalduta arkitu dugu. Txanpon bat bederen es-kuratzearren, goseak ez iltzearren, materiari eldu bearrean arkitu da langillea.

Ni ez baña, Aita Santua da gertaera mingarri auen berri ematen diguna. Pio XI'gnak bere "Quadragesimo anno" an onela jarraitzen du: "Gizasaill aundi bat bere eginbide bakarrari jarraitzeko, anima zeruratzeko korapillo nastuenak askatu bearran arkitzen da".

Aita Santuak biotzminduta, gauza auek guziak ezin eramanik, langille ta nagusiekin artu-manak dituzteneri oiugogotsu bat egiten die. Aita Santuaren dei oneri erantzutea da ba gizarte galean eleiz-gizoneri dagokien eginbearra. Apaiza, benetako apaiza, munduko gertaeran joera ikusita, kristauen bizitza (barne bizitza) esku txarretan ikusirik, besoak tolestatuta egongo? Nai ta nai ez Aita Santuen deiak biziki eragingo du bai apizen biotz-barnean gizarte-zaletasun aipagarri ori.

Gaur arte langille-kontuan zebiltzen apaizei "giza-apaizak" esan oi zitzaien; eta apaiz auek gutxi izan arren ba-zirudian munduko bearrak garai bakoitzean eskatzen zuten ainean betetzeko lain zirala edo; gaur egun ordea, gizarteak egin duan aurrerapenarekin, langille-taldeak egin duten zorioneko aurrerapenarekin, apaiz sail batzuek ontaratzeta ez da naiko, gaur-eguneko eginbearrak bete nai baditugu guztiek eta bakoitzak gizarte-apaiz izan bear dugu. Ez dugu noski esan nai, apaizak zaletasun guzia ontara zuzendu bear duanik. Apaiza, ben-benetako apaiza izan dedilla; mundu ontako gaiztakeri, gorroto ta makurkeriek ikusita, bera Jaungoikoaren ordezkari, animaen aita ta zuzendari izan dedilla; au, eta besterik ez da apaizari eskatzen zaiona.

Aita Santuak ederki agertu dizkigute langilleak gorputzari dagokionetan dituzten bearrak. Era bat edo bestean danak esan nai digute, gizatalde aundi bat gizonari dagokion eran ez dala bizi; bear gorrian arkitzen dala; iñoren laguntzarikan gabe, jauntxo batzuen aurrean...

Eta kristautasunean? Urte auetakoak ditugu langille-taldeen Kristo'gandik aldentze mingarri oiek. Ezaguna da Pio XI'gnak Kardijn apaiz agurgarriari ziona: "XIX'garren gizaldiko gaitzik nagusiena, Eleizaren babesetik langille-taldearen aldentzea dugu. Langilleak Eleizaren doktriñean ez dute uste onik, eta milloika langileak



Eleizari atzea emanaz, lagunarte okerretara joa-nak dira. Pio XII garrenak berak ere beste orren-beste zion Kardijn apaiz agurgarri oni: "Sozialis-moa eta Komunismoa ez dira Eleizarentzat arrisku-rik aundienak, ; langille-taldeak Eleiz-doktriña ori ez jakitea da Eleizarentzat nagsiena".

Aita Santuaren deia entzun dugu bada, eta sotanadun orok batez ere, jo ta ke, su ta gar lara egin bearrean gera. Ezti platerera da-torren elbiari begira ezin egongo gera.

### BAÑA NOR DUGU ELEIZA GAUZ AURTAN SARTZEKO?

Galdera onekin libeladarrak etortzen zaizkigu. Liberalismoaren naietako bat Elizari gizarte-arazoetako eskubidea kentzea, ukatzea da, alegia. (Geroxeago emango diegu erantzuna). Orregatik, apaizen bat gizarte-kontutan ikusten badute, egingo ere dute alegiña bere ortatik bo-tatzeko, eginbidetik kanpora dabillela edo mokoa bear baño geiago luzatu dula, edo asmatuta. Baña apaizak, gizarte-kontuan dabillen apaiza, bere egiteko batean dabillela jakin bear du!

Aita Santuak, etsaiak dioteneri aurka egiñez Eleizari dagokion eskubidea, gizarte-auzian dagokion eskubide su argi erakutsi dute beti. Esa-tea ez dala aski ta, ikusi dezagun:

Leo XIII gnak onela dio:

"Gizarte-auzi lanean uste on eta esku-bide guziarekin jardungo dugu; Eleiza ta Erlijioa aldendu benetako korapillo askatzerik ez baidugu arkituko." "Alperrikakoa lirake egite guztiak"-dio geroxeago- (Rerum Novarum). Eta Aita Santu berak, Leo XIII gn. aundiak beste alderdi batean esaten digu: "Gizarte-arazoa ekonomi-gaia bakarrk dala askok uste dute, baña lenen erlijio ta zi-llegizti-gai bat dugu" (Rerum Novarum).

Pio XI gnak:

Bere aurretik Eleiza bide/zuzenetik ain ederki eraman zuan Aita Santu Leon XIII ga-rrenari jarraituki, Pio XI garrenak auxe digu egi mardultzat: "Eleizak gizarte-arazoak nausitasun guztiaz erabakitzeko eskubidea berekikoa du".

Baña Eleizak, gogozko eta erlijio-famili bat danez, goitar eta aldi orozko elburuak dituaarik, nundik nora du, gañera, lurreko gauzen joera neurtzeko eskubidea? Pio XI garrenak beti bezela, gauza ederki azaltzen digu. Berak gizartiztian bi alderdi bereizten ditu: teknika eta mugokorra, eta erlijio eta zillegizti alderdiak alegia. Agian, gizarte kontuan eta politikan ere arkitu oi ditugu teknika eta mugokor uts diran gauza asko. Gauza auetan, noski, Eleiza etzaigu sartzen, nola sartuko da ba, zereginik ez baldin ba dauka? Baña aldi berean, gizarte kontuan eta politikan teknika eta mugokor uts diran gaiak ez-ezik, erlijio eta zilleztiarekin zerikusirik asko duten gaiak ere ugari ditugu. Eta gai auetan, teknika eta mugokor diralako, ez-baña, erlijio eta zillegiztiarekin zerikusirik ditelako baño, Eleizakgauza guzti auek egiztatzeko eta nautitasun guztiaz egiztatzeko zeregiña ta eskubidea berekikoak ditu.

Liberaldarrak eta ekonomilariek beren uste okerra egiztatzeko ekonomi eta politikaren desberdiñera jotzen dute. Guk ere desberdiña argi ikusten dugu; izatezgo eta jomuga ere desberdiña bai dute. Baña desberdintza orrek ez dakar berez-kuntzarik; gorputz eta anima bi gauz desberdiñak ditugu; baña orregatik ez bi gauz bereziak; ondo bañuta egon ere, alajaña, bestela ez gorputz eta ez ezer bai lirake. Eta batasun oneri esker ekonomi ta politikak erlijio eta zillegiztiarekin dute zerikusia; azkenengo bi auek goitiak diralako; bi leneñoak, ekonomiak eta politikak, oñarriak zillegiztitan dituztelako, alegia. Gizonak, Jainko mirabe, jomuga batekin gogo-mallan batean jarria, bere egite guziak naiz ekonomi, naiz politika, azken jomugara zuzendu bear ditu: Jainkoa goratuaz anima salbatu. Jaungoikoak gizonari betidanik jarri zion jomuga, ikusten dugunez, erlijio egi bat dalarik, onela ekonomi eta politika egon bear dute erlijio eta zillegiztiaren menpean.

Ikusi dugu gizarte-arazoan Eleizaren eginbearra, eta eginbear ortarako eskubidea Pio XI garrenak ager digunez.

Pio XII garrenak:

Materialismo-kutsuz asetako egun auetan, Eleizaren agintearitza ain ederki daraman Pio XII

garrenak ere, Erromako alkian eserita Eleizaren zuzendari izan diran bere aurreko Leo XIII garren Pio XI garren Aita Santuen dotriña begiz-begi ederki jarri digu. Aita Santuak "Rerum Novarum" en zillar-etzaitan, Leo XIII garrenaren dotriña ageri zigun, au da, gizarte-auzian Eleizaren eskubidea.

Giza-arazoan erabilli dute Aita Santuok adierazi digutenez, Eleizaren gauza auetarako eskubidea argi azaltzen da.

Auek guztiak onela dirala, esan deikegu:

1) Kristo ren Eleizak, gizarte-gai auek erlijio ta zilegiztitik dutenagatik, du gai auekin zer ikusia.

2) Berari dagokiola, gizarte arazoak aintzakotzat artu bear dituan len oiñarriak jartztea.

3) Len oiñarri oiek Jainko naiarekin bat ote diran-edo begiratzea ere bai.

4) Berari, Eleizari dagokiola, kristauen azikera.

Langilleak ditugu gaur benetako egoera negargarrian arkitzen ditugunak. Urrutira joan gabe Pio XII gnak "Katoliko langilleen gaztediari" egindako itzaldian onela agertzen digu langilleari gertatzen zaiona: "... geienean oso bizi zailla eraman bearrean arkitzen dira; ajolakaberria, zigorra eta ikasbide txarra besterik ez dute arkitzen; erakutsi zatarrak bereganatzen dijoaz poliki-poliki, gizon arteko burruka eta gorrotoa ikusten eta laister galtzen dituzten, batzutan batzutan bizirago, beren alaitasun atsegin eta amets ederrenak, eta berealaxe sumintzen eta biurritzen dira". (YAKIN, 5, Balerdi).

#### LAN AU BEREZIKI, NORTZUK EGIN BEAR DUTE?

Igazko Katoliko Langille Gaztediaren Billera zoragarria, mundu guztian entzuna izan zan. Katoliko-langille dira neska-mutillen sinismen berritze eder bat izan zan benetan. Ain ikuskizun xamurra ikustean Aita Santua ezin ixillik egon. Eman ere, eman zizkien konseju eder-goitarak. Une batean onakoxe au zien: "Milloika gazte dira oraindik seme-alaba maiteok, eriotza baño lokari

astunagoz loturik; txirotasunari, gezurrari eta bizi txarrari lotuak. Auek ikusi ta negar bakañik ez egin. Kristo, bere indar eta guzti, zuekin duzute; indar onek etsaiak atzera-araziko ditu. Zozte beraz suaz beterik biotz aiengana eta Berri-Ona zabaldu zaiezute ots aundiz, baita ere Jaungoikoak zueri, aientzat ordea, zabaldu dizkizuten berpizte ta bizi diran itz aiek: "Ene anai, zatoz egi-bidera, zatoz argira, zatoz maitasunera" (YAKIN, 5, Balerdi).

Aita Santuak esaten digu au, kristauen egitekoa baldin bada, apaizak zer ez ote du egin bear? Eleiza ain arduratsu jardun bada gizarte-arazo au bide zabal eta onetik zuzentzen; Erroma-ko Alki gainetik zer edo zer egin dezaketeneri laguntza eske eta langille ta nagusiak eleiz-baratzara ekartzearren ouka ari bada; apaizak, Kristoren apaizak, eleizgizonak, nola aaztuko ba gizonen artu-emanak, artu-eman oietan jokutzen baidu gizonak bere geroko bizitz guztia.

Beste aldetik berriz, garbi ikusi dugu Eleizaren joera eta apaizak lan egin beza Eleizaren bideetan; eta berari jarraitzen badio bide txarrera jotzeko bildur ez beza izan.

Aita Santuak esan digute gizarte-lan au apaizen eginbear bat dala. Lieja'ko gotzai Douletroux Jaunari Leo XIII'gnak esaten zion: "Apaizak erriarengana irten bitez. Eliz eta apaiz-etxeetan ezin ditezke egon." Nik, jarraitzen du Gotzai Jaunak, langille-elkarteak zirela bide, batzuegan sortutako kezka adierazi nizekion; eta Aita Santuak itz bizi auek esan zizkidan: "Zer? Langilleak sozialismo eta rebuluziora bidali nai al ditugu? Zuen apaizen artean erriarengana joateko gogo bero ori eragin bear duzute; gaurko egunean ezin ditezke sakristi ta apaiz-etzetan bakarrik egon".

"Graves de Communi" enziklikan ere beste orrenbeste agertzen digu: "Irten erriarengana, bera etorri zai egon gabe; bera beste alde batera bultzatua izan baida".

Bein batean, audientzi bat zala-ta, sozialismoak erabat jota zeukan Regio d'Emilia Eleiz barrutiko Gotzai berria etorri zitzaion. -"Nola jokatu zera?"- galde egin zion bigunki. -Nik, Jauna, gizarte-eginkizunak nere apostoladutza guztiaren

oiñarri jarriko ditut". -"Bejondaizula, bejondeizula!" -jaraiki zion Aita Santuak.

Pio XI<sup>gnak</sup> ere bere enziklika "Divini Redemptoris" ean, apaizei deadar egiten die: "Zozate langilleengana, batez ere langille beartsuengana, eta beti beartsuengana. Apaiza beartsuengana, langilleengana joaten ez bada bereala komunismoak zapalduko baiditu". Baña au ez danaiko. Geiago ere bai: "Apaizak, jarraitzen bai du, parroketan, eleiz- artaldearen bearrak ondo beteaz alegia, gorde bitzate indar nagusienak langille taldeak, Jaunaganatzeko."

Eta Pio XII<sup>gnak</sup> "Mentis Nostrae" enziklikan onela itz egiten digu: "Apaizak Jesukristo<sup>rri</sup> jarraituaz, beartsu ta langilleen bearretara nai ta naiez joan bearko dute". 1954<sup>ko</sup> Eguberri-egunean egindako itzaldian: "Gaur-eguneko makurkerien aurrean begi-aoak ixten dituzten apaizak ez dute garbi jokutzen". 1948<sup>ko</sup> Abenduaren 4<sup>an</sup> Kaputxinoen agintari Nagusiari: "Norberaren izerdia langilleenarenaz batu; langilleen gogo-bioztetik gezurra aldendu ta egira eragin; gorrotoak minduta dauzkan anaiak Jainko-maitasuna ixuriaz gozatu". Ta gerorago: "Eta batez ere, ikusarazi dezaiela Eleiza beren ama xamurra dutela, geroko zero-bizitza ez ezean beren zoritxarra arindu naiean dabillen ama on-ona, baña ez itz gezurti iskanbil eta indarraren bitartez, zuzenbide, lege berdiñ eta gizarte-malla arteko elkar-pakea erakutsiaz".

~ ~ ~

Apaizgintzan begiak jarririk Eleizikas-tetxetan aurrera goazen apaizgaiok, guziok dakigu gizarte-gai auetan apaizaren egin bearra. Jakiñakin bakarrik ez al gera geldituko. Munduan ainbeste negar-malko ikusteak gure biotz gazte xamurrak eraginda, Aita Santuak agintzen diguten eran langilleen biotz garratzak goxatuko al ditugu.

Dorronsoro<sup>tar</sup> Yokin

Villaro<sup>ko</sup> Sakramentinoa.

# Los Rios'ko

# MIXIOARI BURUZ

ITZ BITAN KONDRAIRA

Sarrera gisa. -

Los Rios'ko mixioaren izenean Gure Eleizbarutiko mixio-lurralde guztiak ar-tzen ditugu.

"Euskal-mixio-lurralde oien egunaren" inguruan gabiltz eta egoki eta bearrezkoa noizba-teko batean beñik ere oien berri euskeraz ematea. Ta "Yakin" en ematea derizkiot omena. Biok euskal-dun guztionak baitira. Bi auek ez dira ez gureak, ez zuenak, eta ez alienak, euskaldun guztionak baizik, naiz lekaideak edo apaizak edo galtzadun soillak izan auek.

Euskaldunon azken urteetako garaipen eta gertaerik aundien eta berezietako bat dugu Eleizbarrutiko mixio au. Ontaz asko itzegin eta idatzi da, baña ala ta guztiz ere zertxonait zarberritu eta euskeraz ekartzea bidezkoa derizkiot. Aspergarri gertatzen bazalazute nerea da errua eta ez gaiarena ezta zuen mixioekiko oztasunarena ere.

Ez dabil nere lan euskal-jakintza, itz berri, joskera eder eta gogai sakonez jaztearren; ez. Beste elburu bat du nere lan onek: Aita Santuak gudan jarri duan uste osoa ikustaraztea, Eleiz guztia gure jokaeraribegira dagola jakinñaraztea, gurekin ikusketa bat egiten ari dala adieraztea, mixioen etorkizun ohea gure eskuetan egon liteke-la esatea, alegia. Oraingoz gertaera bakarrik azter-tuko dugu, au da, mixio au nola sortu zan. Beste lan-

txo bateangeroxeago baiestatzeko guztia ikusiko dugu "Fidei donum" eskutitzaren erakutsien argiz.

Au guztia badakizutela erantzungo didazute. Bai noski. Ta nik bezin ondo gañera. Ala ta guztiz ere "zarrak berri, gazteen entretenigarri" oi dirala-ta, ontaz euskeraz ez dala ezer esan da, ...maite duguna beti zaigula izketa-gai goxo ta, atsegin da. "Yakin" en babespera nator lotsa ta bildur.

Asi gaitean beraz gauzak diran bezela alik eta ondoen eta laburren esaten.

#### NUN GOGOA AN ZANGOA.

"Euskalerrri mixiolari" esan oi da. Izan ere Xto<sup>o</sup> ren Berri Ona, Aren goierakusaldiak zabaltzera eragiten bai dio bere kristau sinismen sendoak. Kristau sinismenaren barne muiñean mixio-espas oti irakiten dakusgu. Oitura on ederrez eta Jaungoikoarenganako maitasun beroz inguraturik bizi izan bai gera.

"Zugaitz onak igali onak" zion Jesus<sup>o</sup> ek. Euskalerrriko kristau sinismenak mixio-igali bikain eta mardulak besterik ezin eman zezazkean, beraz. Euskaldunen ametsa Kristo bazter guztietan maitaraztea, Bere Jainkozko erakutsaldiak munduko lau aldeetara barreiatzea. Nola bete asmo zerutar oiek? " Nun gogoa an zangoa".

#### APAIZTEGIA AMESKABI.

Apaizgaitegia da elizbarrutiko kristau bizitzaren biotz eta muñ. Biotz ori indartsu, bizkor baldin badago, Elizbarrutiak ere gordin, kementsu, sendo iraungo du kristau sinismen eta bizitzan. Gazteiz<sup>o</sup> ko apaizgaitegi sonatua zan, garai artako Elizbarrutiko bizitzaren iturburu. Arabar, Bizkai<sup>o</sup> tar ta Gipuzkoa<sup>o</sup> r guztion apaiz-mintegiko buru-biotzak amets goitar batek asetzen zitu: Mixio lurralde bat euren gain artzeak alegia.

Aspalditik mixioen alde lanean ari zan apaizgai-etxe au. Lenik, otoitzaren bidez. Praille ta moja-etxe askotatik, baita ikastoletatik ere, mixioen alde otoitz ugari ta beroak igotzen ziran Jainkoaren aurreraño apaizgaitegi onen ereduari jarrituz ta bere esanera bilduz.

Kristo' ren Berri-Ona lenbaitlen mixio-lurraldetan zabaldu zedin otoitz egiteko gogo ta arreta sutu zuan beraz beste Euskalerriko etxe askotan ere. Ortaz gainera Elizbarruti osoan sortzen saiatu zan mixio-grina au Sagarmina'tar apaiz jauna buru zalarik. Lan eder eta bikaina apaiz au zala-ta egin zan mixio-lan ura! Izan ere beraren babespean antolatu, indartu ta batu baizan era guztietako mixio-lanketa Gazteiz'ko Eliz-barruti osoan.

Baña ori ez da naikoa. Kristau sinismena zabaltzeko gogo orrek gure animetan ondo itsatsiz, biotz biotzeraño zaiñak zabaltzen dituanen, ez da asetzen emendik aien alde otoitz eta lan egiñez bakarrik; ez. Geiago nai izaten da. Zergaitik ez joan neroni mixiolari sinisgabean artera? Kezka onexek bere barrua sutzen du. Jainkoaren deia suma du biotz barrunean. Zergaitik ez erantzun goi-dei orri?

Onelaxe apizgai batzuek joan zitan Burgos'ko mixiolarigaitegira gogo orri jarraituz. Burgos'ko mixiolarigai etxea mixio lurraldetara joan nai zuten apaizgai ta apaizentzako sortua zan. Lekaide sartu gabe mixiolari izan nai zutenentzako beraz; baño lekaideen gisa. Uk ordea mixioetara joan arren apiz soil soillak besterik ez genun izan nai. Elizbarruti oso osoa mixiolari biurtzea zan gure gogo. Nola iritxi ori?

#### SATURRARAN'GO BILLERA.

Urteoroko billera egiten ari zan mixioedazle sail bat. Egun zoragarriak benetan egun aiek!

Apaizbiltoki izan da beti Saturrarán. Udazkeneko egoaize epelak orbela txokounetara biltzen duan bezela Euskalerriko apaizak ere Gipuzkoa'ko baztar artan biltzen ditu animenganako zaletasun eta egarriak. Emengo apaizen atsedentoki, "ames-kabi, otoitz-leku", izan oi da mendi tartean izkarik dagon apaizgaitegi ura. Mendiz eta itxasoz inguratubik dagon ames-kabi. Zenbat eta zenbat amets mixio-billera egun aietan ere. Añ zion Jesulagundiko Aita batek batzar aietako alkarrizketa beroan: "Zergatik ez du Gazteiz'ko Elizbarrutiak ber gain mixio-lurralde bat artzen?



Baña ez al zegon, ba, Burgos'ko mixiolarigaitegia? Bai, egia. Baña ikastetxe orri itzalik egin gabe ezin al zezakean Elizbarruti ark mixio-lurralde bat bere gain artu? Ez al litzake guztiontzako mesedegarri izango? Jesulagun aren atera[diak astakeria zirudian alde batera, bestera berriz ango apaiz ta apaizgaiei biotz-kilima egin zien. Pozgarria zan benetan burutapen ura!

An ziran apaizgai guztiak ere.... Bazarraren atzena danen aurrean izan zan... ta danen buru-biotzetan asmo au zebillen irakiten: zergaitik mixio-lurralde baten jabe ez egin Gazteiz'ko Elizbarrutiko ok?

Apaiz eta apaizgaien zoramen eta berotasuna ikusirik onela itz egin zuan billeraren bukeran beretzako apaizbilla etorri zan Malaga'ko Gotzai Jaunak: " Mixio-lurraldetara joan al izate orrek sortu duan poza ta sua ikusirik zearo alde batera uzten dut toki ontara bultza ta ekarri ninduan asmoa. Eder ta zoragarria iruditzen zait gogapen ori ta biziro txalotzen ditut mixioetara joan nai duten apaiz guztiak. Ba-dakit, ondotxo gahera, an lan eta bear aundiagoa dagoela. Txit pozik utziko nieke, beraz, mixioetara joaten, nerekin Malaga'ra etorri nai luteken guztiei ere ".

Ala ta guztiz ere eziñezkoa zan orduan. Beste era berri batera Kristo'ren Berri Ona zabaldu bear baizan. Ordurarte praille-etxe edo praille-en antzera bilduta mixio-lurralde bat artzen zan. Orain berriz, Elizbarruti oso osoa, apaiz eta galtzadun soillak mixio-lurralde baten jabe egingo ziran. Nola asmo ura mamitu? Zailla zan benetan. Baña apaizgai guztien biotzetan ondo itsatsia gelditu zan bein betiko amets ura. Ori 1928'ko udaran gertatu zan...

Urteak joan eta urteak etorri, denbora asko igaro zan. Apaiz aiek euren lekuetara sakabanatu ziran. Apaizgaitegian ordea Saturraran'en erretako asmo ura azitzen, eltzen zijoan. Azkenik iritxi da 1945'ko urtea...

#### LAUKOTE BIKAIÑA.

Guztiz bidezko ta itxurazkoa zerizkien apaizgaiteko iru anima-zuzendariei Sa-

turraran<sup>o</sup> go gogapena. Etzan naikoa Burgos<sup>o</sup> ko mixiolarigaitegia. Ezin baitezakean Euskalerrri<sup>o</sup> ko apaizgaien mixio-irrika ase. Benetan aundia zan izan ere!

Alaxe iru zuzendariak galdera au egin zaien euren burueri: " Bai al diteke edo ez? Mixio-urralde baten jabe egin al gindezke edo ez? Dite-na baldin bada zergatik gaude lo? Zertarako ez di-ogu zerbaiti eltzen? Ezinezkoa baldin bada, berriz, utzi dezagun bein betiko alde batera baztarturik eta mixio-gaiak beste era batera zuzendu ditzagun".

Danentzako arrunt ongarria izango zala garbi ikusten zuten. Izan ere Elizbarrutietako kristau-sinismena indartzeko erarik onen eta bide-rik motzena ori baida. Burgos<sup>o</sup> ko eta bietako ere mixio-deiak asko ugarituko zirala ere bai. Bi gau-zak batera oso ondo konpondu zitezkeala gaiñera. Bañan, nundik asi? Nora jo? Zer egin?

" Adierazi dezaigun, bada, Gotzai jaun-ari zioten alkarren artean. Berak astakeri bat da-la esaten badigu: kitto. Arrazoizkoa dala ta egin ditekena dala esaten badigu, berriz, jarrai deza-gun aurrera lanean ".

Ori dana garagarrillaren azkenaldera gertatu zan. D. Carmelo Ballester, orduko Gotzai jauna, Donosti<sup>o</sup> ra etorrita zegoen oporraldi edo atsedeen egun batzuk igarotzen. Orain gure Donosti<sup>o</sup> ko Gotzai jauna bizi dan Castil-Blanco<sup>o</sup> ko jauregi-an arkitzen zan gaiñera. Iru anima-gurasoak eta Zunzunegi<sup>o</sup> tar Jose jauna azaldu ziran. Mixio bat-en jabe egiteko asmo ta gogotaz mintzatu ziran.

Gotzai jaunak entzun ondoren onela esan zien: " Oso itxurazkoa derizkiot. Geroak adierazi-ko digu". Ta onela jarraitu zuan xamurki: " Nik ere apaizgai gaztea nitzalarik mixioetara joatea erabaki nuan. Baña gero beste bide bat artu bearr-ean gerta nintzan. Oso pozik, lagunduko dizuet, bada, era guztietako mixio-lanetan. Españi<sup>o</sup> ko Aita Santuaren Ordezkoarengana aurkeztuko naiz. Egun auetan Donosti<sup>o</sup> n dabil gaiñera ta erantzungo dizu-et. Baña Aita Santuak beste Afrika<sup>o</sup> ko edo India aldeko sinisgabeen aldera baño Ameriketako sinis-men otzekoetara joatea naiagako duala uste dut nik ".

" Gotzai jauna, guk benetako mixio-lurraldetara, sinsigabeen artera joan naiago genduke ba, erantzun zioten. Baña dana dala, gu Aita Santuaren naia betetzeko prest gaude "...

Itz egin zuan Gotzai jaunak Aita Santuaren Ordezkoarekin lauko ari ordea itzik ere ez zien esan. Aiek, Aita Santuari Ordezkoari etzizaiola ondo iruditu izango ta, euren ametsak porrot egin zutelakoan zeuden. Gotzaiari ezer aita-zerik etziran ausartzen eta ez zerurako ta ez lurrerako gelditu ziran...

Gauza ala ezin baztertu zitekeala-ta zerbait egitea erabaki zuan filosofolarien animazuzendari zan Gisasola tar Maximo jaunak.

" Nere zuloa aixa beteko duten apaiz asko zeudek Elizbarruti ontan. Beste tokiren batean, Ameriketara edo, lan geiago ta emakorragoa egin nezakek Elizarentzat " zion berak. Ta iñori ezer esan gabe Gotzai jaunarengana joan zan. Onetxer zai zeuden Aita Santuaren Ordezkoa ta biak: asmo ura, asmo arin edo asmo sendo bat zan ikusi zai, alegia.

Gotzai jaunak apaizgaien animazuzendari aietako bat noranai joateko prest zegoala ikusirik Aita Santuaren Ordezkoari ikustaldi bat egitera joan zan Madrid eraño. Donosti ko alkarrizketa ezkeroztik urte-terdira... Aita Santuaren Ordezkoaren erantzuna au izan zan: " Asi lenbailen gauzak antolatzen: agiri, baimen taabar. Ni nere aldetik borondate osoz zuen asmo orren alde saiatuko naiz Erroma aldean".

#### ERROMA ALDEAN.

Erroma n euskaldunen asmo ura aurrera eramatea lan zailla zerizkioten. Izan ere gu baño lenago Elizbarruti batzuk Erroma n bertan lan berean asiak ziran: Lombairdia ko Gotzaiak Milan go Gongotzai Jaun agurgarriarekin batera. Etzuten ezertxo ere egin ordea. Liburu ta aldizkarietan ere ontaz itz egin zan bein baño geiagotan. Asmo onen eragillerik aundiena A. Manna izan dugu. (Ikus "Nuestras iglesias y las misiones").

"Lengo era zarretara bakarrik jarraitzekotan mundu guztia ezin zitekeala kristau biurtu zioten. Beste bide berriak sumatu bearra zegola.

Kristau guztiak euren gorpuzkiak bezela sinisgabeak ere artzen etzituzten bitartean etzegola aurrera egiterik. Kristauak baiño sinisgabeak geiago ugarituko zirala... Ta ori gerta etzedin Eleizbarruti bakoitzak mixio-lurraldeak bere gain artu bear zituztekela ta abar".

Baña Eleizak etzun ezertxo ere erabakitzen, ixilik zegoan. Gauz auek ez baidira esan bezin azkar egiten.

Orain berriz Europa<sup>o</sup> ko mutur batetik asi ziran zirika. Ta Aita Santuaren Ordezkoari ain ondo ta bidezko iruditu zitzaien burutapen ura etzitzaion ala iruditu "Congregación de Propaganda Fide" edo "Sinismen Zabalkunderako Lagundia" deritzaionari. Izan ere, ez al zan naikoa len bezela jarraitzea? Zertarako ba bide ta era berriak?... Nundik eta nola ari mataz naspil ura?...

Urte artan "Ad limina" deritzaion ikustaldia egitera beartua zegon gure orduko Gotzai jaun D.Carmelo Ballester.... Gure Gotzai jaunak Kristo<sup>o</sup> ren Ordezkoarekin izan zuan alkar-izketa goxo ta be-roan bere Gazteizko Eleizbarrutiko mixio-espetaz itzegin zion. Aita Santuak pozez zoraturik besarkada kutun bat emanaz entzun berriz. Izan ere PIO XII<sup>o</sup> garrenak etzekian nola konpondu Ameriketa ta beste mixio-lurralde guztietako egoera tamalgarria.

Askotan entzun oi dugu gure Aita Santu agurgarri orri negar-malko samiñak ixurlarazten dizkiola Ego Ameriketako kristautasunaren etorkizunak. Ia apaizik gabe bai daude Ego Ameriketetan eta "protestanteak" lanean gogotik asiak gañera...

Oartu gaitean zer poz eta biotz-arindua artuko zuan gure Erroma<sup>o</sup> ko Aitak. Ta batere zalan-tzik gabe itz auek ialki ziran bere ezpañetatik: "Ondo dago. Los Rios<sup>o</sup> etara joan ditezke. Zuek joan zaiteste lenbailen. An zai daude. An lan egin zenezazuteke". Egun gutxi lenago apaiz eskea izan zuan lurralde aietatik.

Kristoren Ordezkoaren naia garbi asko zegon; korapillo asko ta aundiak azaltzen ziran ordea. Nola askatu? Ala ta guztiz ere Erromatik deika ari zira eta itxuan Ameriketako baztar artan kabi egin zuten, naiz guk beste mixio lurralde bat naiago izan.

Joan zira ta an ari dira lanean urtzen. Orduzkeroztik an ditugu gure seme maiteenak eta berezienenak. Obeto esan, antxe gaude danok, Gazteizko Eleizbarruti zaareko guztiok, Los Rios<sup>o</sup> ko biztanleri kristau sinismen berri bat txertatzen.

Atxaga<sup>o</sup> tar Mikel.  
Donosti<sup>o</sup> ko apaizgai.

# TIPOLojiAREN

## - JoERĀ-


## ARAZOĀK

Tipologia karaterolojiaren sail bat da. Bere betebearra auxe:gizonen karaktereak -aiurriak- saldo batzutan muetatu. Egunero ikusten dugun gauza da inguruko guzien karaktereak desberdiñak dirana. Ezin bi berdiñak arkitu. Bestaldetik ordea egunero nabaitzen dugu au ere: alegia aiurri askok alkarrekiko antza ba-daramatela eta anztasun au oiñarri, karaktere oiek danak saldo batean bildu genezazkela. Saldo bakoi-tza tipo bat litzake; tipo orren izenean jarriko genituzke bertan sartu ditzakegun karaktere partikularrak.

Agirian dago arriskua: saldoketa ori zuzen egiteko karatereak ondo ezagutu bear genituzke. Or dago baña koxka... Izan ere aiurri askok alde batetik alkarren arteko antz aundia daramate, bestetik oso desberdiñak agertzen zaizki-gu. Uztartu egingo al ditugu ala ez? Batzuk bai-etx, bestek ezetz, saldoketa ori egiteko zein neurri edo kriterio artu kontu. Ona emen tipolojiaren eginbearrik lenengoena: kriterio objetibo bat arkitu, orren bidez karaktereak bear bezela tipotan muetatzeko. Ez gera oraindik ortara iritxi.

Orregatik joera asko arkitzen ditugu tipologian, kriterio desberdin batek eragiñak.

Edozein karakterean bi osogai, bi alderdi bezela arkituko ditugu: berezkoa bat, infraestruktura -tenperamentua- eta kanpotik erantsia bestea: superestruktura -gizarteak, edukazioak etab. erantsia. Tenperamentua, bakoitzak jaiotzatik dakarren izaera da, bai soñez bai gogoz. Beraz bi alderdi berezitu bear ditugu tenperamentuan: konstituzioa -soñ-aldea- eta psikologia -gogoaldea. Konstituzio itzaren esanaia ez da oraindik ondo argitu, baña besterik gabe auxe esan genezake: bi elementu dauzkala, kausa ta efektu bailira: endokrino-formula -barne-iñoskunak-, somatikor estruktura -soñ-egitama-. Begirada batean ikusi ditzazun ona eskema batean aiurria osatzen duten aldrdi-gaiak:



Osogai eta alderdi auetako bakoitza artu diteke karakteren saldoketa egiteko kriterioztat. Artu ere egin dira.

Sigaud ek -Prantzi'ko joerakoa- superestruktura oiñarritzat artuaz egin zun bere tipologia. Gure gorputzean lau anatomí-sistema arkitzen ditugu: zilbor-este sistema, birika-sistema, kirio-sistema ta giar-sistema-. Sistema bakoitzak auzogiro egoki bat bear du azi ta indartu dedin: janari-auzogiroa, atmosfera-auzogiroa, gizarte ta jakintz-auzogiroa, ibilladi askoko auzogiro fisiskoa. Ambiente auetako bakoitzak, besteen neurria pasatzen dunean, gizon-mueta, tipo berezi bat sortuko du: zilbor-tipoa, birika-tipoa, kirio-tipoa ta giar-tipoa.

Tipo auek somatikorrak -soñ-aldekoak- dira. Corman en morfopsikolojiak zerbait egin du somatikor tipo auen alderdi psikikorra argitaratzeko,

surrekoak ez baizuten alderdi au landu.

Garbi agertzen da Sigaud<sup>o</sup> en tipolojiak superestruktura, auzogiroa kriteriotzat artu duna. Sigaud beraren itzak dira: "Gizonaren zozkoa -soin-konstituzioa- inguruan daukan auzogiroak moldeatu du". "Zozkoa, inguratzen dun auzogiroaren dirdira besterik ezin diteke."

Kretschmer<sup>o</sup> ek -Alemani<sup>o</sup> ko joerakoa- soñ-egitama artzen du kriteriotzat. Gizon guzien gorputzak, egitama kriterio, iru tipotakoak agertzen zaizkigu: leptosomikorrek -gorputz meak-, piknikorrek -lodikote koipetsuak-, atletikorrek -zozkotsuak-. Tipo auk somatikorrek dira. Kretschmer<sup>o</sup> ek psikikor alderdia ere landu zun. Psikiatra zan eta psikiatriatik datoz bere tipo psikikorrek. Kraepelin eta Bleuler psikiatrak gogo-gaxotasunetan bi joera auk berezitu zituzten: ezkihofrenia -adimenaren erdibitzea- eta ziklofrenia -adimenaren boladakeria-. Kretschmer<sup>o</sup> en ustez bi gaxotasun era oiek joera normalen geiegikeri bat edo ditezke. Au dala-ta gizonen karaktereak bitan banatzen ditu: ezkiotimikorrek -gogo-erdibituzkoak- eta ziklotimikorrek -gogo boladakikoak-. Ezkiotimikor eta ziklotimikor tasun ori geiegitzen danean gaxotasunera irixten gera. Au da Kretschmer<sup>o</sup> en ustegoa.

Zerikusirik ba al dute somatikor ta psikikor tipoak? Kretschmer<sup>o</sup> ek lokarriren bat arkitu nai izan zun. Arkitu al zun? Auxe agertzen da garbi: ezkiotimikortasuna leptosomikortasunarekin alkartzen da ondo; ziklotimikortasuna piknikortasunarekin. Atletikortasuna? Eskizotimikortasunarekin obeto. Ez al dirudi gizona, gorputz-anima, batasun oso bat danezkero, somatikor tipo bakotzari psikikor bat egokitu bear litzaiekela?

Pende<sup>o</sup> k -Italia<sup>o</sup> ko joerakoa- endokrino-sistema artu du kriteriotzat. Bere lau tipoak izen auk daramazkite: lonjilineo astenikorra -aundi ta indargea-, lonjilineo estenikorra -aundi ta indartsua-, brebilineo astenikorra -txiki ta indargea-, brebilineo estenikorra -txiki ta indartsua-. Ikusten dugunez muetaketa au ere gorputzaren forma eta indarrari begira egiña dago. Pende<sup>o</sup> ren ustegoa ikastean askotan agertzen zaiguna da au: gizonaren morfoloji, fisioloji, ta psikolojiak batasun bat osatzen dute. Beraz, gizon baten aiurria ezagutu

nai dugunean ezin gindezke soñ-formari bakarrik begiratzuz gelditu; arreta berdiñarekin aztertu bear ditugu fisioloji ta psikolojia ere. Ortara koxe, gizona bere batasun osoan arturik, bear bezela ezagutu genezan, jaioterazi zun Pende k "biotipoloji" deritzaion jakintz berri bat.

Pende k soñ-estruktura alderdia etzun ainbeste landu. Italia ko De Giovanni ta Viola famatuak eman zizkigunetik artu zitun bearrezko zitzazkion gaiak. Pende ren tipoen izenak De Giovanni ta Viola ren erakutsiak dizkigute, andik artuak bai daude. Pende k egin zuna tipo morfologikor oien fisioloji ta psikoloji alderdia aztertzea. Psikolojia etzun metodo berezirik erabili, lendikakoak baizik. Pende ren lanak fisioloji aldera joan ziran. Ezagungarri asko jarri zizkigun agirian barne-iñoskunak gure karakterearekin zekaten zerikusia aupatzean. Endokrino-tipoak oso ondo aztertu zitun. Pauso aundia eman zun Pende k karakterearen estudiorako endokrinolojia sartu zanean; oraindik iñor eman ez dun bezelakoa noski. Luzaro itzegiten du Pende k len aipa ditudan lau tipo oietako bakoitzari egokitzen zaizkion endokrino-tipoen berri emanaz. Ez dut Pende ren tipolojia zeatz agertzeko asmorik lantxo onetan eta aundiorkiñakin naikoa dugu.

Karakterearen gogo alderdiari bakarrik begiratzuz muetaketa bikain bat eman zigun Heymas ek. Onen tipo psikikoren berri emanaz luze idatzi zun "Norbit" ek "YAKIN"en lenengo zenbakian. Ez diot ezer erantsiko an esanari.

Sigaud, Kretschmer eta Pende ren tipoen orraze-itxura ez dut eman etzan ori nere asmoa ta. Bakar-bakarrik iru eskola famatu oien joera agertu baizik.

Orain galde gindezke: ezin arkitu al diteke beste kriterioren bat sakonagotik asita gizonen ayurria esplikatuz dezakeanik? Baietz uste dut. Ba-dut beste batean Sheldon jaunaren tipoloji berria zabalzteko asmoa, sakonago dijoala bai dirudit.

Beste arazotxo bati ere erabaki ederra ematen dio Sheldon ek. Orainarte tipoak mugarri batzuk bezela begiratu oi izan dira. Esate baterako Kretschmer en muetaketan dauzkagun piknikor,



leptosomikor eta atletikorrak tipo ideal batzuk dira. Tipo oetzaz ematen diran deskripzioekin oso-osoan egokitu ditekunik ez dugu arkituko gure inguruko gizonen artean. Auetako batzuk piknikortasunera egingo dute, bestek leptosomikortasunera; izango dira atletikortasunera urrerrazten diranak ere. Baño bat bakarrik ere ez oieta-ko batekin egokituko danik.

Ortik aspalditako susmo au: alegia, tipoaz itzegin bearrez osogaiaz, radikalaz edo itzegitea obe ote litzaken. Radikala izan ere ez da tipoa. Tipoa radikalez osotua dago. Benetako tipo guzietan radikal berak sartuko lirake osogai, baño tipo batzutan radikal batzuk indar aundiago lukete besteak baiño eta radikalen aunditze edo txikitze orrek banakatu egingo lituzke tipo guziak. Kretschmer berak esaten du: "Nere iru tipoak, gizonen artean ematen diran tipo-mailletan, mugan arkitzen dira; benetan mugarri dira.

Ori ezingo dugu esan Sheldon'en tipoez, itz au eman badezaieket, tipoak baño radikalak esatea obe bailitzake. Radikal auen gora-berakin errex esplikatuko ditugu gizonen artean eman oi diran karaktere guziak.

Ayestaran dar Xabin

Arantzazu ko teologu

ALKAR

IZKETA

## "TXILLARDEGI" JAUNAREN ERANTZUNA.-

Iñaki Bastarrika'ko jaunari.

Euskaltzale bizkor ori:

"YAKIN"en bostgarren alea jaso baño leenago banekien zure eskutitzaren berri. Eta, noski, gogoz beterik ninduzun. Egia esan, eta zerorrek ikus dezakezunez, etzenidan alperrik idatzi...

Alaber nik ere, erantzun au alperrik egiten ari naizenik ez dut uste; eta "Yakin" errebistak bere ateak neretzako zabalik dituela agindu didan ezkerro, ez dut era eder au galdu nai, eta nere gogo guziaz erantzutera noakizu. Adiskide antzean artuko aal didazu!

Arreta aundia merezi du zure eskutitzak. Gaizkiegi dabil gure izkuntza maitea zure itzai jaramonik ez egiteko. Ez orixe. Zerorrek merezi duzu alde batetik, eta euskerak berak ere ez gutxiago. Nere liburuaz iztegin didazu leenbizi, eta gañerako nere lanez gero. Nik ere olaxe egingo dizut arrapostua; eta luze xamarra ba naiz ere, barka. Zure eskeintzak bultzatu nau.

"Leturia"ren Egunkari ezkutua"z.

Nere liburu au etzaizu deus ere gustatu. Ezta arritzekoa: bi muturretan bide-gaude pentsaeraz. Eta au, berez, ezta kaltegarri. Naiago dut zure kontra gogorra, egitia baldin bada, xurikeria faltsoak baino. Egiaz eman bide-didazu zuk zure iritzia, batere losentxarik gabe; eta onelako mai-xecak oso egoki izaten dira. Iritzi guziak nere aldeko balira, susmo txarrak egingo nituzke, xuritzalleen artean nengokealakoan; eta denak berriz kontrakoak balira, zalantzarik gabe arrazoi zutela pentsatu bearko nuke. Onela, ordea, eta iritzi-

mota guzietakoak izanda, pozik nago; eta nere liburua alperrikako izan ez dela pentsa dezaket. Nere "Leturia"ren aurka itzegin dutenen artean aurrena ez bazera ere, anitz esker, Bastarrika, kontrako apur ori besteenari erantsiaz, ingura nintzakean lausengu jenerale eta belaska artatik askatu nauzulako.

Baña, zer nai duzu? Zure aburu gogorak irakurrita gero, argitu egin naiko nituzke puntu batzuk.

Arrazoi duzu, segur aski, gauza batzuetan. Nere liburua leenengoa dudan ezkerro eskaxa dala esatean, konparazio batera: ni neu ere ortantxe nengoke agian. "Udalen" zatia, batez ere, egoskai-tza zaizu. Baliteke. Nere fruitua gordiña dela sinisteko gertu naukazu.

Guziarekin ere, liburuaren egillea naitzen ezkerro, ezin dezaket ontzat eman zuk esan duzun guzia. Zure ustez "esistenzialista joerako nobelari asko irakurritako baten saiokak iruditu zaizkidak ire bururapenak".

Esistentzialisten zerbait irakurria dudala ez dizut ukatuko. Lotsagarria al da bada? Bana onek ez du ezer adierazten. Gaur Sartre, Unamuno edo Heidegger beñere ezagutu ez dituzten gazteak ere, gertuago daude alaz ere berengandik edozeñengandik baino. Mendearen guraso dira esistentzialistak, bai; baña seme ere ez gutxiago.

Picasso'k, Prokoffief'ek eta Unamuno'k munduan aurkitu duten gauza berbera azaldu dute, nork bere erara; artearen modura artistak, filoso-fiaren modura filosofoak. Baña, nola edo ala, gauza berari lotu dira denak; eta alde batetik eragille izan badira, eragiñak izan dira bestetik.

Orregatik "Leturia" ez da, izan ere, nere asmakari bat, zearo beñepein. Egiatzko den neurrian kopia bat da: nik nere inguruan ikusi uste dudane-ren irudia ain zuzen. Nere liburua eta ni, biok kuadroa eta bere pintatzalteez gera. Eta au ez ba gera, alperrik sailtu naiz.

Ortaz, eta ziñez esan dezaket au, nik ez diot iñori zorrik. "Eragilleen" kutsu ori, ezta besteen kutsua, ezta kopiarik, besteakiko topo eta egokiera utsa baizik. Gaurko geran guziok bazter eta paisaje berberak ikusten ditugu-ta.

Erdipurdi edo zearo gaizki atera zaidala saioa? Besterik da au. Eta egia baldin bada ere, ezta arritzekoa. Baña sinistuta egon: kopiatu bear izan banu, EZ NUKEAN LUMA ARTUKO. Kopiatzalle geiegi izan ditugu euskal literaturan, gaur ni ere alakoai jarrai natzaien.

Gero, zure eskutitzera itzuliaz, eta Dostoiowsky rekin alderatu ezkerero oso kaskar geldituko nintzakeala zuk esan ondoren (eta nork uka?) au diozu: "Ba-zegok gure errian bertan ikutu-gabeko naiko eleberrigai ederrik asko. Nork bilduko eta eleberrituko zizkiguk?". Ona emen zure eskutitzean aurkitu uste dudan beste uts bat. "Onetzaz besterik ez oraingoz", diozu.

Ez dut dena kopiatu nai. Zure ustez "Euskalerriko gaiak" ukitu bear dira bakarrik. Izan ere, Euskalerriko bizieran edo kondairan badira, noski, idazki mamitsu asko. Baña zer da "gure erriaren barne-arazoetan" aipatu duzun ori? Zure ustez, oker ez banago, espaitzera zu leenengo ximplekeri oietan, euskeraz idazteko "emengo" zerbaitez egin bear da. Zertara joko "kanpora"?

Baña, zer da "emen"? Zer da Euskalerria zure ustez? Badakit. Diferente dena: izkuntza dena, lamiñen ipuiak, basojauna, baserria, korrika-apostuak, aitonen semeen istorioak, eta abar. Auetxek osatzen dute, zure ustez, beste anitzen ustez bezela, euskaldun-tasuna; eta eskualdun literatura egiten asi geran ezkerero, oietzaz mintzatu bear dugu idazleok, eta ez beste ezertaz ere. Auetzaz kanpo... utikan!

Zurekin nentorke alde batetik: Euskalerriko ATAL BAT baitira, zalantzari gabe, gure erresuma-nortasuna osatzen duten ezaugarri oiek, gure naziotasuna mamitzen duten bereizgarriak ain zuzen.

Baña, onatx korapilloa: gauza oiek Euskalerria erritzat BEREIZTEN ba dute ere, ez gaituzte gu euskaldunok presunatzat OSATZEN. Zuk opa duzu literatura ori ez litzake euskaldun presunena izar go, Euskalerriko tipismoarena baizik. Etzera bakarra iritzi ontan. Baña zuri kasorik egingo bagenizu, etxetiar literatura egingo genuke, etxe koentzako literatura utsa, ots, literatura motza. Edo, obeto esan, sasi-literatura.

Euskaldunok, nere Leturia bezela, gizon gera guziz, baiña euskaldun erara. Gaurko gastediaren katramiliez mintzatzan da nere Leturia, baiñan euskera

Presuna unibersala da Leturia; bere mintzaira, guziarekin ere, gure izkuntza. Mamia eta azala ez ditugu naasi bear.

Auxe da, joera bezela beintzat, bear dana. Euskalduna izateko bizieratik kanpo jokatu bear badugu, orainxte jo dezakegu euskalduntasuna ildakotzat. Eta berdin deritzat euskal literaturaz.

Idazleoneginkizuna gure etxeko istorio-mordoa moldatu eta ugaritzea besteri ez bada, zokora dezagun euskera, eta erauz bizieratik. Eta orduntxe izango litzake onen azkena. Zu, Bastarrika, euskeraren eriotzaren bidetik ari zera.

Egiazko bizian sartu bear dugu euskal literatura. Gure bizimoduari dagokionez, bai; baña presunari ditxekon auziak azaldu bear ditugu ere. Gu ez gera, zorionez, Auñemendian dantzan ari den erria. Ezta gutxiagorik ere.

Auxe pentsatu nuen nik nere "Leturia" sortzean. Bestalde, nere liburu au euskeraz izkiriari ez banu ere, erderaz egingo nukean; eta berdin diot irakurtzen ari zeran gutun onetzaz. Esan BEARRAK eragiten bai nau. Askoren ustez, euskeraz izkiriaterakoan, izkuntza landutzeko idatzi bear omen da. Alderantziz diot nik: zerbait esateko idatzi bear dela. Eta zerbait esan BEAR duten idazleak ez dute beti bere etxeaz itzegiten. Arimaren kezka ezta berez ez toki-garri ez esi-garri. Ondo zion orain dela 400 urte gure Detxepare k, oraindik gor askok entzun ez badiote ere:

"Heuskara, jalgi hadi kanpora".

#### GAÑERAKO NERE IDAZ-LANEZ.-

Zeatz segi dituzu nere urratsak, eta au pozgarri zait. Baño. berriz ere, ez nator zurekin inola.

Ikusten danez, nere artikuluetako mamiaz kanpora, nazkagarri zaizkizu oso euskeraren arloari buruzko nere iritziak oro. Ondikotz! Auzi auek "anpatu" bear ez ditudala diozu, "filolojia" sartu bear ez dudala (noiz sartu ote naiz?) eta bar. Gaiñera ni, "idazletxo tentel bat" naizen ezkeroko "gizon erdi-landu bat" naizen ezkeroko, obe nukean etxean sartu. Bapo!

Auzi ontan ez dut nik neronek itzegin

bearko. Ikusiko duzun bezela zerorren izkribuak salatuko zaituzte, eta ondoreak atereaz joango naiz ni.

Arras kaltegarri deritzazu euskerari buruzko nere joerari; eta bikaiña berriz, zureari. Zure ustez, konparazio batera, zoragarriak dira 1900 ezkerozko "garako" idazleak, eta berai zarrakizkiete dudarik gabe.

Eta onelakoak entzuteko nazkaturik nazkaturik nagoen ezkerero, enaiz gaur ontatik pasako.

Zu - eta zu bezelako guziak- euskera il nai duzute, zuen laguntzarik gabe ere arriskuan ez ba lego bezela; eta asmo gaiztoz eta apropos ari zeratela pentsa liteke, euskera akabatzekotan, noski!.. Ez jakin utsak bakarrik eutsi ditzake zuen txorakeriak.

Zuk ez dakizu oraindik, gezurra badirudi ere, izkuntza bat ez dela geometria. Gañera, egia esan, ez dakizu geometria egiten. Zure "dirakurt" ori (98 gn. orrialdean) ezta EZER, ezpaita beññere BIZI IZAN euskeran. Gañera, teoriaz, "darakurt" izan bearko luke. "Derama" berriz darama da; eta "deragio", geometria egiten asi ezkerero, daragio.

Zure "damaigu"(59), "dagerki"(60), "dagerkigu"(57), eta beste asko ere, geometria dira, bañan ez euskera.

Orrenbestetan aiptzen duzun Orixe 'k egoki erabili du beti ikakoa. Zuk berriz zearo gaizki. Zuk ez duzu Orixe maixutzat, zeure burua baizik. Alde batetik, zure "zesaidakekan", "zekuskat", "Zekikat", "baditekek", "zerizkiokat"(99), "zidakekan"(99, aurrekoa bezela gaizki, "zidakana"baita), "zitzaidakekan"(100, zitzaidakan, noski), eta olako asko ere, eztira beññere erabili orrela euskeraz, eta geometria txarra dira. Beraz, ez dira EZER, zure tema bat besterik. Zer irudituko litzaizuke erderazko auek: "ofrezo", "tene", eta "veniría"?

Gañera, eta au da larriena agian, ika itzegiten denean ez dira orratio forma guziak ika jartzen. "Egiña zegokala zirudik", "aztertu bear dizkagula", "nork eleberrituko zizkiguk", "onako au zilagokanean", eta abar, aldrebestuak daude arras. Tokirik banu, zergatik dauden gaizki azalduko nitzuke. Bañan arrazoirik ez dudala uste ba duzu, galdegiozu Orixe 'ri, Villasante 'ri, edo euskera dakien beste edozeini; eta berak azalduko dizute nik baño obeto, zertan eta zergatik zauden pikuan.

Zure "dit" ori ez da literaturako forma. Zure "zaizuke" dakizuke da, noski; eta "guzi oek", oiek guziak. Ez bide-dakizu oraindik izten atzetik dijoazem "a" guziak, ez dirala nai-ta-naiez artikulatu. Zure "ausardi", "premi", "famili", "egi", "neskatil", eta abar, ausardia, premia, familia, egia, neskatilla eta abar dira. Alderantziz, zure "arrunta xamarra", arrunt xamarra da. "Oitura eza", "sentidu-eza", "etortasun-eza onek"(100), eta abar, ez dira zure asmazio bat besterik. "Sentidurik ez", eta abar, paso.

"Filosofo-elergille"(100), "erri-errian", eta abar, ez dira ezer. Modaz dago gaur "garako" idazle askotan, berboai, bear ez denean, "tu" kentzea. Ba al dakizu zergatik? Batzutan kendu BEAR delako. Berboaren egintza oraindik betekizun edo egin gabe dagoenetan (erderaz subjuntivo, potencial, eta imperativo moduetan), kendu egiten da euskeraz "tu" ori, edo azkeneko "i" a. Bañan au ez dakizute-nok nolanai kentzen dituzute, euskeraren giarra ondatur: "asma ta antola zuela"(97), "ezkuta nai"(55), "gerta ziran"(53), eta beste asko ta asko. Alderantziz orain ere, kendu ditekanean ez duzu kentzen: "barkatu zak"(100), "suntsitu ez dezake"(98), eta abar.

"Erail"(58) diozu, illerazi bearrean; edo "eran" arkaikoaren orde. "Sartre berak" diozu (57), Sratrek berak esan bearrean. "Suezia" ko Akademi berak" diozu ere (52). Ez dakizu oraindik "ak" eta "ek" sufijoak bereizten: "guziek bide berdintsutik zijoaztek"(102).- Ez dituzu "diteke" eta "dateke" bereizten. Axular'ek ez dakizula uste al duzu apika?.- Beste askotan, "k" uzten duzu, erderaz jator pentsatzen duzulako, eta itzez itz diozu: "zalla dirudi...zindo itsastea", itsasteak esan bearrean; eta "suizidioa dirudi egokiena"(60), berriz ere utsa egiñaz.- "Indeterminado" deritzan ori dagoenik ere ote dakizun ez dakit: "zerbaiteri"(57) diozu, zerbaiti esan bearrean; eta "beste aunitzei" ere, aunitzi bearrean.- Sufijoak erabat gaizki erabiltzen dituzu: "pentsalari"(55), "abeslari"(60). Noiztanik erabiltzen da "lari" berboakin? (ikus zazu faborez Azkue'eren "Morfología", 78 gn. or.) - "Emakumezko ille bat" zer den ez dakit. Eta "gazte asmotsu" esatean Txirrita'k entzun ba lizu, gazte gaisto eta biurri bat naizela ni pentsako zuen... Eta orrela jarraituko nuke.



Baña naikoa delakoan moztuko dut. Orra "garako"en arnaria! Itzetik ortzera ondatzen ari zera euskeraren giarra. Zuk, Bastarrika, euskera-  
ren eriotza nai duzu oarkabea, eta bere galeraren bidean barrena zoaz.

Zein da zarrari eta euskeraren biziari kasorik egin nai ez diena? Ni aal naiz, ala zuek "garako" idazleok? Noiz ikusi dira emen olako gauzak 1900 baño leenago? Noiz arbuizaten dituzuten oietan? Beren utsak ez dira ezer zuek ezagututa gero... Eta, orrela, "garako" askok idatzitako euskera, ta zeurea noski, atzerako pausu dirala ZALANTZAN ere jartzea, ezjakin utsaren siñua iruditzen zait. Eta zerok zerate atzeratze onen aintzindariak. Gañera auldura ori normala da. Gure buruaz osoro jabetu ez balitz astakeria, argi eta garbi ikusiko genukean dagoeneko. Atzera baitijoa euskera aozkoa begi-bistan; eta erdaldunok bultzatu bitituzute apriorismoak, garbikeriak, mordollokeriak, eta ola nazkagarrikeriak oro.

Ni beintzat, Bastarrika ori, esnai nago oraindik; eta OSO GUTXI dakidala dakit. Eta edozein basarritarrekin itzegiten dudan guzietan, asko ikasten dut; eta Axular, Mendiburu, edo Joanes Etxeberri irakurtzean berdin. Zuk, berriz, eta zu bezelako andigurakoak, eskemak eskuan eta erdal-etorria buru-muñean, ez bide daukazute ezer ikasterik; eta onetxek ondatzen zaituzte. Eta orrela erditzen dituzute gero gelegi ezagutzen ditugun zuen mamutzar otz eta iguingarri oiek.

Gaur gaurkoz beraz, bi joera dira: euskera egiazkoarena bat, eta "garako" idazle batzuen asmazio egoskaltzetakoa bestea. Eta bi gauza gerta ditezke: edo euskera il auek, edo alderantziz. Zuk, ortaz, euskera egiazkoaren garaipena opa ba duzu, zeure mordollo orren akabera eskatu bearrean zera. Nik nerekiok auxe eskatzen dut, jakiña...

Euskera iltzen ez ba da denborak berak ilko ditu "garako" idazle geienok. Ez zuk aipatzen dituzun guziak, noski. Orixe ren etorria eta jakinduria, esate baterako, artuko nituzke nik. Ez uste izan, gañera, Orixe eta zu bide beretik ari zera tenik. Ezta pentsatu ere. Jakiñaren gañean aldrebestu du Orixe k; zuk, ordea, ez dakizulako.

Nun aurreratu du zuen mordollokeria orrek? Erdaldunen artean. Nun ez, ordea? Euskaldunen artean. Bilbotarrai traga-arasi dizalekezutena,

bermearraiz ezin. Zergatik? Ez aal duzute beñere pentsatuko? Bada garaia, alajainkoa! Euskera bi-ziago ba lego, ez lirake gauza auek gertatuko. Iltzear delako gerta ditezke.

Axular "egungo gaietan barna" ikusi naiko zenukeala diozu. Baita nik ere!! Eta bide egoki ori esateko, "lau aizetara barreiatzeko" esaten didazu. Bai, jauna; Lartzabal'ena esate baterako. Donibane Garazi'n egondu naiz surtemein, eta "Hiru ziren" bere komedia ikusi. Eta gauza bat esango di-zut: gaurko idazleen artean (Euskalerriko alde ontakoez ari naiz), ARTUKO GENUKEALA olako bat. Jakiña: bere jatorrasuna izateko, jatorriz ez dau-kagunguziok beintzat, ikasi egin bear dugu. Eta auxe da, dirudienez, zuk gogoko ez duzuna. Askoz ere errexago baitzaizu komentuko gelan sartu, eta asmazio erotan astea. Noski!

Bañan euskera, zoritxarrez, gure asabak galtzera utzi zutelako, sakabanaturik dago an eta emen, edonun zarpil, eta edozeinen aotan urri.

Eta zuzpertzeko, piztutzeko, indartzeko, puskak jasota osatzeko, IKASI egin bear da, eten gabe ikasi, geure odol beroa biurtu arte; eta EZ ASMATU. Auxe da bide bakarra, eta nik beintzat artua dudana: euskera biziaren iturri guzietan e-dan.

Iru gauza bear dira euskera salbatzeko: ikasi, ikasi eta ikasi. Eta beste iru baztertu be-ar: asmatu, asmatu eta asmatu (izkuntza biaren e-ta jatorraren arabera ez ba da).

Bapatean gure burua euskaldun jator bi-urtzeko, euskeraren jabe-kunde orren jauzia edo ziz-tada Bergson'ek dioen bezela "ziplo" sentitzeko, IKASI egin bear da, erruz pasa bear da denbora eus-ker a bizi ori atzitu naiean, emendik eta andik ikasi bear da; eta, itz bitan esateko, gogor artu bear da; eta zintzo, umil, esaneko eta beñere gelditu gabe izkuntzaren mamia osatuz joan bear da. Eta KANPOTIK BARRURA, ez alderantziz.

Edan egin bear da euskera goxoa Euskal-Erritik. Eta ez ahantz au: Axular, Mendiburu, Lar-tzabal, Xenpelar, eta gaurko baserritarrak lerro berean daude: euskera biziaren lerroan ain zuzen. Zuek, berriz, sasi-euskerarenean. Zerok baztertu zerate bidetik; ez gu. Zuen euskera ezpaita zuen barrunbean nekez egositako ondakiña besterik. Eta

nik beintzat, emendik aurrera bigunkeria eta sasi-diplomazia guziaz utzirik naspil iguingarri orri EZ DIOT EUSKERA DEITUKO.

Zuek lurjotzen ba dezute, euskera sal batu dela esan dezakegu; zuek garaituko ba zenute, berriz, egingo luke euskerarenak...

Tamala da, gañerantzean, nabari dauden egia garden auek bein eta berriz esan bear izatea. Bañan azkenean bide zuzenetik abia gaitezen esperantza aundia badut. Eta onengatik idatzi ditzut.

Gogor artu zaitut, badakit. Eta pena ematen dit euskaltzaleon artean onela ibilli beharrak. Bañan onelaxe egingo ez banu, eta egin dudan bezin zakar gañera, neure buruari egingo nioke saldukeria. Eta euskerari azkenik.

"Yakin"en nere au ikusi arte, agur. Eta zentza gaitezen, arren, Bastarrika ori.

"TXILLARDEGI"

Donostian, 1958 Otsailak 26

"TXILLARDEGI" JAUNARI ERANTZUNA.-

Euskaltzale trebe ori:

Zuka jardun be-  
arke natzaizu, noski, ikakoa legez erabiltzen ez  
dakitan ezkerre. Aztertua dut zurea, miaketan iar-  
dun gabe. Ba-dakust nereak nik nai izan baiño e-  
rremin biziagoa sortu dizula. Barkatu, arren, a-  
diskide ori. Zakar artu nazu benetan, merezi ere  
merezi bai nuan. Neu ere zakartxo agertu nintzai-  
zun, aitortu bearrean naiz. Urrenerako ba-dakit  
iritziak zertxobait orraztuak eta xurituak eman  
bear dirana. Jipoiak asko erakutsi oi du. Milla  
esker nereari erantzun ain luze ta mamitsua egin  
dizulako. Enuen uste ainbesteko jardunkizunik  
zeramanik nere arek.

Naiago nuke erabat ixildu eta gauzak  
geiago arrotu gabe utzi. Baiño zureari beste e-  
rantzun bat erantsi bearrean arkitzen naiz. Ena-  
tortzu, egia esan, griña gaiztoz eta asmo okerrez,  
puntu batzu tajutu naiez baiño. Enuke neronek gel-  
ditu nai azken itzarekin. Nik onekin amaitzeko as-  
moa dut. Dana dala, egiaren onerako eta argipide-  
rako badei zabalik dauzkatzu beti aldizkari onen  
ateak. Baña, euskeraren eta euskaltzaleon izen  
onerako, arren, neurriak gorde ditzagun...

Auxen dut zure kartari ezarri nai nioken  
irizpiderik oiñarrizkoena: ez diozula, nere ustez,  
nere kartari erantzun; ots, nik esandakoetaz kampo  
jardun zakizkidala. Artu zazu bestela bare-bare  
nere aurrenekoa ta zure erantzuna eta ikus griñarik  
gabe artu-emanik ba-duten. Nere erantzun au beste-  
rik ez da izango. Zurea nereakin alderatu, beneta-  
ko zerikusirik ba-duten iksutearren. Iritzi asko-  
tan bat natortzu, baiño eraso-antzean diarduzu  
uneoro nere aurka nik benetako oiñarririk eman ga-  
be. Meri baiño ere besten norbaiti erantzuten ez  
ote diozun nago...

Ikutzen dituzun puntu batzu polikigo jar-  
dun nai nituzke. Baño labor izatera beartu naute  
elkar-izketa onen giro garratza somaturik...

"Leturia"ren Egunkari ezkutuz.-

"Kopiatu" itz au geiegi darabilkidazu. Aztertu mesedez nere idazkia orrelakorik edo antzekorik ere idarokitzen dutan. "Kutsus"ari buruz bakarrik diardut, eta ez beste ezertaz. Zuk ukatzen baduzu, ondo dago. Baño kutsuti kopiatzera alde aundia dago. Unamuno 'k berak Kierkegaard 'en eta beste doixtar-filosofoen kutsu aundia zeraman, baiño ezin dezaiokegu iñola bere nortasun berezi ura ukatu. Onetzaz naiko.

Dostolewsky 'rekin "alderatu" omen zaitut. Nik ala? Ez da egia. Etortasun eta egokitasmaz diardut beste ontan, eta Dostolewsky nobelaria adibide bat bezela dakart bakar-bakarrik. Ondo dakizu zuk inpirazio-une batean zein erretan atsegin idazten dan. Arnaspe ortan ondo, baiño ori joan danean, alegiñaka, asma-aalaka jardun bear. Berealaxe nabari oi da alako gogortasun bat. Orixe besterik enuan nik adierazi nai. Impresio auxe artzen nuan nik "Leturia"ren orrietan barna. Kopiatu-kontua ezta aipatu ere.

Nere ustez "Euskalerriko gaiak ukitu bear dira bakarrik" diozu zurean. Zuk onela diozu, ez dut uste nik iñun ere diodanik. Sujerentzi bat bezela aurkezten dizut nik "Euskalerriko barne-arazotasuna" nobelagaitzat. "Barne-arazotasun au apropos jarria neukan. Eta onekin adierazi nai nuana zuk zere esplikazio luze oietan diarduzuna baiño barrentxorago dijoa... Ez derizkiot egoki emen gai ontaz luzatzea. Bestela, erriak bai kanpo eta bai gogoz zer diran aspalditxo ikasirik daukat. Pixkat baiño gelago ausnartutako gaiak ditut auek "ximplekeri" oietan egoteko. Zurekin nator, noski, idea oetan. Ez dut uste ainbeste jarduteko oiñarririk eman dizudanik. Iksui deza-kezunez, adiera okerretik muturreraño abiatzen zakizkit emen, eta gero ere berdin.

"Gaiñerako nere idaz-lanez"

Ez dut uste "Filolojian" ez sartzeko dizudanik. Joera-alderdikeri oetan ez naasteko besterik ez dizut. Au ere agindu ez-baña, aolkatu.

Zuk onela ez baderizkiozu, ez gera ariak antzo muturka asiko. Ondorekoa ere oker artu didazu. Ez dut uste neure burua ain arroputz dutanik, iñortxori "idazletxo tentel", edo "erdi-landu" eta onelako piropoak erasteko. Euskaldunon akats berezi bat azaltzen ari nintzaizum ontan, eta adibide bat ezartzen dut. Azkenik adibidearen ondorioa. Zuk zerorri erantsiak eritzi dituzu itz auek, nere asmoaren kontra. Egia esan, lotsik gorriena lemaidakela iñori clakorik iaulkitzea!

"Arras kaltegarrikeritazazu euskerari buruzko nere joerari; eta bikaina, berriz, zureari". Txantxetan ari al zakizkit? Nun ote diot nik onelakorik! "Nere" ta "zure" auek zuk bakarrik darabilzkizu. Egia esan, ezin mintza ninteke "nere" dalako bide edo joera onetzaz. Al dutan bezela idazten dut, iñortxori erabat lotu gabe. Nik danetatik irakurtzen dut eta danetatik ikasten. Zarrak eta garakoak ditut maixu. Iakintza-arloan ari naizenean garakoeri jarraitzen diet, beste biderik ezagutzen ez dutalako. Guziak -teoriz apika ez baino idaztean- bide berdintsutik dijoaztela ba-diot. Euskal aldizkarietan ere ez dala desberdintasunik, nabarmenik beintzat, -joeta arlo ontan- ikustem. Ez diot besterik. Ez nerea zurea baino obeagoa denik eta ez alderantziz. Miatu ondo, arren. Emen ere urrutiegi eta adiera okerretik abiatu zera.

"Zuk ez duzu Orixe maisutzat, zeure burua baizik". Orixe jauna itzalgarrri zait eta asko ikasi dut benetan beragandik, bear aina ez bada ere. Ondo dakit asko eta asko ikasi bearrean nagola oraingoz. Adierazi dizut nere maisu nortzuk diren: euskaltzale guztiak, zarrak, egungoak eta zeu ere bai. Onetzaz gainera eta oinarritsuena: sendia. Amairu urte nitularik utzi nuan neure familia, baino sustrai ori ez du inork erauzten. Zu bezela alde batetik bestera ibiltzerik ez daukat oraingoz, baino osopozik nenbilke neure euskera gogor au pixka bat giartu eta biziartzeko. Neure burua dutala maisu? Pixka bat bai, eta derriorez gainera. Euskera lantzen asten danak, erro-errotik asi bearra du. Egiña gutxi ematen zai, eta apur ori erabat sakabanaturik. Norberak konpondu bear izaten du. Ez da gutxi eskatzea. Zergatik uste duzu, bestela, ainbestek atzera dagitela

euskera-ikaste ontan.? Iztegi osotu bat euki ez bitartean urri, oso urri izango gera euskaltzaleok. Goi-xamarreko gaiel erasotzen diedanean neure burutik asko egin bearrean arkitzen naiz beti, askotan iñor euskeraz eman eztako gaiak diralako. Eta zerorri ere gertatu zaizu apika berauxe bein baiño geiago. Naiago nuke nik, buruausteak alde batera utzita, lan-tresnak gertu eduki, baiño orainogz bestela jokatu bear.

"Zuk -eta zu bezelako guziak- euskera il nai duzute...; eta asmo gaistoz eta apropos ari zeratela pentsa liteke, euskera akabatze-kotan, noski!". Gtx!, Ezti! Txillardegia jauna, emen biotz-kadatxo bero bat izan duzu nunbait. Ez dut uste ainbeste esan nai zenukeanik ere!...

"...zerorren izkribuak salatuko zaituzte". Eta bereala akats-mordo bikaiña azaltzen didazu. Eta azkenik, "Orra garakoen arnaria!" diozu. Ez, adiskide, ez. Orra Bastarrika orren akats-pilla ederra, bear zenuke esan. Nereak dituzu akats oiek guziak, -denak utsune badira- eta ez "garakoenak". Enoakizu akats-kontu ontan sartzera, ba-dira ni baiño iakitunagoak ontan eta. Baiño ikusi nork abiarazi zaitun, nik apika? Dana dala, idazlan bakoi-tzerako zu bezin miatzalle zorrotz askorik banekua, asko ikasiko nuke.

"...Eta OSO GUTXI dakidala dakit... Zuk berriz... ez bide-daukazu ezer ikasterik". Nun ote diot nik oso gutxi dakizula eta nik ikasi bearrik ez dutala? Nere aurrenekoan Orixeren ura ez al duzu gogoratzen: oraingoz euskal idazle guziak bata besteen ikasle gerana? Emen ere zeure naitara diarduzu.

"Gaur gaurkoz, beraz, bi joera dira: euskera egiazkosarena bat, eta "garako" idazle batzuen asmazio egoskaitzetakoa bestea". Joera oiek tecrian edo literaturan arkitzen dira? Idaztietan bada esaidazu nork darabilkian eta berealaxe jarraituko diot. Iakintza-saillekoa bada batez ere. "Hiru ziren" eta era ontako komediak edo idazte-mota ez da zaillegia euskera garbi eta goxoan ematea. Zeure karta au edo zure "Leturia" ze euskera-joerakoa erizten dituzu? Zabaldu zazu orduan berrimearren artean. Nere ustez -ustez eta iakitez-

naiago dute euskaldun istorrenak ere erderaz irakurri euskera goxoenean baiño. Au ziurtzat e- duki. Ez dugu korapillo au guk euskaltzaleok as- katuko. Ezin dezakegu ere Ez "zure bidekoak" eta ez "besteen bidekoak" ez dute auzi au iraba- ziko, beste bideetatik arazo oni askapena ez ba datorkio.

Oetako puntu askotan, bestela, irizkide nazu erabat. Beste puntu askotan ziur nago itze- giñez bat gentozkela luzaro gabe.

Asieran nizuna dizut berriro. Ederki jardun zera, baiña nik esandakoetaz kanpo. Zure etorriari eskubide zabalegia eman diozula deriz- kiot. Nere karta oiñarriz baiño aitzakiz artu duzunik enuke nai pentsa. Dana dala, barkatu, ařen, nere zakarkeria, eta zugan iksuten dan euskaltza- letasun sutsu ori ez bekigu gertatu oztopo-arri eta are gutxiago gorroto-bide.

Ar zazu asmoetan kide duzun onen besar- kadarik estuen eta biozkorrena,

Bastarrika'ko Iñaki

Arantzazu.



- 001 -

## NI ERE "URTZILARI" NAIZ.-

Gure "pralle-gazteak" -Teoloji ninietan-, yakintsu bezin zitori, beren YAKIN argia damaigute; oparo, txukunki ta garden.

Teoloji, Teoloji! ....

Zer da Theos, Urtzi baizik? Zer da Urtzi, Yaungoikoa baño? Theos, Urtzi, Yinko!!!

Zer da Yinko.... "Theos" ezik.

"Theos" ororena degu. Ez bedi-izan "YAKIN", apez-pralle Teolojilariena bakar. Bedi -orokar mintzoan- danorena. Egungo "jantziherria", Teolojilari izatea duzute "katoliku" -yakintsu artean.

Ezagutu izan dut "galtzadun bat"....

"Urtzilari" bikaiña. Idazti-arazotan, maixu ezik nagusi zana. (Urtzirenean bego). Ikusi bazenute -nik bezela- giza legean, langille, trebe, arpiko zorrotzez "Yinko-arazoak" lerrazten...marapiltzen, oretzen. Ua zan gizona, ua. Gure mendietako Yoanes en zuertasuna ezik, bazitun "grazia" ren mendu gozoak; ubelño apalaren usai-on gaiak. Eta Yainko irazallea ren lagun, "giza-aita" zela, eman zitien Berari apaiz, pralle, lekaime... ta sendulari onaskoak; gizadiak yarraiz zezen, sendi-mendian apezak berrizten iraupen ezilkorrean.

Guraso zenuten, baiña baita "Urtzilari".

Ni ez naiz yakitun "Urtzi" gaietan; ua bezela guraso bai. Nere poza, semea, oraindik aña, apezuko balitz! Ez yakiñean ordea, ongi dakit -oso ongi- yakintza aski ez dela Yinkoa ezagutzeko; Urtzi ikasteko, Theos maitatzeko.

Giza ez da abere uts. Abere da, baiña gogoz ornia. Gogoak, gure gogoak, Urtzi ren antzadu. Berak esan zigun. Beraz, Yinkoa guregan dugu. Gu ere Yinko gera! Kontu, kontu!, ni ez naiz YINKO-! A zer nolako alproja!

Nork daki zer-nolakoa dan Yinkoa?

Urtzi bera, gure animaren antzekoa. Gure arima, ene gogo, Theos bezelakoa. Borobil onetatik ezin naiteke irten. Galdua nintzake zearo. Giza-begiak Yinko bizartsu bat damakit (O! Kristo

maitea) Gogo Gurena -Irutatik bat- Uxotxozkoa nai baduzute -maitasunaren ondoren zoragarria; ezkutuki ezkutua. Zer dan Yinkoa? ...

Ama bat ezagutu nun, begiak barrura itzultzen zekiena. Arek mintzatzan baleki -mutua ezan baña- esango zidan!, pozik alare!, zer dan Yainkoa.

Neroni oartua nazute mugarik gabeko zerbait dala. Zokondorik gabeko murkoa, Emalle, Alguztidun, On-utsa... Yinkoa DENA dela!!! A! ama arek izketan baleki... Aretxek esango zidan! "ludi-begiak ikusi eziña dela, baña berak Yainko antzeko gogo-indarrez, berarekin bizi-arazten zuela, Berarekin zegola beti.

Yinkoa beragan zeukan "ama" etzan "Teolojilari", bai "Yainkotiar".

Aizu, Teolojilari! Zer derizkiozu?

Ezagutu nun baita ere, beste alargun bat; andre on, biozti, elizkoi, zintzo, goimaitasundun, eta agurmari zalea. Aoz-ao galdetu zidan, egun batez, onelako arazo batean mintzaketan ari giñalarik: -"Ez al da ba San Jose, Aita Eternua?".

Nik uste, andre on arek ere Yainkoa ikusten zuela. Ikusi, sumatu ta sentitu. Berarekin gozatzen zun beintzat!

Yakiñarekin baño geiago "grazia" rekin Yainkoa zer danikusten da.

Ez al da au "Teoloji" legezkoa? Ezetz?!!

Zuk zer dakizu!!!

## "BORDARI"

-----  
Bejondaizula Bordari jauna! Zure au irakurtzean, Horacio'ren arako ura bururatu zait: ("Urtzilari"zeran ezkerre latina pixkat ezagutuko duzu nik uste): "Pictoribus atque poetis quidlibet audendi semper fuit aequa potestas"....  
-----

E'tar Y'en eskutitzetik:

" Betarik ezin sortu ba'nabil ere, oso-osorik irakurtzen dut zuen aldizkaria. Mamiz, muiñez alegia, bikain-bikaina zuen aldizkaria, gai ernegarri ta mardulak erabiltzen eta arrotzen baidituzute, euskeraz orainñaldi ontararte ikutu ez ditugun jardun goitarrak. Euskerari dagokionez, xamurrago, xaleago idazten saiatu bear zendutekela derizkiot.

Gaurko litaratur-lanetan teknika-usain oparotegi billakatzen dugu eta nik uste ele-ederrak, lasaiago, eztiago, jatorrago, itz batean, aixago labaindu bear dula gure paperetan. Gaztetasuna nabari da zuen aldizkarian bere alderdi on eta txarrakin. Ba-dago kemen eta gogo zuen lanetan; ez ahantzi, ordea, neurriari eta zuhurtasunari so egiten... Ertzetara jo gabe erdibidea billatzen leia. Euskerak ortik dizu etorkizun..."

"YAKIN" aldizkariaren "ongilleei" eskerik biozkorrena eman bearrean arkitzen gera guziok, beren laguntzari esker, estuasun aundiegirik gabe gabiltzalako. Ba-dira bat baño euskaldun jator eta eskuzabal asko! Batzuek ixilpean eman digute beren izena agertu nai ezta. Oeri batez ere luzatzen diegu gure eskerronik biziena. Orainarte eskertzeko sukerarik ez dugu-ta izan. Batzuek kanpotik bestetsuek Euskalerritik lagundu digute. Datorren zenbakian, urrengoan, aldaketa txiki bat egiteko asmoa dugu laguntza oni esker. Bear aña ez ba dugu ere, laguntzen jarraituko digutelakoan gaude.

Euskaldun eta euskaltzale guzien partetik, milla esker!

## EUSKALTZAINDIAK IPINTZEN DUEN URTEROKO

### NOVELA TA TEATRO-SARIA

#### DOMINGO AGIRRE NOVELA-SARIA

- a) Edozein dialektutan idatzi ditezke lanak.
- b) Gaia idazleak berak aukeratu dezake, eta lana norberak egiña izan bear du eta ez beste izkuntza batetik itzulia.
- c) Sari bakar bat baizik ezta izango, amar willa pesetakoa eta zatitu eziña.
- e) Lanak Euskaltzaindira bialdu bear dira (Riversa, 6. BILBAO) lema batekin firmatua, eta lehenaren giltza sobre itxi batean bialdu bear da Abenduko leenbiziko aguna baño len.
- f) Saria, gabe gelditu diteke egoki iruditzen bazae batzarrekoeri.
- g) Batzarrea Euskaltzaindiak izendatuko du lanak bialtzeko epea bukatu ondoren.
- h) Izkribuak makiñez idatzita bialdu bear dira, alde bakar batetik eta lerro-une bat utzirik: foliotamañuzko orrian (31,50 x 22 gutxi goraberra) gutxienez 150 folio dituala.
- i) Novela saritua Euskaltzaindi onen ardurapean agertzen den "Len eta Orain" liburu-sortan argitaratuko da.

Euskaltzaindiaren gogoa da urtero sari bitara deitzea: novelazko Domingo Agirre sarira, eta teatrozko Toribio Alzaga sarira. Ala ta guzi ere aurten novelazkora baizik ezta deitzen, eta datorren urtean teatrozkora. Onak gutxienez ekitaldi bi izan bearko ditu eta obra saritua Bilbo'n agertzeko alegiñak egingo dira, urtero Euskaltzaindiak iri onetan gertatzen duen artezko eta kulturazko ekitaldian, Euskalerriko arte ta kultura-ri izkuntzaren bidez eragiteko asmotan.

"EUSKALTZAINDIAK"

Euskaltzaindiaren gogoa da urtero sari bitara deitzea: novelazko Domingo Agirre sarira, eta teatrozko Toribio Alzaga sarira. Ala ta guzi ere aurten novelazkora baizik ezta deitzen, eta datorren urtean teatrozkora. Onak gutxienez ekitaldi bi izan bearko ditu eta obra saritua Bilbo'n agertzeko alegiñak egingo dira, urtero Euskaltzaindiak iri onetan gertatzen duen artezko eta kulturazko ekitaldian, Euskalerriko arte ta kultura-ri izkuntzaren bidez eragiteko asmotan.

"EUSKALTZAINDIAK"

EUSKALTZAINDIARI ESKERRONEZ

Pozik jaso eta argitara eman du-  
gu gure euskeraren zain-gizonak erabakitako  
Novela-Saria. YAKIN aldizkari onen azken  
zenbakian onelakoxe eskaera bat egiten ge-  
nuan eta oraingo ontan Euskaltzaindiaren  
erabaki bezela argitaratzeko zori ona eman  
zaigu. Guk eskatu eta uste baiño areago  
gertatu zaigu Euskaltzaindiaren erabakia.

Milla esker gazte guziona pertez!  
Saituko gera bakoitzak zerbait on eta eder  
gertutzen. Esna bitez luma guziak eta ain  
sari ioria irabaztera gertu! Ea YAKIN aldiz-  
kari ontan azalduriko luman batek eramaten  
dun! Eskerronik biziena Euskaltzaindi-  
ari, gure leial jaramon dagielako!

Y A K I N

▲ M A I ▲

ARKIBIDEA

Ataria..... 3

TEOLOJI-FILOSOFI-SAILLA

Aita Santuaren Itza.-Balerdi, beneditarra.. 6

Lourdes'ko Eunurteko Idazkia.- Muxika, beneditarra..... 13

Eliza Jainko-indar gure aultasunean.-Pernando Mendizabal,prantzisk..27

Lourdes, Patima, Heede.- Mujika B., beneditar.34

Ostegun Gurena Astearte? Gaztañaga,apaiz....39

Lourdes'ko baietza...Artola, beneditara.....41

KULTURA-IAKINTZA-ANTZE

Gizonari dagokion eskubidea.-Aranzadi, Sakra..48

Kristau-demokraziak.-Bereziartua,prantzisk...54

Apaiza ta gizarte-arazoa.-Dorronsoro, sakram..64

"Los Rios"ko Mixioari buruz.-Atxaga,apizgai..72

Tipolojiaren joera-arazoak.-Ayestaran,prantziz.79

E L K A R - I Z K E T A

"TXILLARDEGI" Jaunaren erantzuna..... 85

"TXILLARDEGI" Jaunari erantzuna.Bastarrika,..94

Ni ere "URTZILARI" naiz.-"BORDARI".....99

E'tar Y'en eskutitzetik.....101

Esker bidez.....101

EUSKALTZAINDIAK IPINTEN DUEN URTEROKO NOVELA TA  
TEATRO-SARIA.-

DOMINGO AGIRRE NOVELA-SARIA.....102